eman ta zabal zazu

Máster Universitario en Globalización y Desarrollo
Globalizazioa eta Garapena Unibertsitate Masterra

**Trabajo Fin de Máster**
**Master Amaierako Lana**
Curso **2024/2025** Ikasturtea

# Kate bihurtutako zaintzak, zauri bihurtutako kateak:

## EAEko emakume migratzaile feministen ekintza kolektiboko errepertorioak


**Jone Odriozola Beitia**

**Tutoría / Tutorea**
Tania Martinez Portugal



Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

*Esta publicación ha recibido financiación de eLankidetza - Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad.*
*Argitalpen honek eLankidetza - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziazioa jaso du.*

Máster Universitario en Globalización y Desarrollo / Globalizazioa eta Garapena Unibertsitate Masterra

Trabajo Fin de Máster / Master Amaierako Lana
Curso 2024/2025 Ikasturtea

***Kate bihurtutako zaintzak, zauri bihurtutako kateak:***
***EAEko emakume migratzaile feministen ekintza kolektiboko errepertorioak***

Jone Odriozola Beitia

Tutoría / Tutorea: Tania Martinez Portugal

Hegoa. Trabajos Fin de Máster, n.º 118 / Master Amaierako Lanak, 118. zkia.

Fecha de publicación: noviembre de 2025
Argitalpen data: noviembre de 2025

**Hegoa**
Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional
Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua

www.hegoa.ehu.eus
hegoa@ehu.eus

EHU
Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre, 81
48015 **Bilbao**
Tel. (34) 94 601 70 91

EHU
Koldo Mitxelena Biblioteka
Nieves Cano, 33
01006 **Vitoria-Gasteiz**
Tel. (34) 945 01 42 87

EHU
Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 **Donostia-San Sebastián**
Tel. (34) 943 01 74 64

*Esta obra está bajo una Licencia Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)*
*Agiri hau Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0) Creative Commons-en lizentziapean dago.*

*"Es un mundo que lo estás viendo tú, ya tan jovencita… que alguien decía, menos duro, pero más difícil. Con tantas cosas a favor, de comodidades, pero con más preguntas y más soledades que tiene una. Y entonces, pues, de eso se trata, de que eso pequeñito lo cuidemos..."* (AE).

**Eskerrak**

Eskerrik asko AEri. Por tu tiempo, tu confianza y por compartir con tanta claridad y generosidad tu experiencia encarnada, tu verdad y tu mirada. Tus palabras han sido fundamentales en este trabajo.

Tania Martinez Portugali, zure ekarpenengatik, laguntzagatik eta pazientziagatik. Nire denborak eta nire mugak errespetatzeagatik, eta prozesu honetan zehar hainbeste irakasteagatik. Nigan jarritako konfiantzagatik, eskerrik asko.

Amari, familiari eta lagunei beti hor egoteagatik. Prozesu honetan ere nigan sinesteagatik.

Lan honetan parte hartu duzuen pertsona guztioi, bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

Eta beren espazio eta aukeretatik inspirazio-iturri diren borroka kolektiboei bide egiten eta eusten jarraitzen dieten emakume guztiei.

ARGIBIDEA

LABURPENA ..... 7
1. SARRERA ..... 8
1.1 Justifikazioa ..... 9
1.2 Lanaren egitura ..... 10
2. METODOLOGIA ..... 11
2.1 Helburuak ..... 11
2.2 Ikertzailearen kokapena ..... 12
2.3 Ikerketa prozesua eta hausnarketa metodologikoak ..... 13
2.4 Ikerketa diseinua ..... 16
2.4.1 Berrikusketa bibliografikoa ..... 17
2.4.2 Kolektiboen Interneteko euskarriak (Webgunea, Facebook) ..... 18
2.4.3 Adituari elkarrizketa erdi-egituratua ..... 23
3. MARKO TEORIKOA ..... 24
3.1. EKONOMIA FEMINISTAREN IKUSPEGITIK: ZAINTZA ETA MIGRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK ..... 24
3.1.1 Ekonomia feministaren oinarriak, kritikak eta ekarpen nagusiak ..... 24
3.1.1.3 Ekonomia feministaren ekarpen nagusiak ..... 29
3.1.2 Ekonomia feminista eta zaintza sistema ..... 31
3.1.3. Zaintza kate globalak eta migrazioa ..... 43
3.2. LURRERAKETA EUSKAL HERRIAN ETA EAE-N ..... 49
3.4.1 EAEko testuinguruaren kokapena: zaintza, migrazioa eta feminismoa ..... 49
3.3 FEMINISMO DEKOLONIALA: IKUSPEGI HEGEMONIKO, EUROZENTRIKO, ARRAZISTA ETA BURGESAREKIKO HAUSTURA: ..... 52
3.3.1 Postkolonialismoa ..... 52
3.3.2 Pentsamendu dekoloniala eta feminismo dekoloniala ..... 53
3.4. EKINTZA KOLEKTIBOKO ERREPERTORIOAK: TEORIA ETA APLIKAZIOA ..... 55
4. ANALISIA ..... 58
4.1 ELKARTEEN EDUKI DOKUMENTALEN AZTERKETA: TAULAK ETA ANALISI DESKRIPTIBOAK. ..... 59
4.1.1 Etxeko Langileen Elkartea - Asociación de Trabajadoras del Hogar (Bizkaia) . 60

4.1.2 Bidez Bide (Gipuzkoa)....72
4.1.3 Arabako etxeko eta Zainketako Langileen Elkartea (AEZLE) - Asociación de Trabajadoras del Hogar y de los Cuidados de Álava (ATHCA) ....81
4.2. ELKARTEEN DISKURTSO POLITIKOAREN ETA EKINTZA KOLEKTIBOKO ERREPERTORIOEN INTERPRETAZIO BATERATUA. ....94
4.2.1 Diskurtso Politikoa: Proposamenak eta aldarrikapenak....95
4.2.2 Ekintza konkretuak: Ekintza Kolektiboko Errepertorioak. ....100
4.2.3 Zaintza-kate globalen gaia diskurtso eta ekintzetan ....104
5. ONDORIOAK: Borrokaz jositako zauriak: gorputzak, zaintzak eta erresistentziak. ...106
6.BIBLIOGRAFIA ....110
7. ERANSKINAK ....118

TAULA ETA IRUDIEN ARGIBIDEA

**Taula 1**: Aztertutako informazio iturriak ........................................................................20
**Taula 2**: Kolektiboen aurkezpen laburra ........................................................................58
**Taula 3**: ATH-ELE analisi taula ........................................................................61
**Taula 4**: Bidez bide analisi taula ........................................................................73
**Taula 5**: AEZLE analisi taula ........................................................................82
**Irudia 1**: Zaintza Kate Globalak ........................................................................47
**Irudia 2**: Zaintzaren diamantea ........................................................................48
**Irudia 3**: Zaintzaren kartografiak ........................................................................49
**Irudia 4**: Darucama Itxi. Kartela........................................................................68
**Irudia 5**: Eskubide guztiak etxeko langileentzat. Maiatzaren 1eko Manifestazioa ........................................................................69
**Irudia 6:** 2020ko egutegia ........................................................................70
**Irudia 7:** Lan ikuskaritzaren aurrean kontzentrazioa........................................................................71
**Irudia 8:** Parekatu - Iguálate Bidez bide........................................................................77
**Irudia 9:** Bidez bide viñeta........................................................................78
**Irudia 10:** Nosotras migradas, las otras........................................................................79
**Irudia 11:** Luces en sombra dokumentala........................................................................80
**Irudia 12:** Etxeko langileen eskubideak errespetatu: kartela........................................................................85
**Irudia 13:** Greba feminista orokorrera joateko arrazoiak........................................................................86
**Irudia 14:** Manifestazioa AEZLE........................................................................87
**Irudia 15:** Paperak denontzat, AEZLE kartela........................................................................88
**Irudia 16:** Erregimen orokorra Orain! Kartela prestatzen ........................................................................89
**Irudia 17:** Martxoak 30, Etxeko eta zaintzako langileen nazioarteko eguna ........................................................................90
**Irudia 18:** AEZLE elkarretaratzea........................................................................91
**Irudia 19:** AEZLE tailerrak........................................................................91
**Irudia 20:** AEZLE urte amaierako asanblada........................................................................92
**Irudia 21:** AEZLE Maiatzak 30, Etxeko langileen Nazioarteko Eguna: Kartela........................................................................93

LABURPENA

Ipar globaleko herrialdeetan bizi garenon bizitzak, Hego globaleko emakumeen migrazio nahiz zaintza- eta bestelako- lanaren bidez mantentzen dira. Emakume hauen egunerokoa eta gorputzak, indarkeriaz, arrazakeriaz, eta eskubide nahiz euren garrantziaren aitorpen faltaz daude zeharkatuta. Aurrez aurre bizi dugun dugun errealitate gordin honen aurrean, beren azaletan indarkeria nahiz zapalkuntza mota guzti horiek bizi eta jasaten dituzten emakume horien borrokak erdigunean jarri nahi izan ditu lan honek. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) emakume migratzaile feministen elkarte edo/eta kolektiboek, 2020-2025 urte tartean garatu dituzten diskurtso politikoa eta ekintza kolektiboko errepertorioak aztertuko dira, haietan *zaintza-kate globalen* fenomenoaren artikulazioa nola ematen den aztertzeko.

Metodologiari dagokionez, alde batetik, kolektiboek ekoiztutako material bibliografikoaren eta interneteko euskarrietan partekatutako materialaren berrikuspena eta azterketa sistematizatua gauzatu da. Beste alde batetik, gaian aritua eta aditua den pertsona bati elkarrizketa erdi-egituratu bat egin zaio.

Ikerketa honen abiapuntua da emakume migratzaile feministen kolektiboek Euskal Herriko eta EAEko zaintza-sistema zeharkatzen duten egiturazko indarkeriak salatzeaz gain, diskurtso hegemonikoa eta ezarritako ordena zalantzan jartzen dituzten ezagutza eta proposamen politiko propioak eraikitzen dituztela. Eta beraz, beren ekintza kolektiboko errepertorioak aitortzeak eta erdigunean jartzeak, ikuspegi dekolonial, feminista eta intersekzionaletik, justizia sozialeko etorkizunak irudikatzea ahalbidetzen du. Lan honek ekarpena egin nahi dio zaintzaren inguruko eztabaida feminista eta sozialari, emakume migratzaileek EAEn daramaten borrokaren ikusgarritasuna areagotuz.

HITZ GAKOAK

EKONOMIA FEMINISTA, ZAINTZA-KATE GLOBALAK, EKINTZA KOLEKTIBOKO ERREPERTORIOAK, ZAINTZA-LANA, MIGRAZIOEN FEMINIZAZIOA, EPISTEMOLOGIA FEMINISTAK.

## 1. SARRERA

Sistema kapitalista-neoliberal, hetero-patriarkal, kolonial eta arrazista egituratu batean bizi gara, non hainbat zapalkuntza (arraza, generoa, klase soziala, sexu identitatea, adina...) aldi berean artikulatzen diren, dominazioaren erreprodukzioa bermatuz (Federici, 2012). Egitura horren baitan, ikuspegi antropozentriko eta androzentrikoa nagusitu da: alde batetik, giza espeziea erdigunean jartzen duen paradigma bat ezarri da, gainerako bizitzak gizakion zerbitzura dauden objektu bihurtuz; bestetik, gizaki maskulino, heterosexual eta txuria eredu gisa hartu da (Haraway, 1991).

Sistema neoliberal hetero-patriarkalaren estrategiek emakumeen gorputzak, denborak eta lanak arpilatu eta kolonizatu dituzte, maitasunagatik edo bokazioagatik egiten diren betebehar gisa ulertuarazi nahi izan direlarik (Pérez Orozco, 2014). Lanaren sexu-banaketa, sistema bitar batean oinarritzen da: produktiboa eta maskulinoa dena alde batean, eta afektiboa edo erreprodukzioarekin lotutakoa, femeninoa, bestean. Hori dela eta, etxeko eta zaintzako lanak feminizatu, gutxietsi eta ikusezin bihurtu dira historian zehar.

Globalizazioak eta neoliberalismoak areagotu dute lanaren sexu- eta arraza- banaketa. Sistema bat eraiki dute, non zaintza-lanak, bereziki Ipar Globaleko lan prekarizatuak eta subalternizatuak, Hego globaleko emakume migratzaileek egiten dituzten. Honela, zaintza lan hauek, kate globalen bitartez kudeatzen dira.

Euskal Herrian eta EAEn antolaketa sozial eta feminista indartsua duen eta borrokarako eta erresistentziarako espazioak eraiki diren arren, ez da prozesu global horietatik salbu geratzen. Zaintza-sistema hauetan islatzen diren logika kapitalista eta patriarkalez zeharkaturik baitago ere. Euskal Herriko emakume migratzaile feministen elkarteek zaintzen sektorean beren eskubide, aldarrikapen eta borrokak zabaltzen dihardute. Gizarte antolaketa guztiz bidegabe, arrazista, eta patriarkala desegin, eta beren esperientzia, jakintza eta antolatzeko moduetatik abiatuta alternatibak eraikitzeko, diskurtso eta praktikak garatuz.

Ikuspegi feministetatik, zaintza-lanei behar duten aitortza sozial eta ekonomikoa lor dezaketen ideia garatu da. Horretarako, gizakion interdependentzia nahiz elkarrekikotasuna kontuan hartuta, bizitza erdigunean kokatu eta zaintzen gizarte-antolaketa birpentsatzea proposatzen da (Picchio, 2003; Carrasco, 2014; Pérez Orozco, 2017).

Master amaierako lan hau Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) emakume migratzaile feministen diskurtso eta aktibismo politikoa ikusarazteko eta ulertzeko beharretik sortu da. Izan ere, zaintzaren sektorean emakume migratzaileen diskurtsoen ikusezintasun historikoa ez da kasualitatea, zapalkuntza- eta bazterketa-prozesu sistematiko baten emaitza baizik (Spivak, 1988, 2009; Mohanty, 1986, 2008).

Epistemologia feministatik abiatuta ezagutza sortzeko oinarri gisa, ekonomia feministaren eta teoria dekolonialen ekarpen teorikoak erabili dira lan honetan, zaintzen krisia eta zaintza-kate globalen auzia, gure gertuko testuinguruan jorratzeko. Ildo honi jarraiki, emakume migratzaile feministen ekintza kolektiboko errepertorioak eta aldarrikapen politikoak jartzen dira azterketaren erdigunean. Ikerketak, fenomeno global honen baitan ematen diren zapalkuntza gurutzatuetan jartzen du arreta, eta emakume migratzaile feministen kolektiboek sistema honen eraldaketan duten funtsezko rola mahaiganeratzen du, subjektu politiko eta epistemologiko aktibo gisa. Laburtuz, emakume guztientzako eskubideak, duintasuna, eta justizia soziala aitortu eta bermatuko dituen zaintza-sistema eredu baten alde egiten dituzten borrokek, narratiba nagusiei aurre nola egiten dieten ulertu nahi izan da.

## 1.1 Justifikazioa

Emakume migratzaileek historikoki, 1980-1990 hamarkadetatik aurrera batik bat (Ezquerra, 2011), eutsi diete zaintzei iparralde globalean, baina haien lana ikusezina eta prekarizatua da espazio gehienetan. Hala ere, ez dira esplotazio-subjektu pasiboak, erresistentziak eraikitzen dituzten, aliantzak ehuntzen dituzten eta zaintza-lanak ulertzeko eta antolatzeko beste modu batzuk proposatzen dituzten eragile politiko aktiboak baizik.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) emakume migratzaile feministen kolektiboek bultzatutako diskurtso politikoak eta ekintza kolektiboak ikusarazteko eta aztertzeko beharrak justifikatzen du lan hau. Haien ahotsak, esperientziak eta proposamenak, bai esparru instituzionalean nahiz mugimendu feministetako diskurtso hegemonikoetan baztertzen diren testuinguru batean. Honek, dinamika horiek hobeto ulertzea eta eraldaketa sozial bidezkoagoa eta inklusiboagoa lortzen laguntzea ahalbidetzen du.

Ikerketa hau, interpelazio pertsonal eta politiko batetik abiatzen da: Euskal Herrian kokatzean, bizi naizen lurraldean, eguneroko eta tokiko espazioan gertatzen diren botere-harremanetan inplikatuta aurkitzen naiz. Baina ez dut fenomenoa barrutik eta lehenengo

pertsonan bizi. Horregatik, eta aurrerago egingo dudan bezala, funtsezkoa iruditzen zait ezagutza ekoizten den edo duenaren kokapena ikusgarri egitea.

Kolektibo hauen diskurtsoak eta estrategia politikoak aztertzeak ekonomia feministaren eta gizarte-mugimenduen azterketa-eremua zabaltzea ez ezik, feminismoaren ikuspegi eurozentriko edo instituzionalizatu batetik askotan alde batera utzi diren jakintza eta praktika politikoak balioestea ere ahalbidetzen du. Lan honek, beraz, pentsamendu kritikoaren eta ertzetatik sortzen diren, baina kapital-bizitza gatazkaren erdigunera bideratzen duten praktika eraldatzaileen arteko elkarrizketa indartzeko tresna izan nahi du. Amaitzeko, lan hau beharrezkoa da, zaintzaren auzia ez baita soilik gai ekonomikoa, baizik eta auzi politikoa eta feminista.

### 1.2 Lanaren egitura

Master Amaierako Lan (MAL) hau atal ezberdinetan dago egituratuta. Lehenik eta behin, sarrerako atala (1. SARRERA) gaia bere testuinguruan kokatzen duen atala. Bertan, aztergaiaren garrantzia justifikatzen da, hala nola lanak duen egitura eta edukiak zehaztu.

Bigarren atal batean, lanaren metodologia azaltzen da (2. METODOLOGIA). MAL honen helburu orokorrak eta espezifikoak aurkezten dira, ikertzailearen kokapena, ikerketa prozesuan zehar eman diren hausnarketa metodologikoak eta ikerketaren diseinua azaltzen dira.

Hirugarrenik, lan honen esparru teorikoan sakontzen da (3. MARKO TEORIKOA). Ikerlan hau behar bezala aurrera eraman ahal izateko beharrezkotzat jo diren kontzeptu eta autoreak azaltzen dira. Aurrerago, lan honen mamia izango den analisiaren atalean (4. ANALISIA), ikerketaren azterketa egin da, kolektiboen diskurtso politiko nahiz ekintza kolektiboko errepertorioak aztertuz, eta zaintza-kate globalen fenomenoaren artikulazioa zein den azalduz.

Eta amaitzeko, ikerketaren ondorio nagusiak jaso dira azken atalean (5. ONDORIOAK). Datu analisiaren ondorioak, mugak jaso, eta etorkizunerako ikerketarako ildo nagusiak proposatzen direlarik.

## 2. METODOLOGIA

Atal honek ikerketaren ikuspegi metodologikoa osatzen duten elementu nagusiak biltzen ditu. Lehenik eta behin, azterlana gidatzen duten helburuak aurkezten dira, bai eta ikertzaileak analisi-objektuari dagokionez duen kokapena ere. Aurrerago, ikerketaren diseinua eta garatutako prozesu metodologikoa azaltzen dira, informazioa biltzeko eta aztertzeko baliatutako teknikak zehaztuz. Gainera, ikerketa-prozesu osoa zeharkatzen duten gogoeta epistemologikoak gauzatzen dira ere, ikuspegi feminista eta dekolonialaren hautua justifikatuz.

### 2.1 Helburuak

Master amaierako lan hau burutu ahal izateko, honako helburu orokorra eta helburu espezifikoak zehaztu dira:

**Helburu orokorra (HO):**

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) emakume migratzaile feministen elkarteek 2020-2025 urteren artean garatu dituzten diskurtso politikoa eta ekintza kolektiboko errepertorioak aztertu, hala nola zaintza-kate globalen fenomenoa nola artikulatzen duten ezagutu.

**Helburu espezifikoak (HE):**

**HE1**: EAEko emakume migratzaile feministen 3 elkarteen diskurtso politikoan azaltzen diren aldarrikapenak eta proposamen politikoak identifikatu eta aztertu.

**HE2:** EAEko emakume migratzaile feministen 3 elkarteek beren aldarrikapen eta proposamen politikoak lortzeko aurrera eramaten dituzten ekintza kolektiboko errepertorioak identifikatu eta aztertu.

**HE3:** EAEko emakume migratzaile feministen 3 elkarteek garatu duten diskurtso politikoan eta euren ekintza kolektiboko errepertorioan zaintza-kate globalen fenomenoa nola artikulatu duten ezagutu.

## 2.2 Ikertzailearen kokapena

Lan hau epistemologia feministak ezagutzaren ekoizpen prozesuari egindako ekarpenetatik abiatzen da. Jakintza ez da neutroa edo objektiboa. Donna Harawayk (1995) proposatutako ezagutza kokatuaren kontzeptua funtsezkoa da hau ulertu ahal izateko. Jakintza beti sortzen da posizio jakin batetik, eta ezinbestekoa da posizio hori aitortzea eta ikerketa prozesuan ematen diren botere-harremanak ikusaraztea. Honela, ezagutza zientifikoaren neutraltasuna zalantzan jarri eta partzialtasuna edo/eta ikertzen duenaren testuingurua aitortzeko beharra planteatzen da. Ikuspegi honetatik, ikerketa ekintza kokatutzat eta konprometitutzat hartzen da, jakintza kritiko eta aktibistari laguntzen diona (bell hooks, 1984; Harding, 1987; Haraway , 1995; Biglia, 2012). Hau esanda, lehenik eta behin argitu beharra daukat ez naizela subjektu epistemologikoaren parte eta ez dudala fenomenoa barrutik bizi. Ondorioz, kanpoko begirada honek ezagutzaren ekoizpenean dituen ondorioak kontuan hartu eta behar bezala kudeatzea eskatzen du.

Batetik, nire prestakuntza akademikoak eta EHUren eta Hegoa Institutuaren testuinguru instituzionalak ere baldintzatzen dute nire ikuspegia. Bertako emakume zuri eta unibertsitateko ikasle gisa dudan kokapenak, zaintzak jaso dituena eta batez ere eman ez dituena, baldintzatu egiten dute nire hurbilketa aztergai den gaira. Gainera, gaiaren inguruan aldez aurretik dudan ezjakintasunak ere eragina du ikerketa hau eraikitzeko eta emakume migratzaile antolatuen jakintza eta esperientzetara hurbiltzen naizen moduan. Baina, lan honen sarreran esan dudan moduan, honek ez du nahi esan fenomeno honek zeharkatzen ez nauenik, aitzitik, menpekotasun harremanak sortzen dituzten botere harreman sarearen parte inplikatua naiz.

Beraz, ikertzailearen kokapena hau dela jakinda, ikerketa honek ahalegin berezia egiten du emakume migratzaileen diskurtso eta ekintzak lehenesteko eta erdigunean jartzeko, bai eta haien ekarpen politikoak eta ezagutza aitortzeko.  Era berean, beren diskurtsoetara jarrera etiko eta gogoetatsu batetik hurbiltzeko ardura hartzen dut. Betiere nire jarrera propioa eta honek dakartzan mugak aitortuz.

Zaintza-kate globalen fenomenoaren azterketak, ekonomia feministaren eta ikuspegi dekolonialaren arteko gurutzaketa eskatzen du; izan ere, emakume migratzaileen bizipen eta borrokak ezin dira ulertu Ipar Globaleko ikuspegi feministetatik soilik. Teoria dekolonialak beharrezkoak dira fenomeno honen dimentsio historiko, geopolitiko eta arrazializatua behar bezala azaleratzeko. Hortaz, ikuspegi dekolonial hau baliatu dut fenomenoaren ulermen integralago bat lortzeko.

Ikuspegi feminista dekoloniala hartzeak hausnarketa kritikoa eskatzen du, eta hauxe da hain zuzen ere ikertzaile gisa hartu nahi izan dudan jarrera. Hausnarketa feministaren planteamenduari jarraituz, aipatu bezala, emakume gazte, zuri, europar eta euskalduna izateak eragina izango du emakume migratzaile feministen diskurtsoen sarbidean eta interpretazioan.

Gezurrezko neutraltasunera jo beharrean, Harawayren proposamenak "objektibotasun gorpuztua" aldarrikatzen du, hots, bere partzialtasuna, kokapen zehatza eta erantzukizun etikoa onartzen dituen ezagutzeko modu bat (Haraway, 1995). Hausnarketa egiteak, ikertzaileak bere buruari, botere-harremanak nola artikulatu diren eta horiek nola eragin duten galdetzea suposatzen du. Beraz, hausnarketa boterea deseraikitzeko eta ezagutza elkarrekin sortzeko tresna metodologiko gisa hartu da, ikertzaile gisa betetzen dudan lekuaren kontzientziatik abiatuta, eta jakintzaren ekoizpen oro harreman sozialek eta ikertzen ari denaren sexu-genero, etnia, kultura eta klase posizioak zeharkatzen dutela aitortzen da. Ikuspegi kritiko hau bereziki garrantzitsua da feminismoaren, migrazioen eta botere-harreman kolonialen arteko elkargunean kokatzen diren gaiak lantzen diren ikerketa sozialetan.

Nahiz eta ikertzaile gisa ezin dudan botere-harreman jakin batzuen erreprodukzioa erabat saihestu, lan honek begirada estraktibista batetik urruntzea du xede, besteak beste emakume migratzaile feministen kolektiboen aldarrikapenak eta aktibismo politikoa lehen lerrora ekartzen, eta euren erritmoak eta nahiak errespetatzen.

Behatzeko, entzuteko eta ezagutzeko jarrera bat hautatu dut. Begirada intersekzionala ere (Crenshaw, 1989) funtsezko tresna da emakume migratzaileek zaintza-sistemaren sektorean bizi dituzten errealitateak ezagutzeko. Prozesu honetan, arraza, klase, nazionalitate eta genero faktoreak egitura kolonialen barruan nola erlazionatzen eta eratzen diren kontuan hartuta. Hala ere, aitortu behar dut ikerketa honetan ez dudala begirada hori modu sakonean aplikatu. Gaiak hala eskatzen duen arren, nire prestakuntza, denbora-mugak eta batez ere kolektiboekin harreman zuzenik ez izateak mugatu egin dute ikuspegi hori garatzeko gaitasuna. Hori dela eta, hausnarketa hori etorkizuneko ikasketa eta lanketa gisa planteatzen dut.

### 2.3 Ikerketa prozesua eta hausnarketa metodologikoak

MAL hau ez da berez edota modu isolatuan eraiki, baizik eta hausnarketa eta eraikuntza kolektiboko prozesu luze baten emaitza da. 2024ko azarotik, Tania Martinez Portugalekin (nire tutore eta bidelagun izan denarekin) topaketa batzuk hasi nituen, lanaren ikuspegia eta gaia definitzeko helburuarekin. Ordu asko eman ditugu honi forma ematen, helburuak birpentsatzen,

gure buruei galderak egiten eta hauek doitzen eta honi heltzeko modurik koherenteena bilatzen. Prozesu honetan, funtsezkoak izan dira Hegoa Institutuko langile eta irakasleekin izandako elkarrizketak ere, ikerketaren norabidea markatu eta elikatu duten bide, erreferentzia eta iradokizun baliotsuak eskaini baitizkigute.

Ildo honi jarraituz, Ericka Burmanen (1994; hemen aipatua: Biglia, 2012) ideiari heltzen diot, Burmanek azpimarratzen du ezagutza ez dela hutsetik sortzen, baizik eta bizi ditugun esperientziek eraikitzen laguntzen digute. Hori horrela, aitortzen dut, ikerketa hau partekatutako esperientzia anitzen, ikaskuntza espazioen eta ikuspegi etiko nahiz eraldatzailearen aldeko apustua egin duen esparru akademiko eta ez akademikoaren laguntza konprometituaren emaitza dela.

Hasiera batean EAEko emakume migratzaile feministen taldeei elkarrizketa erdi-egituratuak egitea aurreikusita zegoen, haien diskurtsoetan, aldarrikapenetan eta aktibismo-estrategietan sakontzeko helburuarekin. Hau ez da posible izan eta elkarrizketa hauek ezin izan dira aurrera eraman, talde hauek, une honetan, ikerketa eta hausnarketa prozesu honetan ez parte hartzea erabaki dutelako. Beren web orrietako eta *Facebook* sare sozialean partekatutako informazio eta argitalpen publikoetara zuzenean bideratu naute.

Errealitate honek aukera eman dit ikertzailearen eta ikertzen ari garen elkarteen artean dauden botere- eta konfiantzazko-dinamiken inguruan hausnartzeko. Kolektiboen erabakiak, jarrera kontziente eta legitimotzat hartu behar dira, beren barne-prozesuetan, lehentasunetan eta aurretik egindako ikerketek utzitako esperientzia eta arrastoetan oinarrituta. Hori horrela, beren denborak, espazioak eta erabaki politikoak errespetatu dira, eta ikerketaren planteamendua berregituratu da.

Hasiera batean, emakume migratzaile feministen kolektiboen parte diren emakumeen ahotsak sartzeko asmoa bazuen ere, horiek ez azaltzeak ez du jorratzen diren gaien garrantzia baliogabetzen, ezta gutxiesten ere. Aitzitik, aldaketa honek beste material mota batzuk aztertzera bultzatu nau, hala nola beren interneteko euskarrietan argitara eman dituzten: dokumentuak, manifestuak, ikus-entzunezko materialak eta kolektibo hauek sortutako beste zenbait baliabide publiko. Horrela, haien diskurtso eta ekintza politikoak ezagutzen eta aztertzen jarraitzeko aukera izan dut, haien erabakiak errespetatzen eta onartzen dituen ikuspegi batetik.

Ikerketak aurrera egin ahala, ikergaiaren testuingurua osatzeko beharrezkoa ikusi zen aditu bati elkarrizketa egitea. Profil hau bilatu eta herri hezitzaile den emakume migratzaile

aktibista, feminista eta antiarrazista bati elkarrizketa erdi-egituratu bat egin zitzaion Hemendik aurrera, Aditu / aritu elkarrizketatua anonimizatu eta AE bezala agertuko da analisian.

Ikerketa honetan, elkarrizketatutako pertsona aditua dela ulertzen da, ez soilik jakintzagatik, baizik eta bere ibilbide politikoagatik eta borroka-esperientziagatik ere. Alegia, aditua da eta aritua ere bai: bere gorputzetik, praktikatik eta kolektiboki eraikitako ezagutzatik abiatuta, egunerokoan zaintza-sistemaren oinarriak zalantzan jartzen eta eraldatzen aritu delako.

AE-k partekatutako ideiek, analisiek eta hausnarketek, berrikuspen bibliografikoa eta analisi dokumentala kontrastatzeko, osatzeko eta aberasteko balio izan dute. Diskurtso politiko eta ekintza kolektiboko errepertorioen irakurketa konplexuagoa eta testuinguruan kokatuagoa ahalbidetuz. Elkarrizketa honek, garrantzi handia izan du EAEko emakume migratzaile feministen mugimenduaren diskurtso, praktika, aldarrikapen eta ekintzak aztertzerako garaian. Esperientzia haragitua, barrutik bizi izan duen emakume baten ahotsa ikerketan txertatzea ahalbidetu du. Egunerokotasunetik, kolektibotik eta batez ere, berak aipatzen duen bezalaxe, gorputzetik kontatua dena. Bere hitzetan:

> “Yo la parte del discurso político y todo no es mi apuesta, y hay compañeras referentes potentísimas, pero me gustaba eso de escucharte la palabra encarnar. Ya que yo te voy a dar la experiencia como educadora popular feminista antirracista con base con las mujeres más de calle, esto es, las trabajadoras de hogar y cuidados. Porque ya ves que ahora hay tanto conocimiento situado, por eso hay que tener muy claro hasta donde y desde que lugar voy a permitirme compartir ¿verdad?” (AE)

Elkarrizketaren aipuak jatorrizko hizkuntzan, gaztelaniaz, mantentzea erabaki dut. Elkarrizketatuaren ahotsa errespetatzeagatik eta ikerketa honek bizi duen epistemologia feminista eta dekolonialarekin koherente izateagatik.

Bestalde, maila pertsonalean balio handiko elkarrizketa izan da, ikerketa honen baitan gerturatu nahi izan dudan errealitateetara, sentsibilitate, arreta, entzute eta errespetu gehiagoz iristeko aukera eskaini baitit. Emakume aditu/aritu honekin hitz egiteak, nire kokapenaz hausnartzera bultzatu nau, ikuspuntu kritiko batetik. Eta ikerketa prozesu honetan errespetuz parte hartzeko konpromisoa indartzera bultzatu nau, ezagutza begirunez, era etikoan eta erantzukizun politikotik abiatuta sortzeko garrantziaz ohartarazi didalarik. Zentzu honetan, elkarrizketa honetan jorratu dena, informazio iturri oso baliotsua izateaz gain, funtsezko ikaspena ere izan da.

Orain arte aipatu den bezala beraz, hurrengo lerroetan garatu den MAL hau hausnarketa horietatik jaio eta hazi da. Galdera irekietatik eta ezagutza feminista kokatuak erabateko ziurtasunik bilatzen ez duenaren eta aitzitik, hausnarketa kritiko, afektibo eta politikorako bideak irekitzen dituenaren kontzientziatik. Ez dut neutraltasun edota ziurtasun absoluturik bilatu, baizik eta praktika politikotik jakintza eraldatzaileak sortzen dituzten diskurtsoak ezagutu, ulertu, eta mahagaineratu nahi izan ditut. AEk aitortu bezala:

> " Estoy en un momento en el que me encuentro ante muchas contradicciones. Muchas certezas pero no termino de encajarlas... Por ratos una se cree que tiene muchas verdades no? Y de repente, muchas veces tengo más preguntas que respuestas... Quiero que sepas eso, aunque lo que te comparta lo voy a hacer desde la pasión, y desde lo que creo y lo que hago." (AE)

Bere hitzek sentimendu indibidual bat adierazteaz gain, munduan egoteko eta jakintza sortzeko modu bat gorpuzten dute: etengabeko zalantzatik, zintzotasun politikotik eta neutraltasuna bilatzen ez duen konpromisotik, eraldaketa bultzatu nahi duena.

## 2.4 Ikerketa diseinua

Ikerketa deskriptibo-analitiko bat eraman da aurrera, 1.go eta 2. mailako iturrietan oinarrituta. Alde batetik, berrikusketa bibliografiko eta interneteko euskarrietan datu bilketa egin da (2.mailako iturriak). Bestalde, informazio hau osatzeko eta nire burua eta gaiaren inguruan dudan jakinduria nahiz begirada aberasteko, gaian aditua/aritua den pertsona bati egin zaio elkarrizketa erdi-egituratu bat (1.mailako iturria). Hurrengo lerroetan, metodo hauen erabilpenaren berri ematen da, besteak beste.

Prozesu hau aurrera eraman ahal izateko, lehenik eta behin, EAEko emakume migratzaileen 3 kolektibo feminista hautatu dira, zaintzen sektoreko borroken eta mobilizazioen adierazgarri direnak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Kolektibo horiek — Arabako etxeko eta Zainketako Langileen Elkartea - Asociación de Trabajadoras del Hogar y de los cuidados en Álava (AEZLE - ATHCA), Araban; Asociación de Trabajadoras del Hogar – Etxeko Langileen Elkartea (ATH-ELE) Bizkaian; eta, Bidez Bide, Gipuzkoan, izan dira:

- **ATH ELE** (Bizkaia): Etxeko eta zaintzako langileen lan-eskubideen alde borrokatzen duen kolektiboa da, bereziki Euskal Herrian lanean dihardu, Bizkaian. Erakunde honek

langile migratzaileen eskubideak defendatzen ditu oso prekarizatua den sektore batean, eta emakume migratzaileek lan-esparruan dituzten egiturazko bidegabekeriak agerian uzten ditu. Lan-baldintzak hobetzeko eta etxeko lanak duintzeko duen ikuspegiak funtsezko kolektibo bihurtzen du zaintza-kate globalen dinamikei eta emakume migratzaileen prekarizazioaren inguruko ikerketarako.

- **Bidez Bide (Gipuzkoa):** Migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideen alde lan egiten duen kolektibo bat da Gipuzkoan, batez ere emakume eta haien eskubideak zaintza lanaren testuinguruan kontuan hartzen ditu. Kolektibo honek inplikazio handia du justizia sozialaren eta etxeko langileen aitorpenaren aldeko borroketan eta aktibismoan, gizarte-bazterketaren arazoari, egiturazko diskriminazioari eta emakume migratzaileen lan-prekarietatearen aurkako borrokari heltzen dietelarik.

- **AEZLE - ATHCA** (Araba): Arabako etxeko langileen eskubideen defentsan eta zaintzan zentratutako kolektiboa da. Erakunde honek zaintzaren sektorean langile migratzaileen lan-baldintzak ikusarazteko eta hobetzeko lan egiten du, prekarizazio eta esplotazio handiari aurre egin nahian. AEZLE-ATHCA Arabak langile migratzaileak gizartean integratzeko eta kolektibo honengan eragiten duten arraza- eta klase-diskriminazioko egiturak ezabatzeko borrokan ere parte hartzen du.

Hiru kolektibo hauek hautatu dira, alde batetik, (i) zaintza sektoreko langileen lan-eskubideen defentsan duten inplikazio maila handiagatik; eta bestetik, (ii) sare sozialetan duten ikusgarritasun eta jarduera aktiboagatik. Honek erraztu egin du talde hauen diskurtso politikoa eta garatzen dituzten ekintza kolektiboko errepertorioak eskuratzea. Presentzia digital hau, funtsezkoa izan da informazio esanguratsua biltzeko.

Hurrengo paragrafoetan, informazioa biltzeko erabilitako metodo/tekniken nondik-norakoak zehazten dira.

### 2.4.1 Berrikusketa bibliografikoa

MAL honen euskarri teorikoa garatu ahal izateko ezinbestekoa izan da berrikusketa bibliografikoa. Berrikuspen bibliografikoa ikerketa-metodologia kualitatiboetan erabiltzen den teknika da. Helburu du ikergaiarekin lotutako ezagutza esanguratsua biltzea. Eztabaida, ikuspegi teoriko eta aurretiazko aurkikuntza nagusiak identifikatzeko aukera ematen du.

Horrela, gaiaren inguruko eztabaida nagusiak ulertzeko eta ikerketa-prozesuari norabide sendo bat emateko balio du (Vilanova, 2012).

Lan honetan, berrikuspen bibliografikoaren bitartez, hainbat dokumentu mota kontsultatu dira. Hala nola, artikulu akademikoak, liburu espezializatuak, txostenak, erakunde publiko eta sozialek argitaratutako dokumentuak, kolektiboek argitaratutako materialak etabar.

Dokumentuak biltzeko prozesuan, oso lagungarriak izan dira Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa eta Hegoa Institutuko dokumentazio zentroa. Bertan, ekonomia feminista, zaintza-sistemaren krisia eta feminismo dekolonialaren inguruko bibliografia eta lanarekin aurrera egiteko garrantzitsuak izan diren material horiek kontsultatu ahal izan ditudalako.

### 2.4.2 Kolektiboen Interneteko euskarriak (Webgunea, *Facebook*)

EAEko emakume migratzaile feministen elkarteek zaintza-kate globalen inguruan garatutako diskurtso eta praktika politikoak aztertzeko kolektiboen interneteko euskarrietan (Webgunea, *Facebook*) 2020-2025 urteen artean argitaratutako informazioa arakatu da.

Sare sozialak funtsezko iturria izan dira ikerketa honetan; izan ere, funtsezko plataforma gisa funtzionatzen dute, eta, plataforma hauen bitartez, kolektiboek beren diskurtsoak abiarazi eta zabaltzen dituzte, beren eskaerak ikusarazten dituzte eta beren ekintza politikoak ezagutarazten dituzte. Argitalpenen, kartel digitalen, deialdien eta kanpainen bidez, sare sozialek aukera ematen dute beren ahotsa handitzeko, komunitatea sortzeko, praktika kolektiboak dokumentatzeko eta narratiba hegemonikoak eztabaidatzeko, beren esperientzietatik eta posizionamenduetatik abiatuta.

Elkarteen web guneetako eta *Facebook*-eko argitalpenak aztertzea erabaki da, kolektibo hauek oso aktiboak baitira sare sozial honetan, eta beren mezuak, mobilizazioak eta kanpainak komunikatzeko plataforma nagusi gisa erabiltzen dituztelako. Edukia, gainera, beste sare sozial batzuetan errepikatzen edo partekatzen bada ere, sare sozial honetan duten etengabeko presentzia horrek diskurtso eta ekintza politikoen bilakaera denboran zehar jarraitzeko aukera ematen du.

Azterketa epeari dagokionez, kolektibo hauek 2020 eta 2025 urteen artean egindako argitalpenak arakatu eta aztertu dira. Denbora-tarte hori ez da ausazkoa; aitzitik, zaintza-lanaren inguruko borroka feministen testuinguruan, funtsezkotzat jotzen diren mugarri batzuei

erantzuten die. Azterketa EAEko emakume migratzaile feministen kolektiboentzat bereziki esanguratsua den ziklo politiko eta sozial batean kokatu nahi izan da.

2019ko martxoaren 8ko greba feministaren ondoren, Euskal Herrian emakume migratzaileen kolektiboek bultzatutako ekintzak, kanpainak eta aldarrikapenak areagotu egin ziren. Greba hau, mugarri historikotzat jotzen da (Ulazia, 2023), izan zuen parte hartze masiboagatik eta zaintza lanaren garrantzia eta lan hau eusten dutenen (emakume migratzaileak gehienbat) bizi nahiz lan-baldintzak eztabaida politiko eta sozialaren erdigunean jarri zituelako.

2019tik aurrera, etxeko eta zaintzako langileen kolektiboen aldarrikapenak eta ekintza kolektiboko errepertorioak areagotu egiten dira espazio publikoan. Joera hori, neurri batean, 2023ko azaroaren 30eko greba feministarekin amaitzen da, hori ere historikotzat jotzen baita, bereziki zaintza lanen gizarte-antolamenduan zentratzeagatik eta langileen kolektiboek deialdian eta garapenean hartu zuten protagonismoagatik.

Bai, 2019ko eta baita 2023ko greba feministak une historiko esanguratsuak dira prozesu honetan. Lehenengoa hautatutako denbora-esparrutik kanpo geratzen bada ere, ondorioak hurrengo urteetara zabaltzen dira argi eta garbi, eta inflexio-puntu bat markatzen du zaintza-lanaren zentraltasunean, salaketa politikorako ardatz gisa. 2023ko greba orokor feministak, bestalde, mugimenduaren irismena eta aniztasuna zabaltzeaz gain, zaintza-gatazkaren politizazioa eta emakume migratzaileen kolektiboen lidergoa sendotu zituen. Eta horietako askok modu aktiboan parte hartu zuten antolaketa-guneetan eta dokumentu politikoak egiten.

Ziklo hau, gainera, beste gertaera erabakigarri batek zeharkatzen du: COVID-19aren pandemiak. 2020an eztanda egin zuenak eta zaintza-sistemari eusten dioten egiturazko desberdintasunak modu gordinean agerian utzi zituena. Horregatik guztiagatik, 2020-2025 aldia hautatu da, esanguratsutzat jotzen baita lan honen helburuei erantzuteko.

Lehenago ere esan bezala, informazioa biltzeko, kolektibo bakoitzaren interneteko euskarriak arakatu dira, diskurtso politikoaren aldarrikapenak eta ekintza kolektiboko errepertorioak identifikatzeko. Webgune ofizialean eta *Facebook* sare sozialean zabaldutako argitalpenak. Azterketarako erabilitako materialak hauek izan dira:

- Ikus-entzunezkoak: bideoak, dokumentalak, kanpainak.
- Dokumentuak: manifestuak, aldarrikapen-testuak, kartelak eta txostenak.
- Deialdiak eta kanpainak, etab.

Kolektibo bakoitzaren inguruan jasotako eta aztertutako interneteko euskarriak azaltzen duen laburpen-taula bat aurkezten da jarraian. Kolektibo bakoitza, azterketa-epea eta kontsultatutako iturriak, argi eta ordenatuta azaltzen dituena:

Taula 1: Aztertutako interneteko euskarriak

| **KOLEKTIBOAREN IZENA** | **AZTERTUTAKO EPEA** | **AZTERTUTAKO INTERNETEKO EUSKARRIAK** | |
|---|---|---|---|
| | | **WEBGUNEA** | ***FACEBOOK*** |
| ATH ELE - Bizkaia | 2020 - 2025 | Webguneko esteka: https://ath-ele.com/eu/ | Facebookeko erabiltzailearen izena: @ATHBizkaia |
| BIDEZ BIDE - Gipuzkoa | | Webguneko esteka: https://bidezbide.org/ | Facebookeko erabiltzailearen izena: @bidez.bide |
| AEZLE – ATHCA - Araba | | Ez dauka Webgunerik | Facebookeko erabiltzailearen izena: @ATHCAALAVA |

Iturria: Elaborazio propioa

Interneteko euskarrien analisi artesanala egin da, eta banan-banan berrikusi dira urte bakoitzari dagozkion argitalpenak eta sarrerak. Sarrera bakoitzerako, mezu nagusia jaso eta sistematizatu da. Honek diskurtso patroien aldarrikapen amankomunak jasotzea eta analisia egituratzea ahalbidetu du.

Informazio bilketa eta analisia hiru ataletan egituratu da:

1. ATALA: Lehenik, kolektibo bakoitzaren jarduera eta ekoizpen diskurtsiboaren azterketa egiteko, hiru taula osatu dira –bakoitza kolektibo bati dagokiona–, non bildu diren azken bost urteotan sarean argitaratutako sarrera eta material nagusiak.

Taula hauetan jasotako datuek honako elementuak biltzen dituzte: argitalpen urtea, euskarri mota (webgunea edo *Facebook*), materialaren izena edo mezua eta ekintza kolektiboaren adierazpen mota. Taula horien bidez, kolektibo bakoitzaren ekintza politikoak eta diskurtso politikoa egituratzen duten ideia nagusiak identifikatu eta antolatu dira.

Ekintza kolektiboek mugimendu sozial edota talde politikoen diskurtso politikoa barne-hartzen dituen aldarrikapenak eta ideiak zabaltzeko balio dute. Lan honetan analitikoki bereizi dira, emakume migratuen elkarteen diskurtsoak praktika zehatzetan nola gauzatzen diren ikusteko bai eta ekintzek diskurtso horiek nola indartzen, birformulatzen edo anplifikatzen dituzten ere.

*Diskurtsotzat* ulertu da jarrera politikoak, aldarrikapenak, salaketak edo hausnarketak adierazten dituzten ideiak. Ideia hauek, besteak beste, argitara emandako manifestuetan, txostenetan edo komunikatuetan aurki daitezke. Bestalde, *ekintza kolektiboko errepertoriotzat* hartu da elkarteek mezu edo idei horiek gizarteari zabaltzeko, edo eta auto-antolaketa politikorako gauzatu diren praktika kolektibo oro; hala nola manifestazioak, kanpainak, aholkularitzak, kontzentrazioak, prentsaurrekoak edo esku-hartze publikorako beste modu batzuk. Bereizketa horri esker, kolektiboek maila sinbolikoan zein praktikoan erabilitako estrategiak argiago aztertu ahal izan dira.

2. ATALA: Taula bakoitzaren ondoren, azterketa deskriptibo bat garatu da, bi dimentsiotan banatuta:

1. *Dimentsio diskurtsiboa* edo Diskurtso politikoa: Kolektibo bakoitzaren mezuak, aldarrikapenak eta proposamenak deskribatu dira, zaintza-kate globalen fenomenoari arreta berezia eskeiniz. Era berean, arreta berezia jarri zaie diskurtsoen arteko elementu komunei, berrikuntza diskurtsiboei eta zaintza-lanaren zentralitateari.

Lan honek Diskurtsoaren Analisi Kritikoa (DAK)en teknika aplikatzen ez badu ere, EAEko emakume migratzaile feministen kolektiboek sortutako diskurtsoak aztertzeko tresna metodologiko honek azpimarratzen duena berea egiten du, hau da, DAKren ikuspegitik, hizkuntza ez da komunikazio-tresna hutsa, botere-harremanak sortzen, erreproduzitzen eta horiei aurre egiten dien espazioa baizik (Fairclough, 1992; van Dijk, 2009; hemen aipatua: Urra et.al, 2013). DAKaren abiapuntua da diskurtsoek ez dutela soilik mundu soziala deskribatzen,

baizik eta aktiboki eratzen dutela, eta hizkuntza funtsezko eremua dela borroka ideologikorako (Wodak & Meyer, 2009; hemen aipatua: Urra et.al, 2013).

Begirada horri esker identifika daiteke kolektiboek nola eraikitzen dituzten kontra-diskurtsoak narratiba instituzional edo mediatikoen aurrean, narratiba horiek beren lana eta existentzia ikusezin bihurtzeko edo prekarizatzeko joera baitute. Era berean, DAK-a metodologia feminista dekolonialarekin egituratzen da, baliabide sinboliko eta linguistikoetarako sarbidean dauden desberdintasunak ikusarazteko aukera ematen baitu, eta onartzen du ahots guztiek ez dutela botere bera entzunak edo legitimatuak izateko. Manifestuak, ikus-entzunezko kanpainak eta beste material batzuk aztertuz, haien eskaeren edukia ez ezik, haien enuntziazio-moduak, beren burua kokatzen duten subjektuak eta eztabaidatzen dituzten esparru ideologikoak ere ulertu nahi dira.

2. *Dimentsio praktikoa* edo Ekintza kolektiboaren errepertorioak: Kolektiboek helburu politikoak lortzeko erabilitako estrategiak identifikatu dira, eta zaintza-kate globalekiko kritika nola txertatzen duten aztertu da. Estrategia horiek kolektiboen protesta, antolaketa eta komunikazio modu desberdinak barne hartzen dituzte.Ekintza kolektiboko errepertorioen analisiaren erabilera, beste ikerketa batzuetan egin den bezala (Tilly, 2002; Traugott, 2002; Oyer Pizarro, 2021), funtsezkoa da mugimendu sozialen mobilizazio-estrategiak eta erresistentzia-praktikak aztertzeko.

Errepertorioetan agertzen diren ekintza horiek mobilizazio-estrategia tradizionalak (manifestazioak edo kanpainak) eta sormen- eta komunikazio-formatuak (antzerkia, podcastak edo bideoak) islatzen dituzte, eta kolektiboek erabiltzen dituzten ekintza-moduen aniztasuna eta aberastasuna agerian jartzea ahalbidetzen dute. Hona hemen erabilitako adibide batzuk:

- Komunikatuak
- Kanpainak
- Manifestazioak / Kontzentrazioak
- Salaketak
- Formakuntza / Kontzientziazio tailerrak
- Aholkularitza
- Asanbladak
- Kartelak
- Txostenak

- Artikuluak prentsan
- Bideoak
- Podcast-ak
- Antzerkia

Analisiaren bigarren atalean, jasotako informazioa homogeneizatu da, hau da, hiru kolektiboen diskurtso politiko eta ekintza kolektiboen elementu amankomun eta bereizgarriak modu bateratuan aztertu dira. Interpretazio horretan aditu/arituaren elkarrizketatik jasotako pasarte esanguratsuek aberastasun berezia eskaintzen dute, bere esperientzia pertsonalak eta gorputzez bizitako bizipenak ikuspegi sakonago bat ematen baitute.

3. ATALA: Azkenik, hirugarren atalean, kolektibo hauek zein elkarrizketatutako aditu/aritua beren diskurtso politikoan nahiz ekintza kolektiboko errepertorioetan zaintza-kate globalen fenomenoa nola artikulatzen duten, aztertu da.

### 2.4.3 Adituari elkarrizketa erdi-egituratua

Elkarrizketa erdi-egituratua teknika kualitatibo bat da, pertsona aditu baten pertzepzioei eta esperientziei buruzko informazio sakon eta zehatza lortzeko aukera ematen duena. Eta era berean, elkarrizketan zehar sortzen ari diren gaiak aztertzeko malgutasuna mantentzen duena (Alonso, 1999; Tonon de Toscano, 2008). Teknika honek aurretiazko gida bat eta galdera irekiak konbinatzen ditu (1go eranskina ikusi).

Lan honetan, elkarrizketa erdi-egituratu bat egin zaio herri hezitzaile den erreferentziazko emakume aditu/aritu bati. Helburua, hautatutako kolektiboek, zaintza-kate globalen testuinguruan garatutako diskurtso politikoen eta ekintza kolektiboko errepertorioen ulermenean sakontzea izan da. Eta ikertzaile gisa, errealitate honetara gerturatzeko, jakinduria aberasteko modu bat ere. Elkarrizketa erdi-egituratu hau lehen mailako iturri baliotsua izan da, eta aukera eman du analisi dokumentala eta bibliografikoa osatu eta aberasteko.

Aditu/ arituak iturri dokumentalen eta bibliografikoen bidez lortutako informazioa aberasten eta osatzen duten ikuspegiak eta datuak ahalbidetu ditu. Tresna metodologiko honek lekukotasunak eta hausnarketak lehen pertsonan lortzeko balio izan duelarik, ikertutako dinamikak eta problematikak hobeto ulertzeko beharrezkoa den bizipen- eta testuinguru-dimentsioa eman dutenak.

## 3. MARKO TEORIKOA

Hurrengo lerroetan garatu den marko teorikoan zaintza-kate globalen testuinguruan, EAEko emakume migratzaile feministen kolektiboek garatutako diskurtso eta ekintza politikoak aztertzeko, funtsezkoak jotzen ditudan ekarpenak aurkeztu eta landuko dira.

Lau atal nagusitan antolatu da marko teorikoa. Zaintza-sistema eta zaintza-kate globalak kontzeptu edo/eta fenomenoa, pentsamendu ekonomiko heterodoxoen artean kokatzen den ekonomia feministaren ekarpen nagusien artean dago. Hau dela eta, lehenik eta behin disziplina honek izan dituen aurrekariak, akuilatu dituen eztabaidak eta sistema ekonomiko kapitalista heteropatriarkalari egiten dizkion kritika nagusiak aurkeztuko dira. Bertan, ere zaintza-lanaren eta zaintza-kate globalen kontzeptuen definizioa eta fenomenoen azterketa gauzatzen da, hala nola, egitura horiek migrazioen bidez nola eratzen eta eusten diren azaltzen du.

Bigarren atalean, EAEko testuinguruan "lurreratze" prozesu bat planteatzen da, emakume migratzaile feministen kolektiboek maila lokalean izandako garapena eta ezaugarri nagusiak azaltzeko.

Hirugarren atalean, jorratu nahi den gaiarekin lotura estua duten teoria feminista dekolonialaren funtsezko ekarkinak landuko dira. Azkenik, ekintza kolektiboko errepertorioaren nozioa txertatzen da, eraldaketak eta erresistentziak sortzeko duten gaitasuna azpimarratuz.

### 3.1. EKONOMIA FEMINISTAREN IKUSPEGITIK: ZAINTZA ETA MIGRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK

#### 3.1.1 Ekonomia feministaren oinarriak, kritikak eta ekarpen nagusiak

Ekonomia feminista pentsamendu ekonomiko heterodoxoen artean kokatzen da: ez da teoria bakarra, ezta itxia ere, baizik eta ardatz analitiko komunak partekatzen dituzten ikuspegien multzoa (Pérez Orozco, 2014). Gutxienez hiru gakoen inguruan zabaldu nahi du hausnarketa: ekonomia zer den edo zer ez den zehazten duten limiteak eta hauek zalantzan jartzearen beharra, generoaren zentraltasuna harreman ekonomikoen azterketa-kategoria gisa, eta desparekotasunen aurrean ekintza eta ezagutza eraldatzailea sortzearen beharra (Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019). Dimentsio akademikoaz gain, ekonomia feministaren garapena ezin da ulertu mugimendu feministaren borroka historikoetatik at. Hain zuzen ere, hainbat esperientzia kolektibok — batez ere emakumeen, migratuen eta ekonomia sozial eraldatzailearen esparruan — proposamen alternatiboak sortu dituzte ekonomia tradizionalaren

logikak gainditzeko eta bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzeko (Carrasco, 2014; Dufour eta Gutiérrez Aguilar, 2017).

Hurrengo lerroetan, lehenik eta behin pentsamendu korronte honen aurrekariak azalduko dira. Aurrerago, pentsamendu ekonomiko heterodoxo honek, paradigma neoklasiko eta sistema ekonomiko kapitalista heteropatriarkalari planteatzen dizkion kritikak aurkezten dira. Honen aurrean planteatzen dituen ekarpen nahiz funtsezko ardatzak ere deskribatu dira.

#### 3.1.1.1 Ekonomia feminista: aurrekariak

Ekonomia feminista termino eta disziplina gisa 1990eko hamarkadan sortu zen formalki, baina emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen azterketa ekonomikoa askoz lehenago hasi zen eta hainbat forma hartu zituen. Pentsamendu ekonomikoaren historiako espezialistek egindako azterlan feministek erakusten dutenez, XVII. eta XVIII. mendeetan nabarmena zen emakumeek ekonomiaren arloan zuten egoeraren inguruko kezka (Pujol, 1992; Gardiner, 1997; Folbre, 2011; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019). Hala ere, XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran, lehenengo olatu feministan, jabetza, lana eta herentzia bezalako gaiek protagonismoa hartu zuten. Testuinguru honetan, Jane Marcet, Harriet Taylor eta Millicent Fawcett, Britainia Handiko eskola klasikoari lotuak; Charlotte Perkins Gilman, lanaren ekonomian oinarritua; Mary Paley Marshall eta Clara E. Collet pentsamendu neoklasikotik; eta Beatrice Webb, Margaret G. Reid, Anna Wheeler eta Rosa Luxemburg, gizarte-ekonomiatik eta pentsamendu sozialistatik ekarpenak egin zituzten intelektualak, emakumeak esparru ekonomiko nagusietan ikusezin bihurtzeari buruzko ikuspegi kritikoak garatzen hasi ziren (Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Marxismo ortodoxotik, bereziki XIX. mendearen amaieratik eta XX. mendean zehar, emakumeen auzia hasieratik jo zen garrantzitsutzat, baina beti beste lehentasun analitiko batzuen mende. Bestalde, ekonomia neoklasikoak modu sistematikoagoan ekin zion emakumeek lan-merkatuan duten parte-hartzeari eta etxeko lanen banaketari 1950eko hamarkadatik aurrera, giza kapitalaren teoriaren eta "familiaren ekonomia berriaren" garapenaren barruan (Benería, 2018).

Hamarkada batzuk geroago, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan bigarren olatu feministaren alorrean, teorizazio feministan aurrerapen erabakigarriak lortu ziren, "pertsonala politikoa da" lelopean. Ikuspegi horrek eragin nabarmena izan zuen gizarte-zientzia guztietan. Era berean, hamarkada horietan funtsezko krisia gertatu zen zientzia modernoaren barruan,

ikuspegi historiko eta sozialen garrantzi epistemologikoaren onarpenaren ondorioz (Hodgson, 2007). Eraldaketa horrek eragin berezia izan zuen soziologia ekonomikoan eta ekonomiako beste eskola heterodoxo batzuetan (Nelson, 2010; Dequech, 2008; Bögenhold, 2010; hemen aipatuak: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Bi korronte teoriko horiek — bai feminismoan, bai ekonomian — eragin argia izan zuten ekonomia feministaren abiatzean, pentsamendu autonomoko eskola gisa. Gerora lan metodologiko, kontzeptual eta enpiriko garrantzitsua garatu zuena. "Esnatze" horretan, ekonomia neoklasikoaren kritika zabaltzeko beharra ere funtsezko motorra izan zen.

Gainera, lan-ekonomiari kritika zorrotza egin zitzaion, batez ere, "balio konparagarriari" eta "soldata-ekitateari" buruzko funtsezko eztabaidetan. Baita hipotesi neoklasiko nagusietan dauden aurreiritzi androzentrikoak zalantzan jartzean ere (Mangum, 1988; Ferber eta Nelson, 1993; Nelson, 1996; hemen aipatuak: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

1980ko eta 1990eko hamarkadetan, ekonomia feminista diziplina formal gisa sendotu zen. Emakumeen lanaren, kontsumoaren eta ekoizpenaren inguruko ikuspegi berriak proposatu zituzten.

Batetik, 1992an *International Association for Feminist Economics (IAFFE)* sortu izana, eta bestetik, funtsezko ekarpenak argitaratu izana, hala nola *Conceptualizing the Labor Force: The Underestimation of Women 's Economic Activities* (Benería, 1981), *If Women Counted* (Waring, 1990), *Beyond Economic Man* (Ferber eta Nelson, 1993), eta 1995ean *Feminist Economics* aldizkariaren lehen alea argitaratu izana. Horiek guztiak funtsezko mugarriak izan ziren antolatzeko, bai eta ikuspegi feminista akademikoki artikulatzeko eta sareak sortzeko (Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Azken hamarkadetan, ekonomia feministaren barnean ikerketa-ildoei dagokienez aniztasuna areagotu egin da, eta hainbat diziplina eta ikuspegi teorikoren arteko elkarrizketa sustatu da. Besteak beste, garapenaren ekonomia feminista, ekonomia ekosoziala, lanaren ekonomia eta zaintzaren inguruko analisiak azpimarratu daitezke. Horien artean, bizitzaren jasangarritasunaren paradigma (Cristina Carrasco, 2001) nabarmendu da, zaintza lanak erdigunean jartzen dituen eredu ekonomiko alternatibo baten aldeko proposamen gisa.

Hala ere, garapen esanguratsu horiek gorabehera, ekonomia feminista oraindik ez da ekonomia konbentzionalaren erdigunean kokatu. Diziplina nagusiak jarraitzen du neoklasizismoaren parametroetan oinarritzen, eta emakumeen lana, zaintza edo desberdintasun

estrukturalen azterketa askotan marjinaltzat jotzen dira oraindik ere (Cronin, 2010; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019). Hori horrela izanik ere, ekonomia feministak ekarpen teoriko eta politiko garrantzitsuak egin ditu, bai ikuspegi kritiko gisa, bai bizitza sostengatzeko ekonomia bat irudikatzeko eta eraikitzeko oinarri gisa.

Kritika horiek gai eta metodo berrien kopuru gero eta handiagoa definitzen ere lagundu dute. Ekonomia feminista iturri eta erreferentzia ez anglosaxoniarretara zabaldu dute, eta eremuaren irismen geografikoa eta historikoa zabaldu dute.

Hedapen horren ondorioz, askotariko ikuspegiak sortu dira, eskola ekonomikoen (marxista, erradikala, postkeynesiarra, instituzionalista eta ekologikoa) eta ikuspegi feministen (liberala, erradikala, marxista, ekofeminista eta dekoloniala) nahasketa heterogeneotik eratorriak. Horrela, erreferentzia-esparru zabal eta inklusibo bat eratu da, onargarria ez ezik, oso desiragarria ere badena, eztabaidei aberastasuna eta aldakortasuna ematen baitie.

Barne-aniztasuna gorabehera, badira konbergentzia metodologiko bat egituratzen duten elementu komunak (Power, 2004, 2013; Benería, Berik eta Floro, 2016; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019), eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Bizitzari eta gizarte-hornidurari eusten dieten prozesuen ulermen integrala.
- Generoaren zentraltasuna kategoria analitiko gisa.
- Etxeko lanak eta ordaindu gabeko zaintzak balioestea.
- Giza ongizatea arrakasta ekonomikoaren neurri gisa erabiltzea.
- Azterketa intersekzionala sartzea.
- Analisi ekonomikoan iritzi etikoak sartzeko beharra.

Azken batean, ekonomia feministak ekonomiaren funtzionamendu globalari eta haren egiturazko desberdintasunei kritika egiteaz gain, ekonomiaren eraldaketara bideratutako praktika politikoa ere bada. Justizia- eta ekitate-agertokiak eraiki nahi ditu, pertsona guztiek bizitza duina izan dezaten.

#### 3.1.1.2 Ekonomia Feministak paradigma neoklasiko eta sistema ekonomiko kapitalista hetropatriarkalari egindako kritika.nagusiak

Paradigma ekonomiko tradizionalak ikusezin bihurtzen ditu etxeko eta zaintza-lana, batez ere emakumeek egindako ordaindu gabeko lana. Eremu neoklasikoan, lan hori ez da "jarduera ekonomikoen" zatitzat hartzen, eta horrek funtsezko errealitate bat ezkutatzen du. Gizartearen bizitza eta funtzionamendua zeregin horien mende baitaude, baina haren balioa

sistematikoki minimizatzen da (Waring, 1990; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019). Lan hori ekonomiaren zati gisa aitortzen ez denez, haren ikuspegi patriarkala betikotzen da, erreprodukzio sozialerako funtsezkoak diren jarduera horiei balioa kentzen diena.

Dimentsio epistemologikoan, ekonomia feministak paradigma neoklasikoaren oinarriak zalantzan jartzen ditu: Kritika aipagarrienen artean, *Homo economicus* ereduari egiten zaion kritika gailentzen da, zeinak gizabanakoa bere interesen arabera jokatzen duen izaki arrazional eta autonomo gisa irudikatzen duen - subjektu arrazional, indibidualista eta autosufizientea . Eredu horrek alde batera uzten du, giza harremanak ezaugarritzen dituzten egiturazko interdependentzia eta zaintza-beharrak (Marçal, 2016; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019), bereziki bizitzako etapa ezberdinetan, hala nola haurtzaroan, edota zahartzaroan (England 1993, Nelson 1993, 1995). Ekonomia feministak, aldiz, azpimarratzen du pertsona guztiak garela zaintza-sareen mendekoak gure bizitzan zehar, eta hori funtsezko alderditzat hartu behar dela analisi ekonomikoan (Folbre eta Hartmann 1988; Carrasco 1991; England 1993; Nelson 1995; Hopkins 1995; Orozco, 2014). Kritikoki, ikuspegi honek boterean dagoen subjektuari - zuria, gizonezkoa, mendebaldekoa... - ematen zaion lehentasuna agerian uzten eta gainerako subjektuak "besteak" bihurtzen dituela salatzen du. Horrek emakumeen eta beste kolektibo baztertuen esperientziak ekonomiaren azterketatik kanpo uzten ditu eta, horren bidez, ikuspegi partzial eta androzentrikoa hedatzen du (Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Ekonomiaren pentsamendu ortodoxoak duen "objektibotasun" eta "neutralitate" diskurtsoarekiko egiten duen kritika ere funtsezkoa da, hots, zalantzan jartzen du zientzia ekonomikoa "neutrala" eta objektiboa izan daitekeenaren ideia. Ekonomia diziplina zientifiko objektibo gisa aurkezten bada ere, ekonomia feministak erakusten du balio patriarkaletan, klasistetan eta eurozentrikoetan oinarrituta dagoela. Beste hitz batzuetan, ekonomia feministak ekonomia eredu nagusiaren zurruntasun axiomatikoa eta bere aparatu zientifikoaren neutraltasun faltsua salatzen ditu, jakintza-ekoizpen oro balio-judizioen eta gizarte-testuinguruen bidez gauzatzen dela adieraziz (Peterson, 2005; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Powerrek (2004) dioen bezala, azterketa ekonomikoa ez da neutrala; aitzitik, hierarkiak eta egiturazko desberdintasunak errepikatzen ditu, eta, horiei aurre egin beharrean, naturalizatu egiten dira. Beraz, ekonomia feministak ez du onartzen ikerketa ekonomikoa balioetatik aske egiten denik; aitzitik, jakintza beti dago testuinguru sozial eta politiko batean kokatuta. Horrek esan nahi du ekonomia feministak ez duela soilik paradigma analitiko bat eskaintzen, baizik eta posizionamendu politiko eta etiko bat ere badela.

Kritika feministaren funtsezko beste alderdi bat produktibismoa da, ekonomiaren korronte heterodoxo askotan oraindik ere badirauena. Paradigma neoklasikoak produkzio eta merkatuan jartzen du arreta, eta albo batera uzten ditu zaintza-lanak eta ugalketa soziala, bizitza sostengatzeko funtsezkoak direnak. Lan horiek gehienetan emakumeek egiten dituzte, ordaindu gabe, eta sistema ekonomiko osoaren funtzionamenduaren oinarria dira. Ekonomia feministak, aldiz, azterlanaren xedea zabaltzen du ekonomia bizitzaren zerbitzura jartzeko asmoz, erreprodukzio soziala ekonomiaren funtsezko zatitzat hartzen duen ikuspegi integral bat proposatuz (Picchio, 2009). Ekonomia feministak aldarrikatzen du lan horien aitorpen soziala eta politikoa, baita kontabilitate sistemetan sartzea ere (Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Horren guztiaren atzean dagoen oinarrizko tentsioetako bat kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka da, aurrerago azalduko dena. Sistema kapitalista heteropatriarkalak bizitzaren jasangarritasuna bigarren maila batean kokatzen du, eta etengabeko metaketa eta hazkunde ekonomikoa lehenesten du, giza eta ingurumen-baliabideak mugarik gabe ustiatuz.

Ekonomia feministak salatzen duenez, kapitalismoak zaintza-lanen bidez sortzen diren baldintzak –bizitza bera posible egiten dutenak– esplotatzen eta ikusezin bihurtzen ditu, eta horrek bizitzaren baldintzen prekarizazioa dakar. Perez Orozcoren (2014) hitzetan, krisia ez da soilik zaintzaren ingurukoa, bizitza bera da krisian dagoena. Bizitza sostengatzen duten eguneroko lan horiek merkatuaren logikatik kanpo kokatzen direnez, sistematikoki baztertuak, feminizatuak eta arrazializatuak izaten dira, eta horrek klase, arraza eta genero arteko zapalkuntza-egiturak betikotzen ditu.

Ekonomia feministak, hortaz, bizitzaren jasangarritasuna ekonomia antolatzeko ardatz politiko eta etiko gisa proposatzen du, kapitalaren nagusitasuna kolokan jarriz.

#### 3.1.1.3 Ekonomia feministaren ekarpen nagusiak

Aurreko atalean azaldu den bezala, ekonomia feminista ekonomia neoklasikoaren oinarri epistemikoak eta metodologikoak zalantzan jartzen dituen korronte teorikoa nahiz praktika politikoa da, eta azterketa ekonomikoaren objektuaren birdefinizio bat proposatzen du, bizitzaren zentraltasunetik abiatuta. Gorputz homogeneo bat osatzetik urrun, "posizionamendu-sorta" bat da (Carrasco, 2014:25), eta horren topagunea ekonomia "hornidura sozial" gisa ulertzea da (Nelson, 1993; 1996; Jennings, 1993; Bakker eta Gill, 2003; Power, 2004; 2013 ; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Haren ekarpen nagusietako bat izan da agerian uztea ekonomia nagusiaren joera androzentrikoa, eta salatzea nola ekonomia horrek ikusezin bihurtzen dituen merkatuak bitartekatzen ez dituen erreprodukzio sozialerako funtsezko jarduerak, hala nola etxeko eta zaintzako lanak (Picchio, 2003; Galvez, 2016). *Homo economicus* delakoaren paradigmaren aurrean — gizabanako autonomoa, arrazionala, lehiakorra eta buruaskia —, ekonomia feministak subjektu ekonomikoaren ikuspegi erlazionala proposatzen du, genero, klase, arraza eta adin egituretan kokatua, eta interdependentzia, gorpuztasuna eta zaintza-beharrak zeharkatua (Marçal, 2016; Folbre, 2011; Nussbaum eta Sen, 1993; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Era berean, ekonomia feministak ekonomiaren definizioa bera zabaldu du, ekoizpen-prozesu monetarizatuak ez ezik, giza beharrak asetzeko aukera ematen duten prozesu guztiak ere barne hartuta. Horrek berekin dakar ordaindu gabeko zaintza-lanari balioa ematea (Humphries eta Rubery, 1995; Nelson, 1996; Picchio, 2003; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019). Horrela, produkzioaren eta ugalketaren arteko ohiko dikotomia gainditzea proposatzen da, baita publikoaren eta pribatuaren arteko hierarkizazioa ere (Carbonell, Galvez eta Rodríguez, 2014).

Kritika metodologiko batetik, ekonomia feministak ekonomia eredu nagusiaren zurruntasun axiomatikoa eta bere aparatu zientifikoaren neutraltasun faltsua salatzen ditu, jakintza-ekoizpen oro balio-judizioen eta gizarte-testuinguruen bidez gauzatzen dela adieraziz (Peterson, 2005). Horren aurrean, justizia sozialarekin eta genero-justiziarekin konprometitutako metodologia kualitatiboak, ikuspegi intersekzionalak eta esparru etiko-politikoak erabiltzea defendatzen du (Benería, Berik eta Floro, 2016; Robeyns, 2003; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Funtsezko beste ekarpen bat "*add women and stir*" (Harding, 1986; Hewitson, 1999) ikuspegiaren salaketa izan da; izan ere, emakumeak aztergaitzat hartzen ditu, ereduaren oinarriak zalantzan jarri gabe. Horren adibide da Beckerren (1981) "familiaren ekonomia berria", lanaren banaketa sexuala justifikatzen duena konparazio-abantailetan oinarritutako ustezko eraginkortasun ekonomikoaren bidez, desberdintasunen egiturazko izaera alde batera utzita (Blau, Ferber eta Winkler, 2001; hemen aipatua: Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Ekonomia feministak politika neoliberalen azterketa kritikoa ere garatu du, baita generoaren arabera bereizita duten eragina ere, austeritatea, pribatizazioa edo arriskuaren indibidualizazioa bezalako neurrietako alborapenak ikusaraziz (Elson, 2002; Young, Bakker eta Elson, 2011; Galvez eta Torres, 2009). Politika horiek, neutroak izan beharrean, sakondu

egin dute pobreziaren feminizazioa eta emakumeen lan-gainkarga (Bassel eta Emejulu, 2017; Pérez Orozco, 2014).

Proposamenen gisa, hainbat neurri bultzatu dira, hala nola generoarekiko sentikorrak diren aurrekontuak, zaintza-sistema publikoak, zerga-erreforma progresiboak, birbanaketa-politikak eta ongizate-sistema inklusiboak (Elson, 2015; Benería, Berik eta Floro, 2016). Era berean, ongizatean oinarritutako ekonomia defendatu da, eta ez hazkunde ekonomikoan, gaitasunen ikuspegiak proposatzen duen bezala (Sen eta Nussbaum, 1993; Robeyns, 2003)(Agenjo-Calderón eta Gálvez, 2019).

Azkenik, ekonomia feministak ekologiari, bizitza intimoaren merkantilizazioari eta zaintza-kate globalei buruzko eztabaidak txertatu ditu. Planetaren muga ekologikoak errespetatzen dituzten eta bizitzaren jasangarritasuna bermatzen duten trantsizio ekofeministak proposatzen ditu (Perkins eta Kuiper, 2005; Bauhardt, 2014). Ildo horretan, kritika bat artikulatzen du zainketa-lanaren finantzazioaren, ugalketaren biomerkaturatzearen eta segmentazio globalaren inguruan (Lafuente, 2017; Bettio, Della Giusta eta Di Tommaso, 2017; Kabeer, 2004).

Azken batean, ekonomia feministak ekonomiaren helburuak birdefinitzen ditu, bizitzaren jasangarritasuna analisiaren erdigunean jartzen du eta sistema ekonomikoaren eraldaketa sustatzen du ikuspegi intersekzionaletik, etikotik eta politikotik (Fraser, 2013; Agenjo-Calderón eta Galvez-Muñoz, 2019).

### 3.1.2 Ekonomia feminista eta zaintza sistema

Aurreko atalean aipatu den bezala, ekonomia feministak, gizarte eraikuntza hau ikuspegi kritiko batetik aztertzen du; sistema ekonomiko tradizionalaren oinarriak zalantzan jartzen ditu eta harreman ekonomikoak genero-ikuspegi kritiko batetik berrezartzea proposatzen du.

Yayo Herreroren arabera (2011), sistema ekonomiko kapitalistak izeberg bat balitz bezala funtzionatzen du, zati ikusgarri bat duelarik alde batetik, ordaindutako enpleguaren zatia, negozioen zatia, hots, barne-produktu gordinean aldaketak eragiten dituen zatiari erreferentzia egiten diona, besteak beste. Eta bestetik, izeberg-aren zati ezkutua, askoz handiagoa dena, ekosistema guztiak, material guztiak, naturaren-zikloen funtzionamendu osoa barne hartzen dituena, horiek gabe giza espezieak, bizirauteko arazoak izan ditzakeen elementuak barne

hartzen dituena, eta mahai gainean jartzen ditu, gizakion nahiz gizarte gisa dugun existentzia, belaunaldien erreprodukzioa eta erreprodukzio soziala ahalbidetzen duten zaintza lanak hain zuzen ere (Herrero, 2011).

Ildo honetan, ekonomia feministak ekonomiaren kontzeptua zabaltzea proposatzen du, gizarte-hornikuntzako prozesu guztiak barne hartzeko, horiek merkatu formalen parte izan ala ez. Helburu gisa, ekonomiaren mugak zabaltzea eta zaintza-lanak ikusgarri egitea ( hauen funtsezko ekarpena aitortuz eta analisi ekonomikorako kontzeptu nagusiak birformulatuz) duen pentsamendu ekonomikoaren korronte eta ekintza politikorako tresna da (Pérez Orozco eta Carrasco, 2014). Hau da, zaintzaren funtsezko izaera azaleratu, kapitalismo heteropatriarkalak ezarritako balio-hierarkiak zalantzan jarri eta ekonomia neoklasikoaren ikuspegi androzentrikoa kritikatu nahi duen eta etengabe berreraikitzen ari den paradigma alternatiboa da Ekonomia Feminista (Picchio, 2005).

Horrela, ekonomia feministak ikuspegi eraldatzaile bat proposatzen du sistema ekonomikoaren analisia egiteko, bizitzaren jasangarritasuna eta ugalketa soziala erdigunean jarriz, eta ez soilik kapitalaren metaketa eta produkzioaren logika. Horrela, sistema ekonomikoaren funtzionamendua eta desberdintasunak ulertzeko, ezinbestekoa da genero-harremanak eta zaintza-lanak kontuan hartzea (Rodríguez Enríquez, 2010; Pérez Orozco, 2014).

Ekonomia ortodoxoaren ikuspegitik, merkatuak eta lan ordaindua dira ekonomiaren erdigune, eta lan ez ordaindua, etxeko lana eta zaintza jarduerak ikusezin bihurtzen dira. Ekonomia feministak, aldiz, salatzen du lan mota horiek oinarrizkoak direla bizitzaren euste sozial eta materialerako, eta, ondorioz, ezinbestekoak direla sistema ekonomiko kapitalistaren berregituraketarako ere (Picchio, 2001).

Horregatik, ikuspegi feministak zaintzaren antolaketa soziala aztertzen du, hau da, nola banatzen diren zaintza-lanak estatua, merkatua, familiak eta komunitatearen artean, eta nola banaketa horrek desberdintasun sozial eta ekonomikoak birsortzen dituen (Rodríguez Enríquez eta Pautassi; Orozco, 2014).

Ikuspegi honetatik abiatuta, hurrengo atalean zaintza lanaren kontzeptua eta zaintza-lanaren funtzio sistemikoa aztertuko dira, lan horiek sistemaren barruan duten garrantzia eta emakumeen bizitzetan duten eragina ulertzeko helburuarekin.

### 3.1.2.1 Zertaz ari gara, zaintza-lanaz ari garenean?

Tradizioz, zaintzari buruzko literatura akademikoa batez ere iparralde globaleko herrietatik garatu da, eta horrek errealitate batzuk agerian utzi ditu, beste batzuk bigarren plano batean utziz. Ideia horri helduta, Parvati Raghuram (2016; Legarreta-Iza et al.-ek aipatua, 2023) giza mugikortasunean aditua den geografoak, kontraesan hau nabarmendu du: zaintzaileak mundu globalizatu batean mugitzen badira ere, zaintzaren definizioa eta ulermena ez dira hain dinamikoak izan, eta ipar globaletik harago garatutako ezagutzak ezkutatu dituzte (Legarreta-Iza et al., 2023).

Esan bezala, teoria feministek zaintza-lanen ikuspegi integrala eta ulergarria eskaini dute azken urteotan. Zaintza kontzeptu polisemikoa da, hau da, esanahi asko ditu eta poliedrikoa da, hots, dimentsio askok osatzen dute. Zaintzaren definizioak askotarikoak dira feminismoetan, fenomenoa jorratzeko erabili diren korronteak bezainbeste.

Beraz, zaintza definitzea ez da lan erraza, definizioa testuinguruaren araberakoa ere badelako. Ulermen zabalaren alde eginez, Berenice Fisher filosofoak eta Joan Tronto politologoak (1990) honela definitu zuten: “Bizi garen munduari eusteko eta iraunarazteko egiten ditugun ekintza guztiak barnebiltzen ditu zaintzak, bertan ahalik eta hoberen bizi ahal izateko helburuarekin” (Legarreta-Iza et al., 2023). Ikuspegi honek adierazten du elkarren mendekoak eta ingurunearen mendekoak garela. Beraz, zaintzek mendekotasun bikoitza dakarte.

Dolors Comas-d 'Argemir (2017) antropologoaren planteamendutik, honela definitzen da zaintza:

> "Zaintzak pertsonen bizitza, osasuna eta ongizatea kudeatzean eta egunerokoan mantentzean datza. Funtsezkoa da bizitzaren existentziarako eta iraunkortasunerako, baita gizarte-ugalketarako ere. Eta, zentzu horretan, ez da ezer marjinala. Gizaki guztiok behar ditugu zaintzak gure bizitzan zehar eta, beraz, zaintzak dimentsio soziala ere badu, gizartearen existentziarako eta jasangarritasunerako ezinbesteko baldintza baita” (Comas-D' Argemir, 2017b, 61. or.).

Comas-d 'Argemirrek ahalbidetutako definizioaren arabera, zaintza beharrezkoa da gizabanako guztiontzat, salbuespenik gabe, eta, gainera, beharrezkoa da bizitza osoan zehar, nahiz eta bizi-aldi batzuetan intentsitate handiagoarekin behar dugun (haurtzaroa eta zahartzaroa). Jarduera hori giza bizitzarako ezinbestekoa denez, feminismoek aldarrikatu dute bizitzaren jasangarritasuna gizartearen eta politika publikoen erdigunean jarri behar dela,

pertsonen kalteberatasuna gizakiaren berezko ezaugarria dela onartu behar dela, eta, beraz, pertsona guztien berezko ezaugarria dela, edozein izanik ere pertsona horien izaera. Gainera, giza harremanak interdependentzian eta ekodependentzian oinarrituta daudenez , pertsona guztien zaintza bermatzea lehen mailako arazo sozial eta politikoa da (Herrero, 2014).

Cristina Carrasco (2001) ekonomialari feministak adierazten du zaintzak bi kontingentzia mota biltzen dituela. Alde batetik, dimentsio objektiboa duten eta eskakizun biologiko eta fisiologikoei (garbitasuna, elikadura...) erantzuten dieten giza beharrak betetzen ditu. Bestalde, zaintzak premia subjektiboak ere badakartza, besteak beste, afektuak, segurtasun psikologikoa eta giza harremanak eta loturak sortzea (Carrasco, 2001; Tello, 2012).

*Precarias a la deriva* (2006) kolektiboaren aburuz berriz, zaintza-lanak pertsonen egoera fisikoa eta emozionala egunero eta modu generazionalean birsortzen duten jarduerak dira, gorputz sexuatuez arduratzera bideratutako praktikak, praktika horiek (des) afektuek zeharkatzen dituztela eta berez harremanak osatzen dituztela aitortuz (Amurrio, Larrinaga, Martínez Herrero, et al., 2023).

Definizio hauei jarraiki, zaintzaren kontzeptuak bere esanahiak zabaldu ditu azken urteotan, eta mendekotasuna duten pertsonen arretatzat ulertzetik, pertsona guztiek beren bizitzaren mantenurako eta iraunkortasunerako behar dituzten beharrak asetzeko ezinbesteko lana izatera igaro da (Division for the Advancement of Women. United Nations, 2008; hemen aipatua: Osakidetza, 2013). Beraz, pertsonei ongizate fisikoa, psikikoa eta emozionala ematera bideratutako jardueren multzoa biltzen du, eta premia horiek aldatu egiten dira bizitzan zehar (Comas, 2014 ; hemen aipatua: Osakidetza, 2013). Zaintza, autore honi jarraiki, eraikuntza sozial bat da, non maitasuna eta betebeharra, afektua eta betebehar morala nahasten diren, eta non familiari esleitzen zaion kideen zaintzaren erantzukizuna .

Zaintzeak zeregin asko egitea eskatzen duela ondorioztа genezake beraz. Rogeroren arabera (2010), hiru motatakoak izan daitezke (Osakidetza, 2013):

- Laguntza materiala edo instrumentala alde batetik. Pertsonak bakarrik egin ezin ditzakeen gauzetan laguntzea, hala nola, txukunketan, janarian edo etxeko garbiketan (IMSERSO, 2005 ; hemen aipatua: Osakidetza, 2013).

- Bigarrenik, laguntza informatiboa edo estrategikoa. Arazoak konpontzen edo kudeaketak egiten laguntzea, hala nola zerbitzu mediko edo sozialekin hitz egitea.

- Azkenik, laguntza emozionala. Laguntzea, entzutea eta emozionalki presente egotea. Hori oso garrantzitsua da, zaintzen duenaren eta zaintza jasotzen duenaren arteko lotura afektibo sendoa egoten baita.

Baina zaintzaren erantzukizuna ez da modu homogeneoan birbanatzen familiako kideen artean. Generoa da elementurik garrantzitsuena zaintzen duten pertsonak definitu behar direnean. Azterlan ugarik agerian uzten dute gizonek familiako ugalketa-lanean duten inplikazio txikia (Barker, 2009) zaintzan dagoen genero-desberdintasunaren zantzu nabarmenetako bat dela, eta zaintzen duten pertsonen gainkarga gehien eragiten duten faktoreetako bat ere badela. Eta ondorioz, osasunean eta bizi-kalitatean eragiten duela (Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa, 2009). Horrela, zaintzaren gizarte-antolamendua genero-rolen ohiko banaketan oinarritzen da. Horren arabera, gizonak arlo publikora eta ordaindutako lanera (lan produktibora) bideratzen dira, eta emakumeak ongizateari eusteaz arduratzen dira nagusiki, hau da, ugalketa-lanaz (etxeko lana, zaintza informalak eta sare sozialak mantentzea) (Artazcoz et al., 2007; Cerri eta Alamillo-Martínez, 2012; Borrell et al., 2014). Gizonak, denbora eta familia-erantzukizunetik libreago daudenez, errazago sartzen dira merkatuan, eta espazio horri balio eta gizarte-aintzatespen bat ematen zaio. Aldiz, emakumeen lana, etxeko eremura mugatuta, ez da hain agerikoa eta balio txikiagokoa da (Artazcoz et al., 2007).

Guzti honek azaltzen du genero-rolen aldaketak, emakumeak espazio publikoan masiboki sartzeak, biztanleriaren zahartze demografikoak, ugalkortasun-tasaren jaitsierak, bizikidetza-ereduen aldaketek (Carrasco, 2013; Comas, 2014; hemen aipatuak: Osakidetza, 2013) eta zaintza-lanen antolaketa-ereduaren aldaketa pentsatzeko gaitasun edo prestutasunik ezak zaintza-lanen krisia deritzona ekarri izana (Orozco, 2007; Carrasco, 2013). Krisi hori zaintza-lanei eta bizitzaren jasangarritasunari buruzko erantzukizunak birbanatzean eta laguntza-lanak berrantolatzean datza (Pérez, 2006). Baina, senitarteko baten zaintzaren zati bat kanpora ateratzen den kasuetan ere, kasu askotan emakumeak dira, migratzaileak, lan horiek egiten dituztenak, eta horrela zaintza-kate globalen parte dira, hau da, kate transnazionalak, zeinetan zaintza-lanak batetik bestera transferitzen diren botere-ardatzetan oinarrituta, besteak beste, generoan, etnian, gizarte-klasean eta jatorrian (Orozco, 2007).

Zaintza- beharrei modu formalean eta informalean erantzun dakieke, eta, horrela, bi zaintza mota bereiz daitezke. Zaintza formala profesionalek egiten dute ordainsari baten truke eta kontratu-harreman batean oinarrituta (IMSERSO, 2010; hemen aipatua: Osakidetza, 2013). Zaintza informalaz hitz egiten da, zaintza hau pertsona batek ematen duenean, familiakoa izan edo ez, ordaindu gabe, boluntarioki eta elkar laguntzeko. Mendekotasunaren Legeak familia-

inguruneko pertsonek artatzen dituztenentzat ezarritako prestazio ekonomikoa gorabehera, laguntza hori zaintza informaltzat eta familiartzat hartzen da oraindik ere (García eta Del Río, 2012). Beraz, zaintzaile profesionalak edo formalak eta zaintzaile ez-profesionalak edo informalak bereizten dira.

Bizitza osoan zehar zaintzak behar ditugu, baina premia hori handiagoa da mendekotasun-egoeretan (Comas, 2014). Mendekotasunaz ari garenean, ez gara ari soilik eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko etengabeko laguntza behar duten pertsonez, abenduaren 14ko 39/2006 Pertsonen Autonomia Pertsonalari eta Mendeko Egoeran dauden Pertsonen Arretari buruzko Legeak adierazten duen bezala. Aldi jakin baterako laguntza behar dutenak ere sartzen ditugu, hala nola haurrak (Osakidetza, 2013).

Hala ere, ez da gauza bera adingabeak zaintzea eta mendekotasun iraunkorra duten pertsonak zaintzea. Adingabeak zaintzea borondatezkoa izan ohi da, planifikatu egiten da eta denbora-muga bat du. Aitzitik, mendekotasun iraunkorra duten pertsonen zaintza luzeagoa, biziagoa eta askotan aukeratu gabea izaten da.

#### 3.1.2.2 Zaintza lanaren krisia: jatorria eta ondorioak

Aurreko atalean azaldu den bezala, zaintza lanaren krisia, krisi sistemiko garaikidearen adierazpen nabarmen eta kezkagarrienetako bat da, eta zalantzan jartzen du egungo eredu sozioekonomikoaren jasangarritasuna. Sandra Ezquerraren (2011) arabera , krisialdi honen ondorioz, biztanle-sektore askok gero eta zailtasun handiagoak dituzte beren burua zaintzeko eta besteak zaintzeko, etxeko arduren banaketa tradizionala ezegonkortu egin delako eta sistema ekonomikoa neoliberalki berregituratu delako. Emakumeek lan-merkatuan duten parte-hartzeak gora egin badu ere, lanaren sexu-banaketak bere horretan dihardu, zaintza-lanak benetan birbanatu gabe eta merkatuek edo gizonek erantzukizunak beren gain hartu gabe .

Autore honi jarraituz, zaintza-krisia ez da soilik zaintza beharren eta baliabideen arteko desoreka; are gehiago, bizitzaren ugalketaren eta kapitalismoaren arteko harreman parasitarioaren ondorio zuzena da. Izan ere, zaintza-lanen krisiak agerian uzten du ekonomiaren antolaketa tradizionalaren bideraezintasuna eta haren oinarri sexistak eta esplotatzaileak.

Ezquerrak (2011) dioenez, emakumeen parte-hartzea lan merkatuan nabarmen handitu bada ere, zaintza-lanen ardura sozialki emakumeekin identifikatzen jarraitzen da. Horrela, emakume askok lan ordainduan diharduten bitartean, zaintza-lanen karga ez da merkatuan, gizonezkoetan edo estatuan modu proportzionalean banatu. Ondorioz, emakumeek "presentzia

bikoitza" edo, María Jesús Izquierdok dioen moduan, "presentzia-absentzia bikoitza" bizi dute, lan ordainduan eta ez-ordaintzean aldi berean dihardutelako, bi esparruetan baldintza prekarioetan .

Krisi honen jatorria hainbat faktorek azaltzen dute: batetik, demografia-aldaketek –biztanleriaren zahartzea eta bizi-itxaropenaren igoera– zaintza-beharren gorakada eragin dute (Carrasco, 2013; Pérez Orozco, 2014; Fantova, 2015); bestetik, emakumeen etxeko zaintza-lanetarako eskuragarritasuna murriztu da, lan merkatuan duten presentzia gero eta handiagoa delako ; eta, azkenik, estatuaren eta merkatuaren aldetik zaintzaren erantzukizunaren urraketa nabarmendu da, austeritate-neurrien eta pribatizazioaren bitartez (Ezquerra, 2011; Fantova, 2015).

Azken hamarkadetan, aldaketa demografiko, sozial, ekonomiko eta politikoek agerian utzi dute orain arteko zaintza-antolaketaren eredua krisian dagoela. Zaintza-beharrak handitu diren arren, ez dira horiek asetzeko baliabideak areagotu; hortaz, egungo zaintza-ereduaren jasangarritasuna kolokan dago. Hiru faktore nagusi identifikatzen dira literaturan oinarrituta –erreprodukzio-iraultza, lanaren banaketa sexualaren aldaketak eta ongizate estatuaren gainbehera–, eta laugarren fenomeno gisa COVID-19aren osasun krisia gehitu ohi da, zeinak zaintza-sistemaren ahulguneak are nabarmenago azaleratu dituen (Legarreta-Iza et al., 2023):

**a) Erreprodukzio-iraultza eta biziraupenaren demokratizazioa:**

MacInnes eta Pérez-Díazek (2009) “erreprodukzio-iraultza” deitu dute gainbehera demografikoaren eta biziraupenaren luzapenaren konbergentzia: jaiotza-tasen jaitsiera, dibortzioen eta guraso bakarreko familien ugaritzea, eta bizi-itxaropenaren luzapena. Julio Pérez-Díazen hitzetan, “jaioberriek beren arbasoek baino bizitza askoz luzeagoa biziko dutelako” populazio piramidearen egitura aldatu da (Pérez-Díaz, 2010; hemen aipatua: Legarreta-Iza et al., 2023).

Testuinguru horretako funtsezko elementuetako bat biztanleriaren zahartze-prozesua da. EAEko datuek joera horiek berresten dituzte: gizonen bizi-itxaropena 69,6 urtetik (1976) 80,7 urtera (2021) igo da, eta emakumeena 76,0tik 86,4 urtera (EUSTAT, 2021; hemen aipatua: Legarreta-Iza et al., 2023). Jaiotza-tasa, berriz, 1.000 biztanleko 39,6tik (1975) 14,7ra jaitsi da 2020an (EUSTAT, 2022; hemen aipatua: Legarreta-Iza et al., 2023). Hori dela eta, populazioa zahartzen ari da pixkanaka, eta horrek zaintza-beharren hazkundea dakar.

Estatuko zahartze-indizerik handienetako bat du Euskadik: 2023an tasa %169,8koa izan zen, hau da, 16 urtetik beherako 100 pertsonako ia 170 lagun 64 urtetik gorakoak dira (EITB, 2024; hemen aipatua: Legarreta-Iza et al., 2023).

Gainera, emakumeek gizonek baino bizi-itxaropen handiagoa dutenez, adinekoen artean emakumeen proportzioa handiagoa da: 65 urtetik gorakoen %57,5 emakumeak dira, eta egoitza-zerbitzuen erabiltzaileen %69,4 emakumeak izan ziren 2019an (EUSTAT, 2021; hemen aipatua: Legarreta-Iza et al., 2023). Horregatik, zaintza politiketan emakumeen behar espezifikoak kontuan hartzea ezinbestekoa da.

Bizi-itxaropena handitzeak eta zahartze azkarrak mendekotasun-egoerak areagotzea dakar, hau da, gero eta pertsona gehiagok behar dute laguntza eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko, batez ere adin aurreratuetan (Eusko Jaurlaritza, 2021).

2013ko datuen arabera, EAEn 115.559 pertsonak (familia-etxebizitzetan bizi den biztanleriaren %5,3) beste pertsona baten laguntza behar zuten jarduera horiek egiteko. Horietatik, emakumeak %66,8 ziren, eta mendeko biztanleriaren feminizazio hau emakumeen bizi-itxaropen handiagoarekin lotuta dago (Pérez Orozco, 2006). Horrez gain, mendekotasuna duten pertsonen artean ehuneko handi bat alargunak dira; egoera hori nagusiki emakumeen artean ematen da (%57,1) (Departamento de Salud del Gobierno Vasco, 2013).

Aldi berean, jaiotza-tasa etengabe jaisten ari da, eta horrek zahartze-prozesua areagotzen du. Adibidez, 2022an jaiotzak %4,4 gutxitu ziren EAEn aurreko urtearekin alderatuta, Euskadi minimo historikoetan kokatuz (Bilboko Udala, 2023).

Bestalde, adinekoen ekarpena ere azpimarratzekoa da. Zahartzaroa ezin da mendekotasunarekin soilik identifikatu, ikuspegi murriztailea baitira. Izan ere, 60 urtetik gorako pertsonek dira EAEn etxeko eta zaintza lanetan denbora gehien ematen dutenak: astean 20 ordu eta 46 minutu, batez beste (Legarreta eta Sagastizabal, 2020). Hori baino gutxiago ematen dute 35–59 urte artekoek (20 ordu eta 25 minutu) eta 35 urtetik beherakoek (11 ordu eta 47 minutu).

#### b) Lanaren banaketa-sexualean aldaketak

Zaintza-krisiaren beste arrazoi nagusietako bat da emakumeen lan-merkaturatzea orokortu dela, baina gizonek ez dutela maila berean hartu parte etxeko eta zaintza-lanetan. Mugimendu feministak eta gizartearen kontzientziazioak emakumeen genero mandatuetan aldaketak ekarri dituzte, eta horrek eragin du gero eta emakume gehiago lan ordainduan eta goi-

mailako postuetan aritzea. Hala ere, zaintza-lanen ardura gehienek emakumeen bizkar jarraitzen dute (Legarreta-Iza et al., 2023).

Euskadiko emakumeen enplegu-tasak gora egin du azken hamarkadetan, eta % 58 ingurukoa da, 2023ko azken datuen arabera. Zifra hori gizonen enplegu-tasaren azpitik badago ere, agerian uzten du emakumeek gero eta parte-hartze handiagoa dutela lan-merkatuan (Ampea, 2024; hemen aipatua: Legarreta-Iza et al., 2023).

Aldi berean, gizonek haur zaintzan pixkanaka gehiago parte hartzen badute ere, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzan gutxi inplikatzen dira. Honek emakumeen "presentzia bikoitza" sortzen du: enplegu ordaindua eta zaintza-lanak uztartzeko zailtasunak. Emakumeek zaintza-lanetarako duten denbora eta energia mugatua da, eta, gainera, lan-merkatuan aritzeak ez du ekarri zaintza-lanen banaketa justurik.

Feminismoak salatu du kontziliazio-politikek ez dutela aldez aurretik zalantzan jarri sexuaren araberako lan-banaketa, eta, askotan, helburu ekonomikoetara mugatu direla, genero-berdintasuna alde batera utzita.

Etxeko lana eta zaintza lanean gizonen eta emakumeen parte hartzea aztertzen duten lanetan, genero-arrakalaren inguruko azterketek bi ikuspegi nagusi eskaintzen dituzte: (i)Genero konbergentziaren teoria: arrakala murrizten ari dela dioena eta (i)Iraultza geldiaren teoria: desberdintasuna mantentzen dela nabarmentzen duena.

Dena den, ikerketa gehienek adierazten dute emakumeek zaintza-lan gutxiago egiten dutelako murriztu dela arrakala, eta ez gizonek gehiago parte hartzen dutelako (Legarreta eta Sagastizabal, 2020). Denboraren erabilerari buruzko datuek erakusten dute emakumeek gizonek baino zaintza eta etxeko lan gehiago egiten dituztela, eta eguneroko lan-zama orokorra ordubete handiagoa dela emakumeentzat. Horrek guztiak emakumeek aisialdirako, gizarte-harremanetarako edo parte-hartze politikorako duten denbora murrizten du (Legarreta-Iza et al., 2023).

Azken ikerketek erakusten dutenez, emakumeek astean gizonek baino zazpi ordu gehiago egiten dute lan, zaintza eta etxeko lanak kontuan hartuta. Horregatik, denbora gutxiago dute aisialdirako, harreman sozialetarako, beren burua zaintzeko edo gizartean parte hartzeko (Legarreta eta Sagastizabal, 2020; Legarreta-Iza et al., 2023).

Azken urteetan genero-arrakala apur bat murriztu bada ere, bereziki etxeko lanetan izan da hori, ez horrenbeste zaintza lanetan. Gainera, lan horien "nukleo gogorra" –eguneroko, astun

eta ez-atseginak diren lanak, hala nola garbiketa edo sukaldatzea– oraindik ere emakumeen gain jarraitzen du.

Arrakala murriztearen arrazoia, askotan, ez da gizonek lan gehiago egitea, baizik eta eginkizun batzuei denbora gutxiago eskaintzen dietela, edo kanpoko emakume langileei ordaintzen zaiela lan horiek egiteko. Izan ere, etxeko langileen kontratazioa ohikoa bihurtu da bikote heterosexual askotan, etxeko lanaren banaketaren inguruan sortzen diren tentsioak saihesteko estrategia gisa (Legarreta eta Sagastizabal, 2020; Legarreta-Iza et al., 2023).

**c) Ongizate-estatuaren gainbehera**

Zaintza-krisiaren hirugarren arrazoi nagusia da ongizate-estatuaren krisia eta politika neoliberalek hartu duten indarra. Feminismoaren arabera, ongizate-estatua genero-ikuspegi jakin baten gainean eraikita dago, eta gizonen lana eta bizimodua hartu izan da herritartasun eredutzat. Hori agerian geratzen da, adibidez, estatuaren tolerantzian emakumeak lan-merkatuan ez egotearen aurrean, eta gizartearen tolerantzian gizonen absentzia pribatuaren (etxeko esparruan) aurrean.

2010etik aurrera, krisi ekonomikoaren testuinguruan, politika ekonomikoek soldaten debaluazioa, lanaren malgutasuna eta defizitaren murrizketa lehenetsi dituzte, eta horrek inbertsio publikoa eta zerbitzu sozialen finantzaketa murriztu du. Horrek zaintza-beharrei erantzuteko zerbitzu publikoen garapena oztopatu eta ongizatearen eguneroko kudeaketa zaildu du. Aldi berean, mesfidantza soziala eta erakundeekiko distantzia areagotu dira (Campillo, 2014; hemen aipatua: Legarreta-Iza et al., 2023).

Horrek guztiak zaintzaren birfamiliarizazioa dakar: estatuak eta merkatuak ardura baztertzen dutenean, familiek – eta batez ere emakumeek – hartzen dute sistema ekonomikoaren koltxoiaren papera, zaintza bere gain hartuz egoera ekonomiko larrienetan (Pérez Orozco, 2010; hemen aipatua: Legarreta-Iza et al., 2023).

Lina Gálvez eta Paula Rodríguez (2011) ekonomialarien arabera, zaintza lanek izaera kontraziklikoa dute, hau da, krisi garaian handiagoa da emakumeen zaintza-lanaren zama, batez ere ordaindu gabekoan (Legarreta-Iza et al., 2023):

1. Emakumeen lan ordaindu gabearen igoera,
2. Gizonen enpleguaren hobekuntza eta emakumeena prekarizatzea,
3. Oparotasun garaietan lortutako berdintasun aurrerapenetan atzerapausoak.

Horrek esan nahi du lan-merkatuan emandako denbora gero eta prekarioagoa eta desarautuagoa dela krisietan, eta, ondorioz, familia-denbora malgutu beharra sortzen dela, kapitalaren eta bizitzaren arteko tentsioak arintzeko.

Laburbilduz, austeritate-neurriek erakusten dute Jane Lewisek (2002; hemen aipatua: Legarreta-Iza et al., 2023) azpimarratu zuen ikuspegia: ikuspegi neoliberalean, gizarte-babes sistema bera arazo gisa aurkezten da. Horrek ekartzen du pentsio-sistema bezalako politikak auzitan jartzea, eta belaunaldien arteko gatazka azpimarratzea, elkarrekikotasunaren printzipioa bera arriskuan jarriz.

### d) COVID-19ak eragindako osasun krisia

Zaintza-krisia azaleratu eta areagotu duen laugarren elementu nagusia COVID-19aren pandemiak sortutako osasun-larrialdia izan da. Dolors Comas-D'Argemir eta Ruth Bofill-Pochenk (2022) gidatutako ikerketan agerian geratu zen pandemiak nola eragin zuen zaintzan diharduten pertsonen bizitzetan: bai familietan, bai etxeko langileen artean, bai zerbitzu publikoetan eta baita zaintza komunitarioan ere (Legarreta-Iza et al., 2023).

2020ko hasieran, birusaren hedapen azkarrak kolpe latza eman zien mendekotasun-egoeran zeuden adinekoentzako zaintza-zerbitzuei. Konfinamendu-neurriak zirela eta, egoitzetan sartu-irtenak eta bisitak debekatu ziren, eta zaintza-zerbitzu ugari eten egin ziren babes-neurri egokiak ezarri arte. Horrela, ia ezinezkoa bihurtu zen zaintza etxetik kanpo eskaintzea, eta ardura hori, berriro ere, etxeko emakumeen bizkar geratu zen.

Pandemiaren kolpe bortitzena adineko pertsonek eta emakume zaintzaileek jasan zuten. Familiako zaintzaileek, etxeko langileek eta egoitzetako langileek baldintza material eta emozional oso gogorretan lan egin behar izan zuten: babes-neurri urriekin, kutsatzeko beldurrarekin eta lan-karga handituarekin. Etxeko langile askok lana galdu zuten zaintzen zuten pertsona hil zelako edo kontratatzaileek birusaren beldurrez kaleratu zituztelako (Legarreta-Iza et al., 2023).

Egoitzetako egoera bereziki larria izan zen: isolamendu zorrotzak eta bisita-debekuek familietan errua, ziurgabetasuna eta sufrimendua eragin zuten. Komunikazioaren zailtasunek, isolamendu luzeek eta arreta faltak egoiliarren osasun fisiko, emozional eta kognitiboan eragin kaltegarria izan zuten. Egoitza eredua bera eta adinekoen giza eskubideak zalantzan jarri ziren.

Pandemiak, beraz, zaintza-sistemaren egiturazko arazoak agerian utzi zituen: zaintza-lanen profesionalizazio eskasa, lan-baldintza prekarioak eta gizarte-errekonozimendu falta. Aldi berean, adinkeriaren presentzia gordin azaldu zen diskurtso publikoetan: adinekoak subjektu pasibo eta ahultzat aurkezteaz gain, belaunaldi gazteei arduragabekeria egozten zitzaien, eta horrek belaunaldien arteko tentsioa areagotu zuen.

Pandemiak, halaber, zahartzaroaren eta bazterketa sozialaren arteko lotura azaleratu zuen: arreta medikorako trabak, isolamendua eta arrakala digitala nagusitu ziren egoiliarren artean. Gizartean nagusitu ziren diskurtsoek balio negatiboak indartu zituzten, hala nola autosufizientzia edo osasun fisikoaren idealizazioa, bizitzaren azken etaparen desbalorizazioari bide emanez.

Azkenik, osasun-krisiak elkar-laguntza sareetan eragin bikoitza izan zuen: alde batetik, konfinamenduak eta beldurrek harreman sare informalak ahuldu zituzten; baina, aldi berean, Euskal Herriko herri eta auzo askotan zainketaren eta elkartasunaren inguruko sare berriak sortu eta indartu ziren, komunitatearen erresilientzia agerian utziz (Comas-D'Argemir eta Bofill-Poch, 2022).

Problematika honi, justizia sozialaren logikatik heldu beharrean, kudeaketa neoliberalak ugalketaren birpribatizazioa sustatu du, erantzukizun horiek etxeei — hau da, emakumeei — egokituz eta zaintzen hornidura merkatuaren eskutan utziz. Dinamika hori, Ezquerraren arabera, jatorrizko metatze-prozesuen eguneratzea da, non emakumeen ugalketa-lana desjabetu eta ikusezin bihurtzen jarraitzen den metaketa kapitalistaren logikaren mesedetan (Ezquerra, 2011).

Amaia Perez Orozcoren arabera (2014), zaintzen kanporatze prozesu hau emakume migratzaileen (horietako asko hego globaletik datozenak ) kontratazio prekarizatuan oinarritzen da, Ipar Globaleko ugalketa-lanei eusten baitiete lan-baldintza prekarizatuetan eta beren eskubideak kontutan hartzen ez diren lanetan (Ezquerra, 2011). Horrela, irtenbidea, krisia jada ahultasun-egoeran daudenen esku uztea izan da, klase-, genero- eta jatorri-desberdintasunetan sakonduz.

Yayo Herrerok (2011) beste dimentsio garrantzitsu bat gehitzen du: zaintza-krisia bizitzaren jasangarritasunaren krisi handiago baten parte da, ingurumen-krisia barne hartzen duena. Herrerok dioenez, biodibertsitatearen eta planetaren mugen ignorantziak ingurumen-krisia sortu du, eta antzera, zaintza-lanen antolaketa aldaketak zaintza-krisia eragin dute, bizitzaren eta gizartearen birprodukzioaren arriskua sortuz. Feminismoak azpimarratu du

politika sozialak eta ongizate estatuaren egiturak historikoki lan sexualaren banaketa sakon batean oinarritu direla, emakumeei zaintza lanaren ardura dohaineko, subordinatu eta askotan ikusezin moduan esleituz (Daly & Lewis, 2000). Horregatik, zaintza lanak gizarte politikan duen garrantzia azpimarratu eta ongizate estatuaren erdigunean jartzea aldarrikatzen da.

Egia da, zaintza lanen krisiak aukera baliotsua eskaintzen duela, alde batetik, zaintzak ekonomiaren motor ikusezin gisa duten garrantzia agerian uzteko, eta, bestetik, bi esferen arteko harremanean ematen den genero-zapalkuntza agerian uzteko. Bai eta, sistemaren oinarri diren premisak eta lehentasunen ordena birpentsatzen laguntzeko ahalmena eskaintzen du.

Errealitatea baina honakoa da, zaintza lanen krisia ez dela konpondu gizonak zaintza-lanean ekitatez inplikatu direlako, edota Estatuaren erantzukizunak indartu direlako eta lan-merkatua feminizatu delako. Baizik eta milaka emakume etorkin iritsi dira gure herrialdeetara etxeko langile gisa, eta horrek ezkutatu egin du bertako emakumeekiko zapalkuntza patriarkala; izan ere, bertakoek mendekotasun-egoeran dauden emakumeen esku utzi dituzte beren erantzukizunak, jatorriagatik, estatus sozioekonomikoagatik eta administrazio-egoeragatik. Lan-banaketa hori etorkinen esplotazioan eta haien diskriminazioan oinarritu da, lan-merkatu segmentatu batean, hain zuzen ere.

Zaintza lanen krisiaren kontraesanak irtenbidea kanpora ateratzearen eta nazioartekotzearen bidez kudeatu dira, eta horrek Estatua, merkatua eta gizonak salbuetsi ditu bizitzaren erreprodukzio-erantzukizunetik, baina, era berean, desberdintasun berriak sortu ditu eta lehendik zeudenak areagotu (Ezquerra, 2011).

Azken batean, zaintzen krisia ez da soilik zeharkako gizarte-disfuntzio bat, baizik eta historikoki bizitza eta ongizatea onura ekonomikoaren mende jarri dituen sistema baten egiturazko isla. Egoera horri buelta emateko, politika publiko birbanatzaileez gain, zaintza-lanaren egitura-balioa aitortu behar da, edozein proiektu ekonomiko eta politiko benetan jasangarriren ardatz nagusi gisa hartuz (Ezquerra, 2011).

### 3.1.3. Zaintza kate globalak eta migrazioa

Globalizazio neoliberalak eragindako zaintzen krisiaren testuinguruan, gero eta nabarmenagoa da zaintza-lanei eusteko ardura emakume migratzaileengain jarri dela. Zaintza-beharrak areagotu egin dira — gizarte-politikak desegitearen eta emakumeak lan-merkatuan masiboki sartzearen ondorioz —, eta, horren ondorioz, zaintza-kate globalak eratu dira, Ipar

Globaleko herrialdeen eta Hego globaleko herrialdeen harreman asimetrikoetan egituratuta. Kate horien bidez, emakume askok beren etxeak eta zaintza-sareak atzean utzita migratzen dute beste lurralde batzuetan zaintza-lanak egiteko, baldintza prekarioetan eta eskubide-urraketekin.

Atal honetan zaintza-kate globalen kontzeptua definitzen da, baita zaintza lanarekin lotutako migrazioen fenomenoa ere. Horretarako, ekarpen teoriko nagusiak ikuspegi feministatik eta dekolonialetik lantzen dira, bi prozesuak desberdintasun globalen esparruan nola erlazionatzen diren ulertzeko.

#### 3.1.3.1 Migrazioen feminizazioa

Migrazioaren feminizazioa fenomeno nagusi bihurtu da gaur egungo migrazio-mugimenduen azterketan, bereziki XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera. Nahiz eta emakumeak beti egon diren presente migrazio-fluxuetan, haien ikusgarritasuna eta protagonismoa txikiagotu egin dira historikoki (Castles eta Miller, 1993).

XX. mendean zehar, Estatu Batuak bezalako herrialdeek ikusi zuten emakumeek gizon migratzaileak gainditzen zituztela zenbait etapatan (Ravensstein, 1885). Hala ere, migrazio-ikerketek gizonezkoen figura lehenesten jarraitu zuten.

80ko hamarkadatik aurrera, emakumeen migrazioaren arrazoiak aztertzeko interesa areagotu zen. Migrazioaren feminizazioak, emakume migratzaileen kopurua handitzeaz gain, pertzepzioa ere aldatzen du, eta migrazio-fluxuetan subjektu aktibo gisa ikusten dira (Oso, 1998).

Emakumeen migrazio-proiektuen aniztasunak desegin egiten du emakume migratzaileen estereotipoa, kolektibo homogeneo gisa. Badira autonomia bila bakarrik migratzen duten emakumeak, etxeko buruaren rola hartzen dutenak eta migrazio-prozesuetan bikotekideei jarraitzen dietenak (Oso, 1998). Heterogeneotasun horrek migrazioaren feminizazioaren konplexutasuna islatzen du, eta bere esperientzien ulermen inklusiboagoa ahalbidetzen du (Nash, 2000).

Azken batean, migrazioaren feminizazioak agerian uzten ditu emakumeak protagonista aktibo eta askotarikoak direla migrazio-fluxu globalen barruan, ikuspegi murriztaileei aurre eginez eta ikuspegi inklusiboagoak sustatuz.

### 3.1.3.2 Migrazioen feminizazioa Euskal Herrian

Euskal Herriko testuinguruan, migrazioaren feminizazioa ezin da ulertu zaintza-lanen egituraketa sozioekonomikoaren testuingurutik at. Ipar globalak, zaintza-lanekin duen urruntze soziala eta zaintza publikoaren arloko hutsuneak emakume migratuak bultzatzen ditu, batez ere, lan merkatuaren bigarren segmentuan kokatzen diren lanpostu prekarioetara. Euskadin, migrazio-fluxuen joerak argi erakusten du emakume latinoamerikarren presentzia handituz joan dela, eta lan esparruan nagusiki zaintzara bideratuta egon dela (Garcia-Azpuru et al., 2023).

Horren atzean, emakume latinoamerikarrek zaintza-beharrei erantzuteko profila betetzen dutenaren ideia dago, eta *ahoz ahoko* mekanismoaren bitartez helarazten zaie Euskadin lan aukerak badaudela sektore horretan. Hortaz, ez dira komunikabide ofizialak erabakigarriak migrazio-estrategietan, baizik eta sare informalen bidez jasotako informazioa, zeinak migrazioaren "jakintza espezializatua" eraikitzen duen, emakume migratzaileen bizi-esperientzietatik abiatuta.

Euskadin, atzerriko migrazioak izaera feminizatu nabarmena hartu du, batez ere 2008ko krisiaz geroztik, eta zaintzen sektorean lan egiten duten emakume latinoamerikarren etorrera nabarmentzen da (Nikaragua, Honduras, Paraguai, Bolivia). Profil hori ez da kasualitatea, halaber euskal lan-merkatuaren egiturazko eskaerei erantzuna ematen die, izan ere, Hego Amerikako emakumeak ugalketa-lanak betetzeko lehenesten dituen merkatua da hau (Garcia-Azpuru et al., 2023). Fenomeno hau klasearen, generoaren eta jatorriaren arabera segmentatutako lan-merkatuan kokatzen da, non emakume migratzaileek posizio prekarioak, informalak eta eskubideen onarpen eskasekoak dituzten, zaintza kanpora ateratzeko eta pribatizatzeko testuinguru batean (Carrasco, 2017; Pérez Orozco, 2007).

Azken batean, migrazioaren feminizazioaren fenomenoa ezin da ulertu zaintza-kate globalak kontuan hartu gabe. Kate horiek erakusten dute egitura ekonomiko globalak emakume migratzaileek egindako zaintza-lanaren mende daudela, eta desberdintasunak daudela jatorrizko herrialdeetan nahiz herrialde hartzaileetan.

Zaintza-lanaren feminizazioa eta arrazakeria kapital-bizitza arteko gatazkaren adibide garbiak dira, non bizitzari eusteko sozialki beharrezkoa den lana, paradoxikoki, gutxien baloratzen dena baita lanari dagokionez. Zaintza-lana berrantolatzea ez da lan-premia hutsa, gizarte-eredu duin eta bidezkoagoa eraikitzeko agindu politikoa baizik (ATH-ELE, 2021).

#### 3.1.3.3 Zaintza kate-globalak

Zaintza lanen krisia fenomeno global gisa finkatu da, eta agerian utzi ditu gizarte garaikideek bizi dituzten egiturazko desberdintasun sakonak. Fenomeno hau politika neoliberalek eta ekonomia globalen berregituraketak ekarritako gizarte-ongizateko sistemen gainbeherarekin batera gorpuztu egin da, oinarrizko zerbitzuen pribatizazioa ekarri eta zaintza-lanaren merkantilizazioa eragin duena.

Gainera, globalizazioak eta neoliberalismoaren hedapenak Estatuek edo komunitateek aurretik beren gain hartzen zituzten funtzio asko kanpora ateratzea eta pribatizatzea eragin du. Zaintza-lanen kasuan, kanporatze hori bereziki agerikoa izan da langileak hego globaletik ipar globaleko herrialdeetara migratzean, lan bila, besteak beste, etxeko zaintzan, adinekoen arretan eta ospitale edo egoitzetako asistentzian. Iparraldeko herrialde askotan, zaintza-lana batez ere emakume migratzaileek egiten dute, eta, kalteberatasun-egoera dela-eta, bereziki lan-esplotazioa jasan dezakete (Jubeto, 2009).

Iparraldeko ekonomiek funtzionatzen jarraitzen dute, hego globaleko emakumeen lanari esker, baina beren lan-prekarietatearen eta bizi-baldintzen kontura. Langile migratzaileak ustiapen-sare global (zaintza-kate globalak deiturikoak) batean harrapatuta daude, eta beren jatorrizko herrialdeetara bidalketa-sortak bidaltzera behartuta daude, Hego Globalean familia askoren biziraupenaren erantzule nagusi bihurtuz. Sistema honek genero-desberdintasunak ez ezik, klase eta nazionalitatekoak ere betikotzen ditu (Pérez Orozco, 2014).

#### 3.3.3.1 Zaintza-kate globalak. Dimentsio transnazionaleko kateak:

Zaintza lanen globalizazioa prozesu konplexu eta multifazetikoa da Orozcoren (2010) arabera ( Gil eta Pérez Orozco, 2011). Zaintza kate globalak honela definitzen dira: Dimentsio transnazionaleko kateak dira, bizitzari egunero eusteko helburuarekin bat datozenak, eta etxeetan zaintza-lanak batetik bestera transferitzen dira botere-ardatzetan oinarrituta, hala nola generoa, etnia, klase soziala eta jatorria (Orozco, Paiewonsky eta García, 2008:90). Ildo horretan, kateek erakusten dute zaintzak hainbat kate mailatan (pertsonak) transferitzen direla, globalizazioak eta dinamika kapitalistak eragindako desberdintasun sakonak dituzten hainbat herrialdetako etxeak eta familiak lotzen dituztenak (Anderson, 2000; Chang, 2000; Hondagneu-Sotelo, 2001; Salazar Parrefias, 2001; Lutz, 2002; Yeates, 2005; hemen aipatuak: Gil eta Pérez Orozco, 2011))

Zaintza-kate globaletan, elkarren artean konektatutako kate-maila (pertsonak) batzuk ikus daitezke, eta horien baitan mugitzen da zaintza. Kate horien kate-maila nagusia xede-

herrialdean zaintza-lana egiten duen eta, aldi berean, zaintza-erantzukizunak jatorrizko herrialdera transferitzen dituen emakume migratzailea da. Kateek oinarrizko hiru kate-maila dituzte: etxe enplegatzailea, zaintzak migratzaileari transferitzen dizkiona; etxe migratzailea, zaintza-lana helmugan egiten duen eta zaintzak jatorrizko etxean delegatzen dituen emakumea; eta jatorrizko etxea, zaintza-konponketak berrantolatzen dituena, migratzailerik ez dagoelako.

Irudia 1: Zaintza Kate Globalak




Iturria: Desigualdades a flor de piel

Kate hauek inplikatutako pertsonen arteko desberdintasun sakonak islatzen dituzte. Desberdintasun horiek ez dira arintzen esku-hartze publikoarekin, baizik eta iraunarazi edo areagotu egiten dira indarrean dauden politiken ondorioz, hala nola atzerritartasun-araudia, etxeko enpleguaren erregulazioa eta zaintza-politikak (Mendekotasun Legea).

Horren ondorioz, zaintza-kate globalen bitartez, argi eta garbi ikusten da zaintza-erantzukizunak etxe pobretuenetatik egoera onenean daudenetara transferitzen direla, genero-, klase- eta nazionalitate-desberdintasunetan sakonduz. Etxe enplegatzaileek, oro har Ipar Globaleko herrialdeetan kokatuta daudenek, kalitate handiagoko zaintzak eskuratzen dituzte, eta emakume migratzaileek, berriz, prekarietatea jasotzen dute bueltan. Desberdintasun horiek ez dira politika publiko eraginkorrekin jorratzen; aitzitik, areagotu egiten dira, langile migratzaileen lan-baldintzak funtsean hobetzea ahalbidetuko duten egitura kolektiborik ez dagoelako.

Era berean, zaintzen eta migrazioaren globalizazioak zaintzaren ikusmoldea eraldatu du, eta agerian utzi du ez dela "gutxiagotik gehiagora" metatzen den prozesu bat (jatorria-helmuga);

aitzitik, kate-mailen arteko erlazioek zaintza duinak eskuratzeko aukera markatzen dute, eta horrek esan nahi du zaintza-eskubidearen urrakortasun-maila bat dagoela. Horrela, zaintza-kateek dauden desberdintasunak islatzeaz gain, iraunarazi egiten dituzte, lan-migrazio hau langile migratzaileen lan- eta gizarte-eskubideak bermatzeko egiturazko berregituraketa behar duen sistema batean txertatzen baita.

Zaintza-kateez gain, badaude modu lausoagoan jarduten duten zaintza-sareak, hainbat agente eta agertoki modu ez-linealean konektatuz. Sare horiek zaildu egiten dute Razavik (2007) proposatutako «zaintzaren diamantearen» egitura, eta aktore, erakunde eta sare sozial ugarik, biztanleek beharrezko dituzten zaintzak bermatzeko lan egiten duten edo ez ikustea ahalbidetzen dute. Sare malgu eta dinamiko horiek zaintza-testuinguru zabalago bat irekitzen dute, eta zaintza-kateen eragiketa interkonexio globalen panorama konplexuago batean txertatzea ahalbidetzen dute, non desberdintasunak sakondu egiten diren eta irtenbideak, askotan, banakako negoziazioetara mugatzen diren.

Irudia 2: Zaintzaren Diamantea




Iturria: Desigualdades a flor de piel (Razavi, 2007)

Laburbilduz, zaintza-kate globalek nazioz haraindiko desberdintasunak agerian uzteaz gain, zaintza-politikak eraldatzeko premiazko beharra ere mahaiganeratzen dute, lan horien banaketa egituratzen duten botere-harremanak aintzat hartu eta maila globaleko zaintzak eskuratzean eta kalitatean ekitatea bilatuz. Fenomeno horrek migrazioaren, generoaren eta

garapenaren arteko lotura erakusten du, eta agerian uzten du sistema ekonomikoek zaintza-lanarekiko duten mendekotasun estrukturala, askotan ikusezin bihurtua eta kanporatua izaten dena, zaurgarritasun-egoeran dauden emakume migratzaileengain jarria gainera (Sassen, 2005; Pérez Orozco, 2014; hemen aipatuak: Gil eta Pérez Orozco, 2011).

Irudia 3: Zaintzaren Kartografiak




Iturria: Desigualdades a flor de piel

## 3.2. LURRERAKETA EUSKAL HERRIAN ETA EAE-N

Atal honetan, aurretik azaldutako ikuspegi teorikoak Euskal Herriko, eta EAEko testuingurura nola egokitzen diren azaltzen da. EAE-ko errealitatean lur hartuz.

### 3.2.1 EAEko testuinguruaren kokapena: zaintza, migrazioa eta feminismoa

Azken urteotan, Euskal Herriko mugimendu feministak zaintzen krisiaren inguruko diskurtso sendoa garatu du, emakumeei dagokien gainkarga eta bizitzaren jasangarritasuna sozialki berrantolatzeko beharra ikusaraziz. Hala ere, diskurtso hori hainbat kolektibok

interpelatu dute, batez ere emakume migratzaileen kolektiboek, zalantzan jartzen baitute tokiko analisi feministak ikuspegi benetan intersekzionala eta dekoloniala ez izatea.

Tentsio garrantzitsuenetako batek, feminismo hegemoniko txuriak eta beraz, euskal feminismoak historikoki subjektu politiko gisa kokatu duen emakumearen figuraren baitan dihardu: emakume zuria, autoktonoa eta klase ertainekoa, lurraldean emakume migratu eta arrazializatu askoren bizitza zeharkatzen duten esperientzien aniztasuna ordezkatzen ez duena. Zaintza-greba bezalako mobilizazioetan, hainbat ahotsek salatu dute emakume migratuei dei egin zaiela zaintzaile prekario gisa parte hartzeko, haien lan-baldintzak eta eskaera espezifikoak agenda politiko feministan benetan txertatu gabe. Kritika hori estraktibismo politikorako modu gisa formulatu da, arrazakeriazko gorputzen presentzia bereganatzen duena haien agentzia eta jakintzarik aitortu gabe (Gandarias, 2016).

Gandariasek (2016) jasotzen du tentsio horiek kolektiboen arteko eguneroko harremanean ere adierazten direla: "haiek" (migratuak) eta "gu" (bertakoak) arteko distantzia sinbolikoa barne-mugetan gauzatzen da — diskurtsiboak, antolamendukoak eta fisikoak —, eta muga horiek benetako artikulazio politikoa oztopatzen dute. Askotan, tokiko erakunde feministek, nahi gabe ere, kolektibo migratzaileekiko begirada paternalistak erreproduzitzen dituzte, eta hauek, beren aldetik, ez dira batere fidatzen ibilbide propioak dituzten subjektu politikotzat aitortuak izateaz. Aitorpen falta hori are larriagoa da emakume migratuak ahalduntzearen "bidea hasten" ari direla uste dutelako, "jada aurreratuta" dauden autoktonoen aurrean, emakumeen arteko hierarkiak betikotuz (Mohanty, 2003; Gandarias, 2016).

Ildo horretan, hainbat autore feminista dekolonialek problematizatu egin dute mendebaldeko emakumeen esperientzia unibertsalizatzea feminismoaren barruan arau gisa. Chandra Mohantyk (2003), adibidez, "Hirugarren Munduko emakumea" subjektua biktima pasibo gisa eraikitzea kritikatu du. Iparraldeko "emakume ahaldunduaren" aurrean, logika kolonialak erreproduzitzen ez dituzten mugaz gaindiko aliantzak pentsatzea exijituz. Ildo beretik, María Lugonesek (2010) proposatzen du generoa eraikuntza kolonial gisa ulertzea, arraza- eta genero-hierarkiak aldi berean ezarri zituena, eta horrek behartzen du kritikoki berrikustera "emakumea" kategoria politiko gisa duen nozioa.

Erronka horien aurrean, Euskal Herrian eta EAEn migratutako emakumeen kolektibo feministek lan-baldintza hobeak edo erakundeen aintzatespena eskatzeaz gain, jakintza eta proposamen propioak ere sortzen dituzte, beren bizi-esperientzietatik, erresistentzia-praktiketatik eta zaintza komunitarioetatik abiatuta. Ezagutza-ekoizpen horrek epistemologia

feminista bat irudikatzen du, euskal feminismoaren esparru nagusiak zuzenean tartekatzen dituena eta aliantza politikoak eraikitzeko beharra planteatzen duena, desberdintasunak eta justizia epistemologikoa aintzat hartuta (Gandarias, 2016).

Erronka ez da horrenbeste, desberdintasunak ezabatzea, baizik eta bertatik eraikitzea: borrokarako espazio komunak irekitzea, pribilegio bereizgarriak aitortuko dituztenak, barne-hierarkiak desaktibatuko dituztenak eta afektuen eta baterako erantzukizunaren politikaren alde egingo dutenak. Prozesu horien alde egiteak, Gandariasek (2016) adierazten duen bezala, "egosketa geldoa" eskatzen du, "tokian kokatutako eta botere-estrategia globaletan definitutako bizitzetarako eta gorputzetarako estrategia komunak jostea, desjostea eta ehuntzea ahalbidetuko duena" (2016: 88. Orria).

Azken urteotan, kolektibo feminista hegemonikoen eta emakume migratuen elkarteen arteko loturek tentsio-, gatazka- eta aukera-uneak bizi izan dituzte.

Testuinguru honetan, emakume migratuen ahotsek lan-baldintza hobeak edo aintzatespena eskatzeaz gain, ekoizpen teoriko propioa ere sortzen dute, bizitako esperientzian, eguneroko erresistentzian eta zaintza-, afektu- eta sostengu-praktika komunitarioetan oinarrituta.

Eztabaida horien argitan, funtsezkoa da ulertzea Euskal Herrian eta EAEn — bereziki zaintzen sektorean — emakume migratzaileek bizi dituzten baldintza materialek eta egiturek zerikusi zuzena dutela desberdintasun-, genero- eta migrazio-dinamika globalekin. Migrazioen feminizazioak eta horiek zaintza-lanarekin duten loturak euskal testuinguruan zaintza-kate globalak nola artikulatzen diren ulertzeko aukera ematen digute.

Migrazioen feminizazioa estuki lotuta dago ipar globaleko zaintza krisiarekin eta beraz, zaintza-kate globalekin; izan ere, emakume migratzaileen kopuruak gora egin du, neurri handi batean, ipar globaleko herrialdeetako zaintza-sektorean gero eta lan-eskari handiagoa dagoelako. Dinamika horrek erakusten du genero-desberdintasunek eta desberdintasun ekonomikoek emakumeen mugikortasuna bultzatzen dutela enplegu prekarioetara eta gaizki ordaindutakoetara, batez ere etxeko lanetan eta adinekoen eta haurren zaintzan, eta hori "zaintzen krisia" deiturikoaren barruan sartzen da.

## 3.3 FEMINISMO DEKOLONIALA: IKUSPEGI HEGEMONIKO, EUROZENTRIKO, ARRAZISTA ETA BURGESAREKIKO HAUSTURA:

Lan honetan, Hego-amerikako feminismo dekolonialaren ekarpenak funtzezkotzat jotzen dira, batez ere ikerketa honen testuinguruan ardatz diren subjektu politikoak —EAEn bizi diren eta antolatzen diren emakume migratuak— gehienbat Latinoamerikako herrialdeetatik datozen emakumeak direlako. Hortaz, euren esperientziak, jakintzak eta borrokak hobeto ulertzeko eta aztertzeko egokiena iruditu zait testuinguru horretan sortu eta garatu diren tresna teoriko eta epistemikoak txertatzea analisian. Horretarako, hurrengo lerroetan pentsamendu ildo honen garapena eta ezaugarri nagusiak azalduko dira.

### 3.3.1 Postkolonialismoa

Feminismo dekolonialaren inguruan behar bezala hitz egiteari ekin aurretik, beharrezkoa da postkolonialismoaren nozioari erreparatzea; izan ere, askotan, bai esparru akademikotik bai aktibismo politikotik, feminismo postkoloniala eta feminismo dekoloniala sinonimoak balira bezala erabiltzeko joera dago. Hala ere, kolonialismoarekiko eta kolonialismoaren eragin iraunkorrekiko kezka kritikoak partekatzen dituzten arren, funtsezko desberdintasunak daude genealogietan, esparru teorikoetan eta helburu politikoetan.

Postkolonialismo terminoa denbora-ikuspegi batetik uler daiteke — Bigarren Mundu Gerraren ondoren Asian eta Afrikan emandako independentzia politikoko prozesuei lotua, 1947an Indiaren independentziarekin sinbolikoki hasiz —, edo ikuspegi epistemologiko batetik, laurogeiko hamarkadan kolonia osteko teoriak garatzeari lotua. Teoria horiek, Edward Said, Gayatri Spivak, Homi Bhabha edo Chandra Mohanty bezalako autoreek eremu akademiko anglosaxoitik bultzatuak, problematizatu egin dituzte Mendebaldetik eraikitako "bestea"-ren irudikapenak eta kolonialismoa diskurtso kultural, literario eta akademikoetan nola inskribatu zen ( Curiel, 2014).

Hala ere, postkolonialaren kontzeptuak kritika ugari jaso ditu. Ella Shohat edo Anne McClintock autoreek, esaterako, anbiguotasunak, esperientzia historiko desberdinak unibertsalizatzeko arriskua eta kolonialismoa "gainditutako" zerbait dela esatean, egungo borrokak despolitizatzeko joera aipatu dituzte. Ildo beretik, Arif Dirlik (Ochy Curielek aipatua, 2014) pentsalari turkiarrak ohartarazi du Iparraldeko erakundeetan integratutako Hego Globaleko akademikoek testuingurutik kanpo erabiltzen dutela, eta nabarmendu du deriba

kulturalista bat dagoela, munduko ordenaren konfigurazioan kapitalismoaren dimentsio estrukturala alde batera uzten duena.

Latinoamerikatik, Ramón Grosfoguel (2010; hemen aipatua: Curiel, 2014) bezalako egileek postkolonialismo anglosaxoiari kritika sakonagoa egitea proposatzen dute. Diotenez, korronte horrek XVIII. eta XIX. mendeetara mugatu ohi du fenomeno koloniala, Abya Yalaren kolonizazioak 1492tik mendebaldeko modernitatearen eraketan izan zuen paper nagusia alde batera utzita. Omisio horrek ezabatu egiten ditu kolonialtasunaren forma estruktural eta iraunkorrak, boterearen, jakintzaren eta izatearen hierarkia globalek oraindik ere antolatzen dituztenak. Stuart Hallek, muga horiek onartzen baditu ere, dio postkoloniala baliagarria izan daitekeela inperioen aroaren ondoren sortutako botere-konfigurazio global berriak deskribatzeko, betiere prozesu ireki, diasporiko eta ez-lineal gisa ulertzen bada.

Feminismoaren arloan, feminismo postkoloniala terminoa hainbat modutan erabili izan da: feminismo hegemonikoaren joera zuri, mendebaldar eta burgesaren kritika gisa; Hirugarren Munduko emakumeen ahots gisa; ikuspegi intersekzionalaren adierazpen gisa; edo feminismoaren ustezko "hirugarren olatu" baten zati gisa. Hala ere, Curielek (2014) dioen bezala, hurbilketa horietako askok ez dute mendebaldeko epistemearen aurkako kritika sakonik. Egile arrazializatuak sartzea edo intersekzionalitatea aipatzea ez da nahikoa pentsamenduaren esparru koloniala errotik zalantzan jartzen ez bada.

Sakontze kritikoaren eta testuinguruaren premia horretatik, bidea irekitzen dio feminismo dekolonialari, feminismo hegemonikoen aurrean kokatzeaz gain, historia, ezagutza eta zapalkuntzak kolonialtasun garaikidearen pean eratzeko moduak errotik berrikustetik abiatzen baita.

### 3.3.2 Pentsamendu dekoloniala eta feminismo dekoloniala

Feminismo dekoloniala modernitate kolonialaren eta feminismo hegemonikoaren aurkako proposamen kritiko gisa agertzen da. Aitortzen du, Abya Yalan, herri indigenek eta afroondorengoek historikoki erresistentzia-borrokak izan dituztela gertaera kolonialaren aurka, eta horietatik sortu direla epistemologia propioak, oraindik ikertu eta ikusarazi behar direnak. Ezagutza-modu horiek pentsamendu dekolonial feministaren abiapuntua dira.

Feminismo dekolonialaren kontzeptua María Lugones (2008) teorialari argentinarrak proposatu zuen, eta bi iturritatik elikatzen da nagusiki. Alde batetik, *Black Feminism*-ek egindako kritiketatik, emakume txitxarrak, feminista herrikoiak, indigenak, afroondorengoak eta Latinoamerikako autonomia feminista, feminismo hegemonikoaren joera arrazista, klasista

eta heterozentratuaren aurrean, zeinak "emakume" zuriaren, mendebaldekoaren eta klase ertainekoaren esperientzia unibertsalizatu duen (Espinosa, 2013: hemen aipatua: Curiel, 2014). Bestalde, Latinoamerikako eta Karibeko pentsalariek (Anibal Quijano, Ramón Grosfoguel, Enrique Dussel, Nelson Maldonado-Torres, Walter Mignolo edo Santiago Castro-Gómez) osatzen duten modernitate/kolonialitate izeneko taldearen proposamen teorikoetatik elikatzen da, modernitatearen izaera kolonial eta eurozentrikoari buruzko hausnarketa kritikoa egin baitute (Curiel, 2014).

Ikuspegi horretatik, feminismo dekolonialak boterearen kolonialtasuna bezalako funtsezko kontzeptuei heltzen die berriro. Kontzeptu horrek azaltzen du nola, kolonialismoaren helburu formalaz haratago, populazioen sailkapen hierarkikoan oinarritutako menderatze-egitura global batek irauten duen, arraza, genero, sexualitate eta leku geopolitikoaren arabera. Egitura hori kapital globaleko erakundeek indartu dute, hala nola Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), Munduko Bankuak (MB) edo NATOk, kolonialismo historikoaren eta kolonialtasun globalaren arteko jarraitutasuna sendotuz (Quijano, 2000).

Esparru horretan, Grosfoguelek (2010; hemen aipatua: Curiel, 2014) proposatzen du mundu-sistema kapitalista moderno/kolonial, eurozentriko, patriarkal eta heterosexual batean bizi garela. Mendebaldeko modernitatea, ikuspegi kritiko horretatik, ezin da ulertu bere kontraparte kolonialik gabe: Europa munduaren erdigune gisa eratu zen 1492tik aurrera, kapitalismoa kolonialismoaren bidez globalki hedatzen den unetik aurrera. Dussel-ek (2003) planteatzen duen bezala, modernitateak zibilizazio-narratiba bati eutsi zion. Narratiba horrek Europakoak ez diren herriak menderatzea justifikatu zuen, haien ustezko gutxiagotasun eta garapen-beharraren premisapean, baita indarkeriaren bidez ere (Curiel, 2014).

Korronte honen beste kategoria nagusi bat izatearen kolonialtasuna da (Maldonado-Torres, 2007), populazio kolonizatuen gizadiaren ukazio ontologikoa adierazten duena, bereziki indigenak eta afroondorengoak, giza estatusa kendu baitzieten eta menderatze-objektu bihurtu. Horrekin lotuta dago jakintzaren kolonialtasuna (Lander, 2000), eredu epistemiko eurozentriko baten ezarpena salatzen duena, ezagutza mendekoei balioa kentzen eta isiltzen diena, ez-zientifikotzat, atzeratutzat edo irrazionaltzat joz (Curiel, 2014).

María Lugonesek (2008; hemen aipatua: Curiel, 2014), Quijanoren irakurketa kritikoan, generoaren kolonialtasuna sistema moderno/kolonialaren funtsezko beste dimentsio bat dela planteatzen du. Harentzat, kolonialtasunak, arrazatik abiatuta gizarte-harremanak antolatzeaz gain, inposatutako genero-sistema batetik ere antolatu zituen, sexua biologizatu zuena eta

esklabo eta kolonizatutako populazioetan emakumeak egotea ukatu zuena. Lugonesen arabera, sexu-dimorfismoa sailkatzeko eta gizatasuna kentzeko tresna bat izan zen: emakume beltzak eta indigenak ez ziren halakotzat hartu, ugalketa- eta sexu-esplotaziora bideratutako emetzat baizik. Hala, generoa eraikuntza moderno eta koloniala da, eta ezin da ulertu arrazismoarekin eta kapitalismoarekin dituzten harremanetatik kanpo (Curiel, 2014).

Ikuspegi horretatik, feminismo dekoloniala elkarren artean lotutako menderatze-egitura horiek ikusaraztea ez ezik, feminismoaren beraren berrikuspen kritiko gisa ere planteatzen da. Yuderkys Espinosak (2013; hemen aipatua: Curiel, 2014) dioen bezala, hedatzen ari den mugimendu bat da, feminismo zuriarekin, mendebaldekoarekin eta burgesarekin haustea eskatzen duena, eta, aldi berean, feminismo beltzaren, txikanoaren eta hirugarrengoaren ekarpenekin duen zorra aitortzen du, klase, arraza, genero eta sexualitatearen zapalkuntzen inbrikazioa salatu baitzuten.

Feminismo honek Latinoamerikako eta Karibeko emakume arrazializatuen, indigenen, afroondorengoen, migratzaileen eta herrikoien ahotsak, esperientziak eta jakintzak aldarrikatzen ditu, historikoki ikusezin bihurtu baitituzte bai feminismo hegemonikoak bai gizarte-mugimendu tradizionalek. Espinosaren (2013) hitzetan, feminismo dekoloniala eztabaida teoriko, politiko eta epistemikoko eremu bat da, pentsamendu modernoaren oinarriak eta ustezko unibertsaltasuna tartekatzen dituena, eta botere-harremanen eta ezagutza sortzeko moduen erabateko eraldaketaren alde egiten duena.

Feminismo dekolonialaren ekarpenak bereziki garrantzitsuak dira lan honetan aztergai den gaia ikertzeko. EAEko emakume migratzaile feministen elkarteek feminismo hegemonikoa eta zaintza-sistema zeharkatzen duten egitura kolonial eta arrazistak zalantzan nola jartzen dituzten ulertzen laguntzen baitute. Boterearen kolonialtasuna edo generoaren kolonialtasuna bezalako kontzeptuek, arraza, klase eta genero ezberdintasunak emakume hauen bizitzak nahiz esperientziak nola zeharkatzen dituzten ulertzen laguntzen dute. Bai eta euren ezagutza, praktika eta borrokak, beren epistemologietatik alternatiba eta erresistentziak eraikitzeko moduak direla ulertzen laguntzen dute.

## 3.4. EKINTZA KOLEKTIBOKO ERREPERTORIOAK: TEORIA ETA APLIKAZIOA

Marko teorikoaren azkeneko atal honetan ikerketa objetuaren azterketari ekiteko baliatu den kontzeptua, modu laburrean bada ere, azalduko da. Gizarte-mugimenduak aztertzeko funtsezko alderdietako bat ekintza kolektiboko errepertorioen kontzeptua da. Tilly (2009),

Tarrow (2004) eta Touraine (2006) autoreek errepertorio horien garrantzia nabarmentzen dute, gizarte-mugimenduek egiten dituzten, egiten dakiten eta gizarteak egitea espero duen ekintzen multzo gisa definitzen dituztelarik. Ez dira ausazko ekintzak, baizik eta ikaskuntza kolektiboei, esperientzia historikoei eta mugimenduaren barruan partekatutako esanahien markoari erantzuten dietenak (Tarrow, 2004 ; hemen aipatua: Oyarze Pizarro, 2021).

Ikuspegi horretatik, ekintza kolektiboko errepertorioak mobilizaziorako estrategia instrumental gisa aurkezteaz gain, espazio publikoa eta diskurtso politikoa eztabaidatzeko mekanismo sinboliko gisa ere aurkezten dira. Rancièrek (2006) planteatzen duen bezala, espazio publikoko ekintza ikusarazte politikorako modu bat da, erresistentzian dauden subjektu politikoak eraikitzea ahalbidetzen duena. Ildo horretan, Euskal Herriko emakume migratzaile feministen taldeek beren borroka ikuspegi intersekzionaletik eta dekolonialetik ulertzea ahalbidetzen duten errepertorio espezifikoak garatu dituzte (Oyarze Pizarro, 2021).

Ikuspegi horretatik abiatuta, ekintza kolektiboko errepertorioak mugimenduen aldarrikapenak gauzatzen dituzten tresna gisa uler daitezke, une historiko ezberdinetan berpiztu daitezkeen ekintza-jarraibide berriak sortuz (Traugott, 2002).

Ekintza kolektiboko errepertorioak ezin dira soilik estrategia praktiko gisa ulertu, ekintzari zentzua ematen dion maila sinboliko batean ere jarduten baitute. Iglesiasek (2004) eta Urzuak (2015) adierazten dute errepertorioek eskubideak zalantzan jartzeaz gain, mobilizazioan parte hartzen duten eragileen estatus publikoa ere eztabaidatzen dutela. Ildo horretan, ekintza kolektiboaren helburua ez da soilik errealitate materiala eraldatzea, baizik eta kolektibo sozialek dituzten problematikak hautemateko eta ulertzeko modua ere (Oyarze Pizarro, 2021).

Espazio publikoaren erabilera funtsezko elementua da eztabaida sinboliko honetan. Kaleen okupazioa, martxak egitea eta espazio enblematikoetan esku hartzea mugimenduen aldarrikapenak ikusaraztea eta iritzi publikoan eragina izatea bilatzen duten ekintzak dira (Traugott, 2002). Urzuak (2015) nabarmentzen du kalea espazio politiko bat dela, non interesak eta esanahiak uztartzen diren.

D 'Angelo-ren arabera (2014; hemen aipatua: Oyarze Pizarro, 2021), ekintza kolektiboko errepertorio eraginkorrenak ekintzaileek aurkeztutako errealitatearen interpretazioa gizartearen pertzepzioarekin lerrokatzen dutenak dira.

Euskal Herriko emakume migratzaile feministen taldeetan ekintza kolektiboko errepertorioak aztertzeak aukera ematen du haien mobilizazio-estrategien konplexutasuna eta aberastasuna ulertzeko. Ekintza isolatuak izan beharrean, errepertorio horiek esperientziak, diskurtsoak eta taktikak biltzen dituen eraikuntza kolektibo bati erantzuten diote, helburu komun baten arabera: zaintza-sistema eraldatzea eta langile migratzaileen eskubideak aitortzea. Ikuspegi feministatik eta dekolonialetik, azterketa honek haien borroken garrantzia agerian jartzen laguntzen du, eta gaur egungo aktibismo sozialean generoaren, klasearen, arrazaren eta migrazioaren arteko elkargunea ulertzen.

## 4. ANALISIA

Atal honetan aukeratutako EAEko emakume migratzaile feministen hiru kolektiboen diskurtso politikoa eta ekintza kolektiboak aztertzen dira. Kolektiboek interneteko euskarrietan argitara eman duten materialaren berrikuspenetik, bai eta, adituari egindako elkarrizketa-erdiegituratutik jasotako ideia nagusiak aurkezten dira. Analisia bi azpiataletan egituratzen da.

Hautatutako hiru kolektiboak EAEko emakume migratzaileen borroken adierazgarri dira, bereziki zaintzen sektorean lan egiten dutenena. Kolektibo horietako bakoitzak ikuspegi feminista, intersekzionala eta dekoloniala du, ikerketaren esparru teorikoarekin bat datorrena. Elkarte horien diskurtso politikoa eta ekintza politikoak aztertu ahal izan dira, besteak beste, nola mobilizatzen diren zaintza-lanaren prekarietatea ikusarazteko, gizarte- eta ekonomia-bazterketako egiturei aurre egiteko, eta zaintza-sisteman aldaketak sortzeko.

Beren ekintzen, diskurtsoen eta mobilizazio-estrategien azterketaren bidez, ikusi ahal izan da nola ikusarazten duten zaintza-lanaren prekarizazioa, nola egiten dieten aurre gizarte- eta ekonomia-bazterketako egiturei, eta nola bultzatzen dituzten eraldaketa-proposamenak zaintza-sistema duin eta bidezkoago baterantz.

Jarraian, hautatutako kolektibo bakoitzaren deskribapen laburra aurkezten da, euren hitzak erabiliz:

**Taula 2: Kolektiboen aurkezpen laburra**

| KOLEKTIBOAREN IZENA | AURKEZPEN LABURRA |
|---|---|
| ATH ELE<br>-<br>Bizkaia | “1986az geroztik, gutariko batzuek Etxeko Langileen Bizkaiko Elkartea sortu genuen. Gure helburua da legearen aldaketa eskatzea, lan baldintza duinak aitortu diezazkiguten eta etxeko lana beste edozein lanen moduan har dezaten<br>1991z geroztik Etxeko Langileen Elkarteak lege-aholkularitza zerbitzu doakoa dauka, langileei euren eskubideen berri emateko, baita berauek eskatzen laguntzeko ere.”<br>(ATH – ELE webgunea) |
| BIDEZ BIDE<br>-<br>Gipuzkoa | “Bidez Bide Euskal Herrian bizi garen emakume migratuen giza eskubideak defendatzera bideratutako proiektuak ikuspegi transkultural, genero eta dekolonialetik gauzatzen dituen elkartea da.” |

| | |
|---|---|
| | " 2009. urtean sortu zen Bidez Bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkartea. Diziplinarteko lan taldea osatzen dugu, ikuspegi transkulturala, dekoloniala eta genero ikuspegitik proiektuak garatzen dituzten profesionalekin. Herritartasun inklusibo eta parekide baten eraikuntzan gure ekarpena egin nahidugu, Euskadin bizi garen emakume migratuentzako eskubide eta betebehar berdinekin." (Bidez bide, webgunea) |
| AEZLE – ATHCA<br>-<br>Araba | "Somos una asociación de mujeres trabajadoras del hogar y de cuidados de Álava. Somos mujeres de distintas procedencias, religiones y culturas que compartimos la lucha por nuestros derechos y exigimos el reconocimiento de nuestro trabajo." (AEZLE- ATHCA, *Facebook*) |

**Iturria: Kolektiboen webgune eta *Facebook* sare soziala**

Metodologia atalean aipatu dugun bezala, ikerketa hau azken bost urtetako denbora tartean kokatzen da, eta aldi hori bereziki esanguratsua da EAEko testuinguruan hautatutako kolektiboen aktibismo- eta aldarrikapen-dinamikak finkatu direlako. Denbora-esparru horri esker, beren diskurtsoetan, proposamenetan eta ekintza kolektiboko estrategietan izandako bilakaerak eta eraldaketak antzeman daitezke.

## 4.1 ELKARTEEN EDUKI DOKUMENTALEN AZTERKETA: TAULAK ETA ANALISI DESKRIPTIBOAK.

Atal honetan, bildutako materialaren azterketatik lortutako emaitza nagusiak aurkezten dira, ikerketaren helburuekin lotura estua dutenak.

Estrategia metodologikoak, datuak analisi-taula batean sistematizatzean datza. Taula bakoitzean, hautatutako hiru kolektiboen argitalpen nagusiak jasotzen dira. Kolektibo bakoitzeko taula bat osatu da, argitaratutako materialen argitalpen-urtea, euskarri mota, mezua eta errepertorioa aurkezten dituena. Analisia honela antolatzen da:

1) Kolektibo bakoitzeko taula bat. Interneteko euskarrietatik, hala nola, webgune eta *Facebook* sare sozialetik bildutako informazioa eta materiala laburbiltzen dituena. Argitara eman den urtea, mezua eta ekintza mota zehaztuz.

2) Taula bakoitzaren ondoren, analisia gauzatu da. Alde batetik, *dimentsio diskurtsiboa* edo diskurtso politikoa, hau da, zaintza-sistema eraldatzeko kolektiboek egindako aldarrikapen eta proposamen politiko nagusiak identifikatu eta aztertzen dira, arreta berezia jarriz zaintza-kate globalen gaia diskurtsoetan antolatzeko moduari. Bestalde, *dimentsio praktikoa* edo ekintza kolektiborako errepertorioak, hau da, talde horiek beren eskaerak ikusarazteko, gizarte- eta lan-bazterketako egiturak salatzeko eta zaintza-sisteman aldaketak sortzeko garatutako ekintza kolektiboak. Amaitzeko, Zaintza kate globalen gaia nola artikulatzen duten.

Analisirako aztertutako materialetik hartutako adibide zehatzetan oinarritzeaz aparte, aurrera eramandako elkarrizketa erdi-egituratuaren ekarpen nagusiak erabili dira, barne, emaitzen interpretazioa aberasten eta osatzen dutenak.

#### 4.1.1 Etxeko Langileen Elkartea - Asociación de Trabajadoras del Hogar (Bizkaia)

2020tik 2025era bitartean, ATH-ELE kolektiboak diskurtso politiko sendoa, koherentea eta eboluzionatua garatu du, salaketa, ikusgarritasuna, presio instituzionala, autoantolaketa eta jakintzen ekoizpena konbinatzen dituzten ekintza kolektiboen errepertorio zabal batekin artikulatua. Ikuspegi feministatik, dekolonialetik eta intersekzionaletik, zaintza-lana bizitzaren jasangarritasunaren erdigunean kokatzen du kolektiboak, eta etxeko eta zaintzako langileak, bereziki emakume migratuak eta/edo arrazializatuak, jasaten dituzten zapalkuntza mota ugariak salatzen ditu.

**Taula 3: ATH-ELE analisi-taula**

| ATH ELE | | | |
|---|---|---|---|
| **URTEA** | **EUSKARRI MOTA** | **IZENBURUA / MEZUA** | **ERREPERTORIOA** |
| 2020 | WEB | "*Zaintza ezin da negozioa izan*". Apuros Mayse-ri salaketa eskubideen urraketagatik eta Lan Ikuskaritzak ez ikusiarena egiten duela salatu, Eusko Jaurlaritzaren politika bati jarraituz: etxeko enpleguak eskubide gabe uztea, gastu sozialean aurrezteko. | Kanpaina / Salaketa |
| 2020 | WEB | Estatistikak 2019 | Txostena |
| 2020 | WEB | Egutegia 2020 | Kartela |
| 2020 | WEB | *"189. Hitzarmena berrestea ez da nahikoa."*<br><br>Benetako erreformarik gabeko neurri sinbolikoak kritikatzen dituzte. Eskubideak parekatzea eta lege- eta erakunde-diskriminazioa salatzen da.<br><br>Artikulua diario.es-en: *OIT 189ren hitzarmena ez da beharrezkoa lege aldaketak egiteko.*<br>Con o sin convenio 189 OIT, todos los derechos para las trabajadoras de hogar. Los derechos que faltan en la legislacion española son dos: adopción de medidas eficaces de seguridad y salud laboral; y condiciones no menos favorables que las de los trabajadores en general en materia de seguridad social. | Komunikatua / Prentsa artikulua |
| 2020 | WEB | *Lan-eskubideak eta osasuna pandemian*.<br><br>Pandemian babesgabetasuna ikusaraztea. Funtsezkoak direla eta lan-eskubide osoak dituztela aitortzea eskatzen dute.<br><br>Artikulua (Naiz-en):<br>Apirilak 28aren harira: Lan-osasun eta segurtasunaren nazioarteko egunean, zaintza eta etxeko lana. | Prentsa-artikulua |
| 2020 | WEB | Galderak eta erantzunak COVID-19. Egoera eta errealitate ezberdinetan, zein eskubide dituzten azaltzen dute. | Gida / Txostena |
| 2020 | WEB | Etxeko langileen subsidioa. Etxeko Langileen Ekintza Politikoko Taldea elkartu gara subsidioa kobratzeko zain dauden eskari guztiak uztailean bertan ordaintzea eskatzeko. | Komunikatua / Kanpaina |
| 2020 | WEB | *Aurrez aurreko hitzorduak lortu arte ez gara etsiko.* | Komunikatua / Elkarretaratzea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Lan Adiskidetze Zerbitzuaren aurrean elkarretaratzea, gaur goizean, sindikatu eta jendarte elkarteekin elkarretaratzea egin dugu Bizkaiko Lan Adiskidetze Zerbitzuaren aurrean. | |
| 2020 | WEB | Estatistikak 2020 | Txostena |
| 2021 | WEB | Maiatzaren 1eko manifestazioa: *Eskubide guztiak etxeko langileentzat* | Kartela / Manifestazioa |
| 2021 | WEB | *Desenplegua orain!* | Kartela / Komunikatua |
| 2021 | WEB | *Darucama eta La Cruz Azul salaketa.* Abusuzko agentzien aurkako salaketa zehatzak. Lan-justizia eta esplotazio praktika instituzionalizatua ikusaraztea eskatzen dute. | Salaketa |
| 2021 | WEB | *Borrokak merezi du.* Campaña fraude masivo a las trabajadoras del hogar por parte de la seguridad social. La seguridad social toma medidas para regularizar las cotizaciones de las trabajadoras de hogar. | Komunikatua eta kanpainaren bideoa |
| 2021 | WEB | *COVID: Lan ikuskaritzaren erantzuna.* Hori erantzun zigun Lan Ikuskaritzak, COVID delakoagatik enplegu-emailea positiboa zenean edo konfinatuta zegoenean langileek nola jokatu behar zuten jakinarazteko eskatu zigunean. Eskuak garbitu zituen. | Komunikatua |
| 2021 | WEB | Egutegia 2021/2022 | Kartela |
| 2021 | WEB | *GORA LANGILEON BORROKA!* Maiatzaren 1ean manifestazioa. *"Por todos los derechos para las trabajadores del hogar" "Inspección no inspecciona" "Pensiones dignas, salud laboral"* lelopean. | Manifestazioaren bideoa |
| 2022 | FACEBOOK | Baldintzarik gabeko erregularizazioa. Bilboko martxaren aldarrikapen nagusia: *"Baldintzarik gabeko erregularizazioa"* migratzaileentzat. | Prentsa-artikulua |
| 2022 | FACEBOOK | Guía de derechos laborales de trabajadoras de hogar actualizada | Txostena |
| 2022 | FACEBOOK | Un acuerdo entre Gobierno Vasco y Unidas-Podemos pretende endurecer los requisitos de acceso a la RGI. Protestan ante Lanbide | Prentsa-artikulua |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | contra los recortes recogidos en la propuesta de reforma de la Renta de Garantía de Ingresos que aseguran "empobrecerán aún más a quienes menos tienen". | |
| 2022 | FACEBOOK | La mutua Fremap pagará lo que debe a la trabajadora a la que dejó de pagar la baja.<br>*¡Ningún abuso sin respuesta!*<br>*Borrokak merezi du.* | Salaketa |
| 2022 | FACEBOOK | *DARUCAMA Y LA CRUZ AZUL VUELVEN A ATRACAR A UNA TRABAJADORA*<br><br>*¿A qué esperan para cerrar Darucama y darles el trato de delincuentes contra los derechos de los trabajadores?*<br><br>*DENUNCIA PUBLICA AL MINISTERIO DE TRABAJO PARA QUE DETENGA DE UNA VEZ EL FRAUDE DE LAS FALSAS COOPERATIVAS A LAS TRABAJADORAS DE HOGAR Y CUIDADOS*<br><br>*CERRAD DARUCAMA Y LA CRUZ AZUL YA* | Komunikatua / Salaketa / Prentsa-artikulua |
| 2023 | FACEBOOK | ASESORÍAS:<br>• Ley de extranjería<br>• Regularización<br>• Falta de pagos<br>• Falta de conocimiento para pedir prestaciones<br>• Acoso sexual<br>• Meses sin cobrar<br>• No se respetan derechos. Salarios muy bajos.<br>• Agresiones sexuales, sexistas, físicas<br>• Ley de extranjeria<br>• Lentitud de la justicia | Aholkularitza / Salaketak |
| 2023 | FACEBOOK | Etxeko eta zaintzako langileei iruzur egiten dieten kooperatiba faltsuei ez.<br><br>*ETOR ZAITEZ GUREKIN* | Elkarretaratzea / Kartela |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Urtarrilaren 25ean, asteazkena, 11: 30ean, elkarretaratzea egingo dugu Bilbon (Kale Nagusia 85), Darucama itxi dezatela eskatzeko. Darucama kooperatibaz mozorrotzen da "bazkideei" lan eskubideak ukatzeko. Etxeetara bidaltzen dituzte, askotan egoiliar gisa, astean 7 egunetan lan eginda. Darucama uzten dutenean, ez die egindako lana ordaintzen. Lan Ikuskaritzak behin eta berriz adierazi du kooperatiba faltsua dela, baina funtzionatzen uzten dio<br><br>“DARUCAMA kooperatiba faltsua itxi orain. Parad la estafa a las trabajadoras “<br>La falsa cooperativa Darucama y su compinche La Cruz Azul siguen robandgo a las trabajadoras. | |
| 2023 | FACEBOOK | 2022ko estatistiken aurkezpena. | Txostena |
| 2023 | FACEBOOK | Conferencia: Situación actual y retos en el empleo de hogar y de cuidados | Formakuntza / Tailerrak |
| 2023 | FACEBOOK | Las organizaciones: Asociación de Empleados y Empleadas de Hogar de Navarra, Asociación de Trabajadoras y Trabajadores del Hogar de Sevilla, ATH-ELE de Bizkaia, Emakume Migratu Feminista Sociosanitarias, Grupo de Trabajadoras de Hogar SOS Racismo Gipuzkoa, Grupo de Trabajadoras de Hogar y Cuidados de SOS Racismo Nafarroa, Nosotras por los cuidados y el empleo de hogar de Granada y Trabajadoras No Domesticadas, Denunciamos que a fecha 15 de marzo a la Seguridad Social permite dar de alta a una trabajadora de hogar a tiempo completo (40 horas / semana) por un sueldo de 1.166,67€, que es el mínimo del año pasado. Hace ya un mes que se publicó el salario de este año y no lo han actualizado ¿A qué están esperando?<br>A 16 de marzo: seguimos denunciando que la Seguridad Social sigue sin cumplir la ley por permitir dar de alta a las trabajadoras de hogar por debajo del SMI 2023, ¿¿Qué espera para actualizarlo?<br>¿ Gobiernan con perspectiva de género?. Los salarios de las mujeres no importan. El cuidado no importa. Las denuncias de las organizaciones no importan | Salaketa |
| 2023 | FACEBOOK | El sábado día 22, a las 12 de la mañana, acudiremos a la manifestación por la sanidad pública. Contra la privatización y las listas de espera, por el derecho a una atención de calidad para todas. Anímate tu también, tenemos que ser muchas!!! | Manifestazioa / Kartela |
| 2023 | FACEBOOK | Manifestación 1 de Mayo: *¡ DESEMPLEO DESDE AHORA! DARUCAMA ITXI BEHINGOZ !* | Manifestazioa |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2023 | FACEBOOK | El paro y cómo cobrarlo. Os animamos a todas a pedir la prestación de desempleo para que sea una realidad. | Bideoa |
| 2023 | FACEBOOK | Acabamos de actualizar la guía de derechos de las trabajadoras de hogar y cuidados. | Txostena |
| 2023 | FACEBOOK | Desde el 1/10/23, el @empleo_SEPE dará solo 120 días de prestación a las trabajadoras que queden en paro. Animamos a todas a no conformarse y reclamar que les cuenten como cotizado para desempleo todo el tiempo anterior, como al resto de la gente trabajadora. | Bideoa |
| 2023 | FACEBOOK | El 12 de octubre, #NadaQueCelebrar. Una parte de los cuidados en el ámbito privado se sostiene sobre mujeres migradas que dejan atrás a sus familias y sus pueblos para trabajar cuidando aquí. La explotación de su vida, su tiempo y sus capacidades aprovechando la situación de sus países y la precariedad en la que llegan y viven aquí, es otra cara del colonialismo.<br>*No a la Ley de Extranjería. Regularización YA!.* | Kanpaina |
| 2023 | FACEBOOK | A partir de 2024 las pensiones de las trabajadoras de hogar y cuidados se calcularán con la cobertura de vacíos de cotización, como se hace con el resto de pensionistas. Estaba previsto que la equiparación se hiciese el 1 de enero de 2019, luego por acuerdo PSOE-Podemos se atrasó al 1 de enero de 2021 y luego, de nuevo, al 1 de enero de 2023. En septiembre de 2022, una ley volvía a atrasarlo al 1 de enero de 2024. Esta es la explicación del porqué no aplaudimos. Ya era hora. | Komunikatua |
| 2023 | FACEBOOK | RECHAZO A SUBCONTRATACIÓN EN CENTRO PÚBLICO (Denuncia de irregularidades en subcontratación de centro público) | Salaketa. |
| 2024 | FACEBOOK | ASESORÍAS:<br>• ¿A partir de cuándo podremos decir que el SEPE roba a las trabajadoras a conciencia y que el Ministerio de Trabajo juega sucio, apoyándose en la falta de información de las afectadas?<br>• Salarios bajos<br>• Agresiones físicas<br>• Falta de pagos | Aholkularitza |
| 2024 | FACEBOOK | Estadísticas del año 2024 | Txostena |
| 2025 | FACEBOOK | ASESORÍAS: | Aholkularitza |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | • No se hace caso a la solicitud de desempleo<br>• Falta de concreción en la ley<br>• Ministerio de Trabajo español va a establecer algún sistema concreto y fiable para controlar la jornada de trabajo en el empleo de hogar, tal como le ordenó el Tribunal europeo el 19/12/24. Creemos que no, porque a día de hoy ni siquiera quieren controlar que los contratos reflejen la verdadera jornada laboral. | |
| 2025 | FACEBOOK | El gobierno vasco no hará nada para que se registre la jornada de trabajo en hogar.<br>Eso contesta el 5/2/2025 a la pregunta parlamentaria de EH Bildu.<br>Ni orientará a los empleadores para que cumplan su obligación de registrar la jornada, ni controlará mediante la Inspección de Trabajo que lo hagan.<br>El acuerdo del Ministerio de Trabajo, CCOO y UGT no prevé reducir el tiempo de presencia en hogar; además, no acuerda medidas para asegurar que los hogares realicen el control electrónico de jornada. | Komunikatua |
| 2025 | FACEBOOK | Todavía luchando por el derecho al paro | Manifestazioa |

Iturria: Elaborazio propioa. Kolektiboen webgune eta *Facebook*- etik abiatuta

**2) ATH-ELE-ren diskurtso politikoaren analisia.**

Aztertutako denbora tartean, ATH-ELEk egitura-eskaera eta aldarrikapen zehatz batzuei eutsi die, besteak beste:

- ***Zaintza lanen desmerkantilizazioa***: Irabazian eta kanporatzean oinarritutako egungo eredua salatzen dute, eta langileak prekarizatzen ez dituen irabazi-asmorik gabeko sistema publiko eta kolektibo baten aldeko apustua egiten dute.
- ***Lan-eskubideen erabateko aitorpena***: Gainerako langileekiko eskubide-berdintasuna aldarrikatuz (langabezia, bajak, erretiroa, kalte-ordainak (indemnizazioak), lan-baldintza duinak).
- ***Etxeko erregimen bereziaren amaiera***: Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean erabat integratzeko eta "atzera egitea" bezalako figurak ezabatzeko erreklamazioa egiten dute.
- ***Presazko eta baldintzarik gabeko erregularizazioa***: administrazio-egoera edozein dela ere, duintasunez bizi eta lan egiteko eskubidearen aldarrikapena egiten dute.
- ***Arrazakeria instituzionalari eta Atzerritartasun Legeari kritikak***: Bazterkeria, prekarietatea eta emakume langile migratuenganako indarkeria betikotzen dituzten praktika instituzional diskriminatzaileak salatzen dituzte.
- ***Zaintza lana funtsezko gisa ikusaraztea eta aitortzea:*** haren balio ekonomikoa eta soziala aldarrikatuz, pandemian bereziki agerian geratu dena, eta etengabe ikusezin bihurtzen ari dela salatuz.
- ***Autonomia politikoa eta autoantolaketa***: Lehen pertsonan hitz egiteko gaitasuna defendatu, agenda propioak eraiki eta ordezkaritza asistentzialistak baztertu nahi dituzte.
- ***Feminismo dekolonial eta antikapitalista:*** Behetik eraikitako feminismoaren aldeko apustu politikoa egiten dute, indarkeria anitzak aitortuko dituena (arrazistak, matxistak, kolonialak) eta emakume arrazializatuen arteko ahizpatasuna praktikan jarriko duena.
- ***Erreparazio historikoaren eskakizuna:*** Kolonialismoak, egiturazko arrazakeriak eta zaintza-lanaren egiturazko mendekotasunak metatutako kalteengatik errekonozimendua eta erreparazioa eskatzea.

Zaintza-kate globalak terminoa modu esplizituan taulako sarrera batean baino agertzen ez den arren, emakume migratzaile feministen kolektiboen diskurtsoetan etengabe azaleratzen da. Aldarrikapen politiko horiek agerian uzten dute Ipar Globaleko zaintza-sistema arrazializatutako emakumeen, horietako asko Hego Globaletik datozenak, lanaren egiturazko prekarizazioari esker mantentzen dela. Argitalpenen bidez, ATH-ELE-ek salatzen du, sistema arrazista eta klasista dela egituraz, eta zaintzak kanpora ateratzean, eskubiderik gabeko gorputz migratzaileetan uzten dituela.

Kolektibo honek garatutako diskurtsoak kritika intersekzionala artikulatzen dute, honako hauek lotzen dituena: lan-baldintza prekarioak, eskubiderik eza (hala nola langabezia-prestazioa eskuratzea edo Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzea), indarkeria instituzionala eta Atzerritartasun Legea, zaintza-kate globalen barruan emakume horiei esleitutako rolarekin. Horrela, oraina salatzeaz gain, kolonialismoaren eta ordena ekonomiko globalaren ondorio historikoak salatzen ditu, eta agerian uzten du behartutako migrazio-mugimenduek lan-gainkarga bat eragiten dutela, emakume migratzaileek egiten dituzten lanak duten balioa aitortu gabe.

### 3) ATH-ELE-ren ekintza kolektiboko errepertorioak.

ATH-ELEk hedatutako ekintza kolektiboko errepertorioak borroka- eta ikusarazte-modu desberdinak konbinatzen ditu, eta bost ardatz nagusitan bil daitezke:

- ***Salaketak***
  - Abusuzko agentzien aurkako salaketak aurkeztea Lan Ikuskaritzan.
  - Lan-esplotazio, ordaindu gabeko, bidegabeko kaleratzeen edo sexu-indarkeriako kasu indibidualak ikusaraztea.
  - Eragin mediatikoa eta politikoa duten ekintza judizialak (adibidez, Darucama, Cruz Azul kasuak).

Irudia 4: Darucama Itxi. Kartela




Iturria: ATH-ELE *Facebook*-a (2021)

- Ikus-entzunezko kanpaina propioak: bideoak, leloak, kartelak, sareetako argitalpenak, egutegiak

Irudia 5: Eskubide guztiak etxeko langileentzat. Maiatzaren 1eko Manifestazioa.




Iturria: ATH-ELE *Facebook*-a (2022)

Irudia 6: 2020ko egutegia


EGUTEGIA 2020 CALENDARIO

TODOS LOS DERECHOS PARA LAS TRABAJADORAS DE HOGAR

SALUD LABORAL

NO AGENCIAS VAMPIRAS

DESEMPLEO COTIZACIÓN POR SALARIOS REALES

GARANTÍAS DE PRIVACIDAD

IGUALDAD EN LA MATERNIDAD

SALARIOS JUSTOS

QUE SE CUMPLAN TODOS LOS DERECHOS RECONOCIDOS EN LAS LEYES

DERECHO AL DESCANSO

ZAINTZA LANAREN AITORPENA

ASOCIACIÓN DE TRABAJADORAS DE HOGAR

ATH-ELE

ETXEKO LANGILEEN ELKARTEA

athbizkaia@gmail.com

www.ath-ele.com

**Seguridad Social 2020**

→ El alta es obligatoria desde la primera hora de trabajo. La parte empleadora es la única responsable de dar de alta y cotizar. Trabajando menos de 60 horas mensuales, se puede acordar que la trabajadora se ocupe del alta y la cotización, pero la parte empleadora tiene que pagar cada mes a la trabajadora la cuota patronal de Seguridad Social junto con el salario.

→ No es válido el acuerdo para no dar de alta en la Seguridad Social. No te pueden obligar a pagar la cuota que corresponde a la parte empleadora. Estos derechos siempre se pueden reclamar.

→ Cotizar sirve para cobrar en el futuro pensiones de jubilación, invalidez, viudedad y orfandad. Cotizar a la Seguridad Social española es útil también para las trabajadoras que regresan a su país.

→ Es importante que compruebes tus bases de cotización. Si quieres ayuda para hacerlo, acude a la asesoría o mira el video explicativo en nuestra página web.

**Salarios mínimos 2020**

→ El salario mínimo para las 40 horas semanales es el que aparece en nuestra página web, en la columna de la derecha, con el título "Salarios 2020". Si se trabaja más de 40 horas semanales, hay que cobrar un cantidad más por cada hora. Puedes descargar la lista de precios.

→ Las trabajadoras externas que hacen menos de 40 horas semanales suelen ganar más que el salario mínimo.

→ Si te descuentan por comer o dormir en la casa, exige que el descuento sea de una cantidad fija y proporcionada a lo que consumes, nunca un porcentaje del salario.

Aunque no tengas papeles tienes los mismos derechos que el resto de las trabajadoras

**Bajas**

→ Baja por maternidad, se cobra durante 16 semanas a cargo de la Seguridad Social.

→ Baja por enfermedad, la parte empleadora tiene que pagar desde el 4º al 8º día de la baja. Después, la paga la Seguridad Social.

→ Baja por accidente laboral, se cobra desde el primer dia y la paga la Seguridad Social.

→ Si te has lesionado o enfermado trabajando, cuando vayas a los servicios médicos explica siempre qué es lo que te ha pasado y no te conformes con una baja por enfermedad común. En un caso así, acude a nuestra asesoría.

**Cambio de condiciones y despido**

→ Tienes 20 días para reclamar contra los cambios. en las condiciones de trabajo, (reducción de las horas, el sueldo, cambio de horario...). No dejes el empleo antes de pasar por la asesoría, puedes irte con una indemnización.

→ Si te despiden sólo tienes un plazo de 20 días hábiles para reclamar tu indemnización.

→ Si te dan un papel comunicando el despido, la liquidación final o el finiquito, puedes firmarlo siempre que pongas la fecha al lado de la firma y un "no conforme".

→ Controla siempre la baja en la Seguridad Social, y no firmes nunca una baja voluntaria. Puedes perder las ayudas sociales y, si eres extranjera tener problemas para renovar tus papeles. En un caso así, acude a nuestra asesoría.

**Vacaciones, descansos**

→ Las fiestas son 14 al año, y cada día festivo tiene 24 horas. Si se trabaja un día festivo debe de compensarse con otro día de descanso o cobrarse como horas extras.

→ Si vas a irte de vacaciones más de 30 días, procura que te den el permiso por escrito.

→ Ten en cuenta que las vacaciones deben disfrutarse antes de que termine el año, y se cobran según el salario total, sin descuentos de salario en especie.

→ Interna: es obligatorio que el fin de semana te den un descanso de 36 horas continuadas.

→ Es obligatorio descansar 12 horas entre jornadas diarias. Se pueden reducir a 10, pero esas dos horas restantes se tienen que disfrutar en otro momento.

**Jornada máxima de 40 horas, no al tiempo de presencia**

Agencias

→ La Asociación de Trabajadoras de Hogar denunciamos los abusos de las agencias de colocación. Si conoces algún caso en el que la agencia se quede con un porcentaje del salario, pida dinero para dar empleo, obligue a firmar contratos en los que la trabajadora renuncia a sus derechos... Acude a nuestras asesorías.

→ Acude a LANBIDE en tu búsqueda de empleo.

Servicios públicos de empleo, también para las trabajadoras de hogar

EMAKUNDE

**Contratos**

→ Es obligatorio el contrato escrito. Asegúrate de que lo que firmas es la realidad. Tienes modelos en nuestra página web.

→ Anota el nombre, los apellidos y la dirección de las personas para las que trabajas y también de otros familiares que se ocupen de organizar tus tareas y pagarlas cuando la persona atendida no esté en condiciones de hacerlo.

→ Tienes derecho a condiciones de seguridad y salud laborales. No aceptes órdenes de trabajo que te pongan en riesgo.

→ Si quieres denunciar que no estás recibiendo un trato correcto por parte de tus empleadores, acude a nuestras asesorías.

Iturria: ATH-ELE *Facebook*-a (2020)

- o Lan-baldintzei eta gizarte-bazterkeriari buruzko estatistikak eta datuak zabaltzea.
- o Iritzi-artikuluak, informazio-gidak eta manifestuak argitaratzea.

- ***Erakundeen aurka Manifestazioak, kontzentrazioak, mobilizazioa eta presioa***
  - o Parte-hartze aktiboa manifestazioetan (maiatzaren 1a, Etxeko Langileen Eguna, mobilizazio feministak).
  - o Kontzentrazioak erakundeen aurrean (SEPE, Lan Bitartekaritza...), sorospenak, aurrez aurreko arreta edo neurri eraginkorrak eskatzeko.
  - o Eragina Eusko Legebiltzarrean, Arartekoan eta EBJAn.

Irudia 7: Lan ikuskaritzaren aurrean kontzentrazioa




Iturria: ATH-ELE Web-a (2020)

- ***Ekintza sinboliko eta sortzaileak: autoantolaketa eta elkarlaguntzaren bidezko erresistentzia***
    - Aholkularitza juridikorako eta prestakuntza politikorako guneak sortzea (asesoriak).
    - Langileen arteko laguntza-sare komunitarioak sortzea
    - Parte-hartze aktiboa kolektibo feministetan eta aliantza intersekzionaletan.
    - Baliabide bisualak, sinbolikoak eta emozionalak (koloreak, emojiak, metaforak) erabiltzea hainbat publikorekin konektatzeko.
    - *"Turrón rima con cotización"* edo *"No somos esclavas del hogar"* bezalako kanpainak, eskaerak modu irisgarri eta indartsuetan gaitzesten dituztenak.

Ekintzei dagokienez, kolektiboak hainbat praktika politikoren bitartez gauzatzen dituzte egiturazko kritika horiek, eta praktika horiek zaintza-kate globalen berezko dinamikak ere agerian uzten dituzte. Aholkularitza juridiko eta laboralen antolaketak, sentsibilizazio eta salaketa publikoko kanpainek, egun garrantzitsuetako mobilizazioek (hala nola martxoaren 30a, Etxeko Langileen Nazioarteko Eguna), eta laneko abusu kasuei laguntza emateak ariketa politiko zehatz eta eraldatzailea erakusten dute.

Ekintza horiei esker, ATH-ELE kolektiboak berehalako hobekuntzak eskatzeaz gain —hala nola LANEren 189. hitzarmena berrestea edo iruzurrezko agentziak benetan ikuskatzea —, emakume migratzaileek, gainontzekoon bizitzen jasangarritasuna eusteko egiten duten ekarpena ikusezin bihurtzen duen diskurtso hegemonikoa ere aztertzen dute. Elkar antolatzeko eta laguntzeko espazio propioak sortzean, politika autonomo gisa eraikitzen dira, erdigunean

mugaz gaindiko zaintzaren etika eta zaintza lanen justizia globala jarriz, funtsezko lan hori zatitzen eta merkantilizatzen duen logika neoliberalari desafio eginez.

### 4.1.2 Bidez Bide (Gipuzkoa)

#### 1) Analisi taula Bidez Bide

Taula 4: Bidez bide analisi-taula

| Bidez bide | | | |
|---|---|---|---|
| **URTEA** | **EUSKARRI MOTA** | **IZENBURUA / MEZUA** | **ERREPERTORIOA** |
| 2025 | WEB | Sentencia del TJUE sobre trabajadoras | Komunikatua |
| 2025 | WEB | Campaña por la integración plena | Kanpaina |
| 2025 | FACEBOOK | Explotación en agencias piratas | Salaketak |
| 2025 | FACEBOOK | Asesoría sobre derechos laborales | Aholkularitza |
| 2025 | FACEBOOK | Campaña por la ratificación del Convenio 189 | Kanpaina |
| 2025 | FACEBOOK | Visibilización de casos individuales | Komunikatua |
| 2021 | FACEBOOK | Talleres de Poesía Decolonial | Formakuntza eta kontzientziazio tailerra |
| 2024 | WEB | LUCES EN SOMBRA (Documental) | Dokumentala |
| 2020 | WEB | Coreografías de la Transgresión | Dokumentala |
| 2020 | WEB | Rapeando Migraciones (CD) | CD |
| 2020 | WEB | La Mochila Invisible (Documental) | Dokumentala |
| 2023 | FACEBOOK | Migraciones Transnacionales - Ángeles de la Guarda | Formakuntza eta kontzientziazio tailerra |
| 2020 | FACEBOOK | Ángeles de la Guarda - Proyecto fotográfico | Argazki erakusketa |
| 2021 | FACEBOOK | Campaña Estudiar para Cuidar | Kanpaina |
| 2021 | FACEBOOK | Campaña de Homologación de Estudios IGUÁLATE | Kanpaina |
| 2022 | WEB | Tarjeta SUPERNESKAME | Formakuntza eta kontzientziazio tailerra |
| 2020 | WEB | Servicio Pionero | Aholkularitza |
| 2021 | WEB | Recitales de poesía decolonial "Nosotras, las Otras" | Poesia |
| 2021 | FACEBOOK | Cuidando vidas aquí y allá | Argazki erakusketa |
| 2023 | FACEBOOK | Taller sobre Interseccionalidad y Feminismo Decolonial | Formakuntza eta kontzientziazio tailerra |
| 2023 | FACEBOOK | Reportaje sobre Ángeles de la Guarda | Prentsa-artikulua |
| 2021 | FACEBOOK | Campaña «Estudiar para Cuidar» | Prentsa-artikulua |
| 2021 | WEB | Poesía Decolonial | Prentsa-artikulua |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2021 | WEB | Reportaje sobre la Cadena Global de Cuidados | Prentsa-artikulua |
| 2020 | WEB | Proyecto ZURE ONDOAN: apoyo psicosocial a familias migrantes | Formakuntza eta kontzientziazio tailerra |
| 2020 | FACEBOOK | Mujeres Migradas y sus Itinerarios de Formación y Aprendizaje | Prentsa-artikulua |
| 2020 | FACEBOOK | Homologación de estudios para migrantes | Prentsa-artikulua |

Iturria: Elaborazio propioa. Kolektiboen webgune eta *Facebook*- etik abiatuta

## 2) BIDEZ BIDE-ren DISKURTSO POLITIKOAREN ANALISIA

Aztertutako denbora tartean, Bidez Bidek salaketa, aldarrikapen eta proposamen zehatz batzuei eutsi die, besteak beste:

- ***Barne-langile gisa lan egiten duten emakume migratuen lan-esplotazioa*** eta erdi-esklabotzako baldintzak salatzen dituzte.

- ***Atzerriko tituluak homologatzeko burokrazia motela*** (gehienez 3 urteko itxaronaldia) salatzen dute. Eta honen aurrean, jatorrizko herrialdean egindako ikasketak arin eta zuzen homologatzea aldarrikatzen dute.

- ***Emakume migratuen laneko eta bizitzako jakintzak eta ibilbideak ikusezin bihurtzea*** kritikatzen dute. Eta, z***aintza-eredu berri bat, publikoa, komunitarioa eta unibertsala***, emakume migratuei atxikitu gabea aldarrikatzen dute.

- ***Lan- eta gizarte-eskubideak eskuratzeko desberdintasuna*** salatzen dute. Bidezko sarbidea profesionalizazio- eta enplegagarritasun-prozesu duinetan.

- ***Zaintza-lana lan duina eta eskubideduna*** dela aldarrikatzen dute. Gaur egungo ereduan emakume migratuen gaineko zaintzen karga neurrigabea salatzen dute.

- ***Ezagutza eta ekarpenak dituzten subjektu politiko gisa aitorpenik ez*** izatea salatzen dute. Eta ***arrazakeriaren kontrako politika publiko intersekzionalak*** eskatzen dituzte, bai eta emakume migratuak politika aktiboen subjektu gisa onartzea. Gainera, hausnarketa kritikorako, arrazismoaren aurkako eta feminismo dekolonialetarako guneak sortzea.

Bidez Bideren diskurtsoak zaintza-kate globalei buruzko ikuspegi kritikoa txertatzen du etengabe, bai esplizituki artikulu, dokumental eta erakusketetan, bai zeharka kanpaina eta proiektuetan. Elkarte honek zaintza-lana sistema kapitalistaren ardatz egituratzaile gisa eta genero-, arraza- eta klase-desberdintasunak erreproduzitzeko espazio gisa kokatzen duen diskurtsoa artikulatzen du, kate horien barruan emakume migratzaileei esleitutako rolaren kritika argia eraikiz

*La Mochila Invisible* dokumentalaren edo *Ángeles de la Guarda* bezalako proiektuen bidez, migrazio-ibilbideak Iparraldeko herrialdeetako zaintza-eskaerak sakon zeharkatzen dituela erakusten da. Emakume migratuak besteen bizitzei eustera behartuta daude, beren zaintza-loturak eskuordetzen edo zatikatzen dituzten bitartean, zaintzaren banaketa globalaren dimentsio transnazionala eta bidegabea agerian utziz.

Gainera, poesia dekoloniala eta ikus-entzunezko proiektuak bezalako tresna artistiko eta adierazkorren bidez, Bidez Bidek migrazioaren esperientzia politizatzen du, imaginario paternalistak eta biktimistak narratiba ahalduntzaile baten bidez desafiatuz, non emakume migratzaileak subjektu aktiboak, ezagutza-sortzaileak eta borroka eraldatzaileen protagonistak diren.

### 3) BIDEZ BIDE-ren EKINTZA KOLEKTIBOKO ERREPERTORIOAK

Bidez Bidek hedatutako ekintza kolektiboko errepertorioak borroka- eta ikusarazte-modu desberdinak konbinatzen ditu, eta hauek laburbildu daitezke:

- ***Aholkularitza eta laguntza ekintzak***
  - PEACerako aholkularitza-zerbitzua (gaitasun profesionalak aitortzea).
  - Atzerriko ikasketak homologatzeko doako aholkularitza ("PAREKATU – IGUALATE").

Irudia 8: Parekatu - Iguálate Bidez bide




Iturria: Bidez bide *Web*

- Prestakuntza-ibilbideei eta enplegagarritasun-prozesuei laguntzea

Irudia 9: Bidez bide viñeta




Iturria: Bidez bide *Web*

- ***Ahalduntze-proiektuak eta Prestakuntza***
    - *"Empoderamiento laboral y profesionalización de las mujeres migradas que trabajan en cuidados y servicio doméstico"* proiektua.
    - *"Decolonizando nuestras prácticas y saberes"* proiektua
    - Berriz elkartutako emakume gazte migratuentzako prestakuntza-ibilbideak.

- ***Tailerrak eta topaketak. Autoantolaketa***
    - *"Diálogos interculturales de mujeres migradas"* tailerrak.
    - Poesia dekolonialeko tailerrak.
    - Topaketa Donostiako Emakumeen Etxean (2024): jakintza-trukea Latinoamerikatik migratutako emakumeen artean.
    - Idazkera haragitu eta antikolonialeko tailerrak.
    - Ikus-entzunezko eta kulturako materialak
    - *Nosotras migradas, las otras* podcastak .

Irudia 10: Nosotras migradas, las otras podcasta




Iturria: Bidez bide *Web* (2025)

- Emakume migratuek idatzitako poema-liburuak eta kontakizunak.
- *Luces en Sombra* (2024) dokumentala.
- *Coreografías de la transgresión* dokumentala (2019), Peruko trans emakumeei buruzkoa.
- *Ángeles de la Guarda* argazki-erreportajea (Peruko argazkiak, nazioz gaindiko zainketei buruzkoak).
- *La mochila invisible* proiektua (preso izandako emakume migratuei buruzko dokumentala).
- *Rapeando Migraciones* CDa Gasteizko eta Donostiako gazte migratzaileekin.

- ***Hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak***
  - *Luces en Sombra f*ilmaren proiekzioak antzoki, zinema eta unibertsitateetan.
  - Hitzaldiak unibertsitate-graduetan (Antropologia, Hezkuntza) eta LHn.
  - Memoriari, feminismoei eta arrazismoaren aurkako elkarrizketetan.
  - Bisita gidatuak argazki-erakusketetara.
  - Nazioz gaindiko zaintza- eta amatasun-kate globalei buruzko jarduerak.

Irudia 11: Luces en sombra dokumentala




Iturria: Bidez bide *Web* (2024)

Bidez Bidek bultzatutako ekintzek errepertorio sorta zabala biltzen dute, ikuspegi komunitario eta eraldatzaile sakona islatzen dutenak. Feminismo dekolonialari, intersekzionalitateari eta zaintza-kate globalei buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-tailerrak antolatzea ardatz nagusia da. Ekintza horien bidez, emakume migratzaileak ahalduntzeaz gain, zalantzan jarri nahi dira egungo zaintza-ereduaren oinarri diren egitura arrazistak eta klasistak.

Bestalde, 189. hitzarmena berresteko kanpainek, ikasketen homologazioak eta esplotazio-kasu indibidualen ikusarazteak konpromiso zuzena erakusten dute eskubideen urraketen salaketarekin eta eraldaketa instituzionalerako eragin politikoarekin.

Ekintza hauen helburua imajinario kolektiboa eztabaidatzea eta bidezko zaintza-sistema etikoago baten etika sustatzea da, elkardependentzia globalak onartzen dituen ikuspegi feminista dekolonial batetik.

### 4.1.3 Arabako etxeko eta Zainketako Langileen Elkartea (AEZLE) - Asociación de Trabajadoras del Hogar y de los Cuidados de Álava (ATHCA)

#### 1) Analisi taula AEZLE- ATHCA

Taula 5: AEZLE analisi-taula

| AEZLE-ATHCA | | | |
|---|---|---|---|
| **URTEA** | **EUSKARRI MOTA** | **IZENBURUA / MEZUA** | **ERREPERTORIOA** |
| 2021 | Facebook | Taller sobre emociones. Gestión de emociones, inteligencia emocional, lenguaje corporal. | Kontzientziazio tailerrak – formakuntza tailerrak |
| 2021 | Facebook | Manifestación en Virgen Blanca. Exigencia de la ratificación del convenio 189 de la OIT. | Manifestazioa |
| 2021 | Facebook | Taller sobre nutrición. Relación entre nutrición y emociones vinculadas al mandato de género. | Formakuntza tailerrak |
| 2021 | Facebook | Asamblea de fin de año. Encuentro de fin de año con actividades y despedida. | Elkarretaratzea |
| 2022 | Facebook | Asamblea de inicio de año. Inicio del año con proyectos y lucha por los derechos. | Elkarretaratzea |
| 2023 | Facebook | Día Internacional de las Trabajadoras de Hogar y de Cuidados. Conmemoración y reivindicación de derechos en el Día Internacional de las Trabajadoras del Hogar y de Cuidados. | Manifestazioa |
| 2022 | Facebook | Encuentro de trabajadoras de hogar. Teatro, debate, comida, taller de danza y más actividades para trabajadoras de hogar. | Elkarretaratzea/ Talde dinamikak / Antzerkia |
| 2023 | Facebook | Curso de Sensibilización a Cuidados Paliativos. Curso sobre cuidados paliativos para mujeres trabajadoras de hogar. | Formakuntza tailerra |
| 2023 | Facebook | Huelga Feminista General. Razones para la huelga feminista general en Euskal Herria, incluidas las trabajadoras de hogar y cuidados. | Greba / Manifestazioa |
| | Facebook | Asesoría Grupal sobre despidos. Orientación para trabajadoras de hogar sobre qué hacer en caso de despido. | Aholkularitza |
| | Facebook | Manifestación 8M. Reivindicación por los derechos de las trabajadoras de hogar y de cuidados. | Manifestazioa |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | *Regimen general ya!* | |
| 2023 | Facebook | Taller sobre la brecha digital. Taller para mujeres sobre la brecha digital. | Formakuntza tailerra |
| 2023 | Facebook | Huelga Feminista y Sistema Público de Cuidados. Llamado a la huelga feminista general y demanda de un sistema público de cuidados. | Greba / Manifestazioa |
| 2023 | Facebook | Etxeko eta zaintzako langileok Euskal Herriko greba feminista orokorrera joateko arrazoiak **#30DeNoviembre** **#huelga** **#euskalherria** | Greba / Manifestazioa |
| 2024 | Facebook | Encuentro entre colectivos de mujeres. Alianzas entre colectivos de mujeres para luchar juntas. | Elkarretaratzea |
| 2025 | Facebook | Asesoría Grupal sobre salarios 2025. Información sobre los salarios de 2025 para trabajadoras de hogar y de cuidados. | Aholkularitza |
| 2024 | Facebook | Hoy, hemos vuelto a salir a la calle reivindicando un SISTEMA PÚBLICO COMUNITARIO de cuidados haciendo un gesto a una de las formas de movilización de las mujeres entorno al 3 de marzo. Seguimos luchando por nuestros derechos ya que aún no se ha conseguido nada. NO HAGAIS NEGOCIO CON LA DEPENDENCIA!!! | Manifestazioa |
| 2025 | Facebook | Manifestación del **#8M** | Manifestazioa |
| 2025 | Facebook | Este domingo 30 de marzo es "DIA INTERNACIONAL DE LA TRABAJADORA DEL HOGAR" por eso estaremos en Plaza General Loma haciendo acto de presencia. **#30DeMarzo** | Manifestazioa |

Iturria: Elaborazio propioa. Kolektiboen webgune eta *Facebook*- etik abiatuta

## 2) AEZLE-ATHCA--ren DISKURTSO POLITIKOAREN ANALISIA

Aztertutako denbora tartean, AEZLEk hurrengo aldarrikapen nahiz proposamen zehatzei eutsi die, besteak beste:

- ***LANEren 189. Hitzarmena berresteko eskakizuna***, etxeko langileei lan- eta gizarte-eskubideak bermatzen dizkiena.

Irudia 12: Etxeko langileen eskubideak errespetatu: kartela




Iturria: AEZLE *Facebook* (2021)

- ***Etxeko eta zaintzako langileentzako tokiko hitzarmena*** aldarrikatzen dute.

- ***Zaintza-sistema publiko baten defents***a: "#ZaintzaSistemaPublikoaOrain", "#DerechoColectivoAlCuidado", "#PribatizaziorikEz".

- ***Prekarietatea, kaleratzeak eta lan-eskubideen urraket****a* ikusarazten dituzte.

- 2023ko azaroaren 30eko greba feminista orokorrari babes aktiboa ematea, etxeko sektorearen argudio espezifikoekin.

Irudia 13: Greba feminista orokorrera joateko arrazoiak



GREBA FEMINISTA OROKORRA 30

**¿POR QUÉ LAS TRABAJADORAS DE HOGAR Y DE CUIDADOS VAMOS A LA HUELGA FEMINISTA GENERAL DE EUSKAL HERRIA?**

• **Vamos a la huelga** porque merecemos tener todos los derechos y que se respeten. **Porque el régimen interno deje de existir** y se deje de cuidar en las condiciones en que se cuida. Porque se nos vulneran derechos sistemáticamente y **porque vivimos abusos constantes.**

• **Porque se acabe con la ley de extranjería** y "no tener papeles" deje de ser condición y excusa para los abusos, las violencias y la explotación constante.

• **Vamos a la huelga por todo lo que hemos pasado, por lo que han pasado otras antes, y para que no siga pasando más.** Por mejores condiciones, para que las que llegan se encuentren con algo mejor.

• **Vamos a la huelga por las que no podrán hacer huelga,** amenazadas por un despido o porque no pueden dejar de cuidar si nadie las sustituye. Porque queremos visibilizar lo que pasa dentro de las casas, y que se controlen las condiciones en las que trabajamos y vivimos.

• **Vamos a la huelga** porque este Sistema capitalista, machista, racista y colonial quiere invisibilizar los cuidados y a las cuidadoras, aprovechándose de toda nuestra fuerza de trabajo. **Porque urge pasar de un régimen de cuidado privado, mercantilizado, feminizado y racializado a un sistema público y comunitario que garantice el derecho al cuidado para todas las personas,** no solo para quien lo pueda pagar y a costa de los trabajos, cuerpos y vidas de mujeres como nosotras.

• **Vamos a la huelga** porque los cuidados no son solo responsabilidad nuestra. **Por nuestro derecho a ser cuidadas, cuidar a quienes realmente queremos cuidar** y por el derecho a nuestra salud.

• **Vamos a la huelga porque, a pesar de que el derecho a huelga no se respeta en nuestro sector, otros derechos tampoco y los reivindicamos...** Y porque esta no es una huelga "al uso", hay muchas formas y momentos para estar, participar y hacernos oír. No las vamos a desaprovechar, no les vamos a dar el gusto.

• **¡Vamos a la huelga por la derogación de la Ley de Extranjería, por la regularización de todas las trabajadoras de cuidados, por la erradicación del régimen interno del empleo de hogar, para exigir el derecho al empadronamiento y el acceso a la vivienda para todas las personas, para que se nos incluya en el Régimen General del trabajo, para que se mejoren las condiciones laborales de las trabajadoras de cuidados y porque se establezca para nosotras un sueldo por encima del salario mínimo!**

• **VAMOS A LA HUELGA FEMINISTA GENERAL, PORQUE ESTA HUELGA TAMBIÉN ES NUESTRA...** Porque nuestra presencia y participación como sujetas políticas con experiencias, saberes y aprendizajes colectivos tiene una gran potencia que enriquece y hace mejor a este proceso.

Iturria: AEZLE *Facebook* (2023)

Irudia 14: Manifestazioa AEZLE




Iturria: AEZLE *Facebook* (2024)

- ***Zaintza-lanari, bizikidetzari eta egiturazko arrazakeriari*** buruzko eztabaida publikoetan parte hartzea (Gasteiz Lotura ekitaldia).
- Hitzaldiak data nagusietan: martxoak 30 (Etxeko Langileen Nazioarteko Eguna), 8M, greba orokorra.

Irudia 15: Paperak denontzat, AEZLE kartela




Iturria: AEZLE *Facebook* (2025)

- Hitzaldiak data nagusietan: martxoak 30 (Etxeko Langileen Nazioarteko Eguna), 8M, greba orokorra.

AEZLE – ATHCAren diskurtsoek, zaintza-kate globalak osatzen dituzten egitura-prozesuak sakon ulertzen dituztela erakusten dute, nahiz eta beti ez den termino horrekin adierazten. Bere argitalpenen bidez, etxeko eta zaintzako emakume langileen migrazio-ibilbideak, zaintza-kate globalen birbanaketa bidegabeak zeharkatzen dituela ikusarazten da.

Bere esku-hartze publiko askotan — hala nola martxoaren 8ko manifestuetan, martxoaren 30 inguruko argitalpenetan (Etxeko Langileen Nazioarteko Eguna) edo azaroaren 30eko greba feministan — adierazten da Estatuak erantzukizuna duela, prekarietate-egoeran dauden emakume migratzaileengan, hein handi batean kanporatutako eta pribatizatutako zaintza-sistema bat mantentzen duelako. Ildo horretan, elkarte honen diskurtsoak kritika politikoa artikulatzen du, sistema patriarkala ez ezik, dinamika horiek ahalbidetzen eta betikotzen dituzten migrazio-erregimenak, erregimen arrazistak eta neoliberalak ere barne hartzen dituena.

### 3) AEZLE-ATHCA-ren EKINTZA KOLEKTIBOKO ERREPERTORIOAK

AEZLE-ren kasuan hauek dira jaso diren ekintza kolektiboko errepertorioak:

- ***Autoantolaketa, ekintza kolektiboak eta koordinazio ekintzak***
    - Kontzentrazioak Andre Maria Zurian (azaroaren 6an, martxoaren 30ean, apirilaren 2an, etab.), lan-eskubideak eskatzeko.
    - Kaleko ekintzetarako pankartak taldean egitea.

Irudia 16: Erregimen orokorra Orain! Kartela prestatzen




Iturria: AEZLE *Facebook* (2023)

- 
    - Manifestazio feministetan eta besoko laranja bezalako bereizgarriak dituzten grebetan parte hartzea. (“*Utiliza el brazalete naranja si el día de la huelga estás obligada a trabajar”* lelopean)

Irudia 17: Martxoak 30, Etxeko eta zaintzako langileen nazioarteko eguna




Iturria: AEZLE *Facebook* (2025)

- Komunikatuak irakurtzea data sinbolikoetan eta ekitaldi publikoetan.
- Kultura-ekitaldietan ikuspegi politikoarekin parte hartzea (antzerkia, dantza, musika).

Irudia 18: AEZLE elkarretaratzea



Iturria: AEZLE *Facebook* (2025)

- ***Kontzientziazio nahiz formakuntza tailerrak eta prestakuntzak***
    - Emozioen kudeaketari eta adimen emozionalari buruzko tailerra.
    - Nutrizioari eta genero-aginduari buruzko tailerra.
    - Zainketa aringarriei buruzko sentsibilizazio ikastaroa.
    - Eten digitalari buruzko tailerra ("Konekta gaitezen elkarrekin")
    - Talde-aholkularitzak: "Zer egin kaleratzen banaute?" 2024ko soldatari buruzko aholkularitza.

Irudia 19: AEZLE *tailerrak*



Iturria: AEZLE *Facebook* (2024)

- ***Barne-bilerak eta zaintza kolektiboak***
  - Urte amaierako batzarra, elkarbizitzaz
  - Urteko lehen batzarra proiektuekin eta helburuekin
  - Emakumezko langileen topaketa antzerkiarekin, bazkariarekin, eztabaidekin eta tailerrekin
  - Euskal Herriko etxeko langileen topaketa

Irudia 20: AEZLE urte amaierako asanblada




Iturria: AEZLE *Facebook*

- ***Ikusarazteko eta sentsibilizaziorako komunikazioa nahiz hedapenerako ekintzak***
  - Radio Vitoria, EITB bezalako komunikabideetan parte hartzea.
  - Erreportajeak eta dokumentalak zabaltzea, sektoreko ustiapenari buruzkoa.
  - Sare sozialen erabilera aktiboa deialdietarako, salaketetarako eta sentsibilizaziorako.

Irudia 21: AEZLE Maiatzak 30, Etxeko langileen Nazioarteko Eguna, kartela




Iturria: AEZLE *Facebook* (2025)

AEZLE – ATHCAk ekintza kolektiboko errepertorio zabala garatzen du, non zaintza-kate globalak egunerokotasunetik eta prestakuntzatik zein mobilizazio politikotik eta autoantolaketatik jorratzen diren.

Manifestazioak, bereziki M8, azaroaren 30a (Greba Feminista Orokorra) eta martxoaren 30a bezalako data garrantzitsuetan, non bizitzaren jasangarritasunean, etxeko langileen eta zaintzaren zentraltasuna ikusarazten duten. Mobilizazio horietan, emakume langile migratzaileen egiturazko desberdintasuna salatzen da, eta tokikoa globalarekin lotzen da, zaintza-sistemaren berrantolaketa sakona eskatzen baita.

Kaleratzeei edo soldatei buruzko aholkularitza kolektiboak, historikoki Gizarte Segurantzaren araubide orokorretik kanpo egon den sektore batean, elkar laguntzeko eta eskubideak defendatzeko praktikak dira. Jarduera horiek, emakume migratzaileen ikusezintasun- eta babesgabetasun-katea apurtzeko joera duen esparru politiko batean txertatuta daude.

Emakumezko langileen esperientzietatik abiatuta sortutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-tailerrak, ahalduntzea eta prestakuntza kritikoa sustatzen dute. Espazio horiek jakintza kokatuak sortzen dituzte, askotan politika publikoek alde batera uzten dituztenak, eta emakume migratzaileei zaintza-sisteman duten lekua izendatzeko eta narratiba propioak eraikitzeko aukera ematen diete.

Emakume feministen kolektiboen arteko topaketek, agerian uzten dute borroka feministen eta migratzaileen arteko aliantzak ehuntzeko ahalegina. Aliantza horiek funtsezkoak dira ikusteko zaintza-kate globalak ez direla kategoria analitiko bat soilik, baizik eta bizi izandako errealitate bat ere badela, artikulazio politikoaren ardatz bihur daitekeena.

Oro har, AEZLE – ATHCAren ekintzek dimentsio materialak eta sinbolikoak konbinatzen dituzte: alde batetik, lan-eskubideak eskatzea eta lege-aitorpena; bestetik, zaintza-lanaren inguruan zentzu eta subjektibotasun berriak sortzea, ikuspegi kritiko, feminista eta arrazakeriaren aurkakoa kontuan hartuta.

## 4.2. ELKARTEEN DISKURTSO POLITIKOAREN ETA EKINTZA KOLEKTIBOKO ERREPERTORIOEN INTERPRETAZIO BATERATUA.

Analisiaren bigarren atal honetan, jasotako emaitzen interpretazio kritikoa egiten da, aurreko atalean analisi-tauletan sistematizatutako informazioa oinarri hartuta. Loturak ezarri dira kolektibo bakoitzean identifikatutako aldarrikapen, proposamen eta ekintzen artean. Eta diskurtsoen aldarrikapen amankomunak bilatu dira.

Emaitzen aurkezpena eta azterketa hiru atal nagusitan egituratu dira, berriz ere ikerketaren helburu espezifikoekin bat etorriz. Horietako bakoitzak EAEko emakume migratzaile feministen kolektiboen diskurtso politikoaren eta antolaketa-praktiken irakurketa integrala ahalbidetzen du.

Lehenengo azpiatala diskurtso politikoan oinarritu da, kolektiboek egindako proposamenak eta aldarrikapenak jorratuz. Ardatz horri esker, beren posizionamendu politikoaren elementu nagusiak identifikatu ahal izan dira, baita zaintza-lanaren inguruan eraikitako narratibak eta erakundeen eta gizartearen aurrean egituratzen dituzten eskaerak ere.

Bigarren azpiatalean, ekintza politiko zehatzak aztertu dira, talde horiek zabaldutako ekintza kolektiboko errepertorioa aztertuz. Ikuspegi horri esker, aztertu ahal izan dira mobilizazio-estrategiak, antolaketa kolektiborako moduak, eraikitako aliantzak eta kolektiboek eremu politikoan eta sozialean eragin nahi dituzten praktikak.

Hirugarren atal batean, zaintza-kate globalen gaiaren artikulazioa beren diskurtso nahiz ekintzetan nola artikulatzen duten aztertu da.

### 4.2.1 Diskurtso Politikoa: Proposamenak eta aldarrikapenak

Ikusi dugun bezala, aztertu diren emakume migratzaile feministen kolektiboek, hainbat eskaera eta proposamenen inguruan antolatu dituzte beren diskurtso politikoak. Etxeko eta zaintzako langileek jasaten duten prekarietatearen, esplotazioaren eta egiturazko diskriminazioaren aurkako borrokak islatzen dituztenak. Eskaera horiek, lan-baldintzetan berehalako hobekuntzak ez ezik, zaintza-sistemaren eta langile migratzaileei eragiten dien gizarte-politikaren erabateko eraldaketa ere bilatzen dute. Hurrengo lerroetan euren diskurtso politikoaren parte egiten duten aldarrikapenerako alor nagusiak identifikatzen ditugu:

**1.** ***Lan eskubideen bermea***

Kolektibo horien eskaera nagusietako bat etxeko eta zaintzako langileen lan-eskubideak erabat aitortzea da. Besteak beste:

- Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean erabateko sarbidea; langabezia, pentsioak eta laneko bajak bezalako prestazioetarako sarbidea bermatuz.
- Kaleratzeagatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, batez ere langile migratzaileentzat, sarritan legezko justifikazio egokirik gabe kaleratzen baitituzte.
- Lan-baldintza duinak: soldata bidezkoak, kontratu formalak eta legediak babestutako lan-eskubideak eskuratzea.

Honen inguruan, elkarrizketatutako aritu-adituak zera gaineratzen du:

> “Derecho para todas con o sin papeles, esto es una que se mantiene, es algo como a machacar todas porque es de las cuestiones con mayor vulnerabilidad y violencia, y toda precariedad de las mujeres por no tener papeles y es de las mayores cosas que, dificultades que enfrentan, y luego lo del paro, la ley de extranjería, es decir que hay como algunos planteamientos como bastante cercanos, y yo creo que ambos grupos, ambas vertientes lo luchan” (AE)

Etxeko eta zaintzako langileak lan-eskubideen sistema orokorrean integratuko dituen lege-esparru bat sortzea proposatzen dute, haien ikusezintasuna eta ustiapena iraunarazi duen "aparteko langileen" kategoriarekin amaituz.

### *2. Zaintza lana desmerkantilizatu eta aintzatestea*

Zaintza-lanak, batez ere emakume migratzaileek egiten dutena, azpibaloratua izaten jarraitzen du, eta emakumezko langileak prekarizatzen dituen merkatu-logika bati lotzen zaio. Kolektiboek zaintza-lanaren merkantilizazioa salatzen dute eta desmerkantilizazioa eskatzen dute.

- Zaintza-lana bizitzarako funtsezko jarduera gisa onartzea, eta ez jarduera ekonomiko gisa bakarrik.
- Lan hori balioestea eta bidezko ordainsaria ematea, bizitzaren jasangarritasunari eta, oro har, ekonomiari egiten dion ekarpena kontuan hartuta.

Zaintza publiko eta kolektiboko sistema bat garatzea proposatzen dute. Zerga progresiboen bidez finantzatua, emakume langileen prekarizazioaren mende egongo ez dena. Zaintza lana behar bezala aintzatetsi, lagundu eta ordainduko dela bermatuko duena proposatzen dute.

### *3. Erreparazio historikoa eta justizia soziala*

Kolektiboek ere erreparazio historikoa eskatzen dute langile migratzaileentzat, batez ere kolonizatutako testuinguruetatik datozenentzat. Etxeko langileen egiturazko arrazakeriak eta arraza-diskriminazioak sustrai sakonak dituzte kolonialismoan eta migrazio-politika baztertzaileetan.

- Langile migratzaile guztiak baldintzarik gabe erregularizatzea, haien administrazio-egoera edozein dela ere.
- Osasun-, etxebizitza- eta hezkuntza-zerbitzuak eskuratzea diskriminaziorik gabe, migrazio-estatusa edozein dela ere.

Langile migratzaileak gizartean erabat integratzea sustatuko duten politika publikoak ezartzea proposatzen dute, haien marjinalizazioa betikotzen duten oztopo legal eta ekonomikoak kenduz.

### *4. Autonomia politikoa eta autoantolaketa*

Kolektiboek langile migratzaileen ahalduntzea eta autoantolaketa defendatzen dute, uste baitute beren autonomia politikoaren bidez defendatu ahal izango dituztela beren eskubideak eta beren borrokak ikusarazi.

- Langileen antolamendu-egiturak indartzea, emakume migratzaileek beren lan-baldintzei eragiten dieten politika publikoak sortzean hitza dutela ziurtatuz.
- Zaintza-lanaren baldintzak hobetzeko konponbideak diseinatzen aktiboki parte hartzea.

Autoantolaketa politiko eta sindikalerako espazioak sortzea, langile migratzaileen elkarte eta sindikatuen prestakuntza babestuz, haien interesak ordezka ditzaten eta haien eskaerak ikusarazi ditzaten.

Mugimendu feministaren barruko tentsioak, norgehiagoka politiko kolektiboko uneetan ez ezik, historikoki mugimenduan zentraltasun-posizioak izan dituztenen plano intimo eta pertsonalenetan ere agertzen dira. Elkarrizketatuak ibilbide luzea egin du bideratzaile gisa, eta bere esperientziatik bertatik adierazi du:

> "Ha pasado un poco como con los hombres, no igual ni mucho menos —jamás compararía una compañera feminista con esto —, pero me refiero a que no es tan fácil. A mí, por ejemplo, hablo de mí, también con el papel de facilitadora durante tantos años, ¿verdad? Eso de dejar, de quedarme atrás y que otra lo haga... uff, cómo cuesta..." (AE)

Hausnarketa horrek erronka haundi bat mahaigaineratzen du: lekua uztea, desikastea eta erabilitako boterea berraztertzea, baita eraldatzailetzat jotzen diren espazioen barruan ere. Elkarrizketatuak honako honekin jarraitzen du:

> "Entonces yo pienso que entiendo que las compañeras, ellas imagino que plantean cosas mucho más profundas, ¿verdad? Manejo de poder, la revisión del privilegio y todo... pero me parece que es importante mantener como esos espacios separados, situados..." (AE)

Aipu horri esker, gogoeta kritikora bultzatzen du, espazio bereizien eta kokatuen beharraren inguruan, eta nola aliantza ezin den eraiki enuntziazio-lekuaren eta gune feministetan ere irauten duten botere- eta pribilegio-mekanismoen berrikuspen kontziente bat ez bada ematen.

### *5. Arrazakeria instituzionalaren eta xenofobiaren aurkako borroka*

Arrazakeria instituzionala eta xenofobia langile migratzaileek lan-eremuan dituzten arazo nagusiak dira. Kolektibo hauek etxeko nahiz zaintzako langileen diskriminazioa eta esplotazioa betikotzen dituzten migrazio-politikak badaudela salatzen dute.

- Atzerritartasun Legea eta langile migratzaileak diskriminatzen dituzten beste araudi batzuk ezabatzea.
- Arrazakeriaren aurkako politika publikoak sustatzea, xenofobiari enpleguan aurre egiten diotenak, emakume langile guztientzat berdintasunezko tratua bermatuz, jatorria edozein dela ere.

Migrazio-politikak erreformatzea, langile migratzaile guztientzat erregularizazio automatikoa eta baldintzarik gabea bermatzeko, eta lan-eskubideen sisteman erabat sartzen direla bermatzeko.

Elkarrizketatuak azpimarratzen duen bezala, emakume migratzaile feministen kolektibo ezberdinen eskaerak funtsezko puntu batzuetan elkartzen dira, bereziki lan duinerako eta erregularizaziorako eskubidearen inguruan , "una gran apuesta por todo lo que es la LEY DE EXTRAJERÍA, todo lo que ha sido recoger firmas, para lograr votar esta ley tan racista y machista, y etc." (AE), eta, hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala, egiturazko arrazakeria:

> "Luego que tienen también esa mirada de realmente ir a las políticas públicas que generan toda la crítica toda la estructura racista a todos los niveles, pero también del racismo social que le llaman verdad? (...) Racismo que se mete en las vidas continuamente de las mujeres, y que lo sabemos." (AE)

### *6. Feminismo dekoloniala eta zaintza-lanaren arrazakeriaren kritika*

Kolektiboek ikuspegi feminista dekoloniala oinarri gisa hartzen dute, zaintza-lana nola arrazializatu den eta emakume migratzaileek beren arraza, klase eta generoagatik zapalkuntza mota ugari jasaten dituztela kritikatzen duena.

- Emakume arrazializatuen ikusgarritasuna zaintza-lanari buruzko diskurtsoetan, historikoki zaintza-lanari buruzko elkarrizketa esparru politiko eta sozialetatik kanpo utzi baitituzte.
- Lan- eta gizarte-politiketan intersekzionalitatea aitortzea, langile migratzaileek aurre egin behar dieten zapalkuntza-modu ugariak aitor daitezen.

> "Entonces yo pienso que ellas también luego plantean que el cuidado ahora del feminismo blanco de dar lugar a otros feminismos, y de dejar estar en el centro y ser capaces de ir a otros discursos y por eso piden que el cuidado de algunas iniciativas debería pasar por la vida de las mujeres que están realmente también más migradas verdad, con sus propios procesos, con sus propios ritmos y que pues las mujeres feministas blancas pues tengan esa capacidad , de como nos esta tocando a otras de ir a otro lugar, verdad?" (AE)

Elkarrizketatuak azpimarratzen du: garrantzitsua dela metodologia argiak eraikitzea, herri-pedagogian, eta hegoaldeko feminismoen jakintzetan oinarrituta.

> "Yo creo mucho en la rama de la pedagogía... educación popular de Freire, luego de compañeras de Abya Yala, otras que han aportado a toda esta metodología participativa y de conciencia política. Tienen que haber acuerdos y metodologías claras… el uso de los tiempos, de la palabra, de qué vas a priorizar, sobre qué temas… Yo sí creo en la alianza, pero hay compañeras que todavía no lo ven." (AE)

Hausnarketa horrek erakusten du antolakuntza-prozesuak berak tresna pedagogikoak behar dituela parte-hartze kontzientea, ekitatiboa eta kolektiboa bultzatzeko, egiturazko desberdintasunek eta askotariko ibilbideek markatutako testuinguruetan.

Politika publikoetan ikuspegi intersekzionala garatzea, zaintzaren sektorean emakume migratzaileen eta arrazializatuen berezitasunak aitortuko dituena, eta arraza-diskriminazioaren, matxismoaren eta esplotazio ekonomikoaren aurka borrokatzeko neurri espezifikoak sustatuko dituena, proposatzen dute.

Laburbilduz, emakume migratzaile feministen kolektiboen diskurtso politikoen azterketak agerian uzten du justizia sozialaren eskaeren eta egiturazko aldaketaren proposamenen arteko artikulazio argia. Kolektibo horiek etxeko eta zaintzako langileen berehalako lan-baldintzak hobetzeaz gain, zaintza-sistema, justizia soziala eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka sakonki eraldatu behar direla ere defendatzen dute. Proposamenek barne hartzen dute zaintza publiko eta kolektiboko sistema bat eraikitzea, emakumezko langile migratzaileen erregularizazioa eta emakumezko langileen ahalduntze politikoa; aldiz, eskaerak erreparazio historikotik hasi eta arraza-diskriminazioa eta lan-esplotazioa ezabatzeraino iristen dira.

### 4.2.2 Ekintza konkretuak: Ekintza Kolektiboko Errepertorioak.

Emakume migratzaile feministen kolektiboek, hala nola ATH-ELEk, Bidez Bidek eta AEZLE - ATHCAk, hainbat ekintza politiko garatu dituzte bidegabekeriak ikusarazteko eta legedian eta gizarte- eta lan-praktiketan aldaketak eragiteko. Ekintza horiek funtsezkoak dira beren aldarrikapen eta proposamenak aurrera eramateko, eta askotariko estrategiak erabiltzen dituzte, hala nola komunitatearen antolaketa, aktibismo digitala, kaleko mobilizazioak eta erakundeen presioa.

***1. Ikusarazteko eta sentsibilizatzeko ekintzak***

Kolektiboen estrategia nagusietako bat etxeko eta zaintzako langileen egoera ikusaraztea da, bereziki langile migratzaileena, historikoki ikusezin bihurtu baitira eta eztabaida publikotik kanpo utzi baitira.

- *Sentsibilizazio-kanpainak komunikabideetan*: Erakundeek kanpainak egiten dituzte komunikabideetan, sare sozialetan eta beste plataforma digital batzuetan, etxeko eta zaintzako langileen esplotazioa eta prekarietatea ezagutarazteko, gizarte-ongizatean eta ekonomian egiten dituzten ekarpenak nabarmenduz.

- *Ekitaldi publikoak,* hala nola mahai-inguruak, foroak eta informazio-hitzaldiak etxeko eta zaintzako langileen egoerari buruz, kolektiboek beraiek antolatuta edo beste erakunde feminista eta giza eskubideen aldeko erakunde batzuekin lankidetzan.

- *Txostenak eta azterlanak argitaratzea:* Kolektiboek langile migratzaileen egoerari buruzko txostenak ere argitaratzen dituzte, abusu eta ustiapen kasuak dokumentatuz, emakume langileen testigantzetan oinarrituta.

Ekintza hauen bitartez, zaintza-lanaren eta bere garrantzi ekonomiko eta sozialaren gaineko kontzientzia publikoa sortu nahi dute, arrazakeriak eta xenofobiak emakume migratzaileen lan baldintzak nola larriagotzen dituzten erakutsiz.

***2. Mobilizazioak eta protestak***

Mobilizazioak eta protestak dira emakume migratzaile feministen kolektiboen estrategiaren beste ardatz nagusietako bat. Mobilizazio horien bidez, presioa egin nahi zaie erakunde politikoei eta gobernuei, etxeko eta zaintzako langileen lan-eskubideak bermatuko dituzten neurriak har ditzaten.

- *Manifestazioak kalean*: Kolektiboek protestak eta kontzentrazioak antolatzen dituzte gune publikoetan, langile migratzaileen erregularizazioa eskatzeko, haien lan-eskubideak aitortzeko eta LANEren 189. Hitzarmena berresteko, etxeko lanaren sektoreko lan-baldintzak hobetzeko.

- *Egun garrantzitsuen inguruko mobilizazioak:* Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna edo Langileen Nazioarteko Eguna bezalako egunetan, taldeek elkarretaratze

jendetsuak deitu dituzte etxeko eta zaintzako langileen borroka ikusarazteko, lan eta gizarte arloan dituzten aldarrikapenak nabarmenduz.

- *Protestak erakunde publikoen aurrean:* Langileek, beren aliatuekin batera, protesta-ekintzak egiten dituzte Lan Ikuskaritzaren eta lan-legediaren ardura duten beste erakunde publiko batzuen bulegoen aurrean, lan-legeak modu eraginkorrean aplika daitezen eta langileen eskubideak errespeta daitezen eskatzeko.

Horien bitartez, lege-erreformak eskatzea, esplotazioa ikusaraztea eta langile migratzaileen eta mugimendu feministaren arteko elkartasun kolektiboa sustatu nahi dituzte.

***3. Ekintza juridikoak eta lege defentsako ekintzak***

Lege-eremuan, emakume migratzaile feministen kolektiboek hainbat ekintza egiten dituzte etxeko eta zaintzako langileen lan-eskubideak defendatzeko, eta bide judiziala erabiltzen dute haien eskubideen babesean aurrerapausoak lortzeko.

- *Salaketa judizialak:* Kolektiboek etxeko langileei babesa ematen diete lan-gehiegikeriagatik salaketak aurkezteko, hala nola justifikatu gabeko kaleratzeak, soldatak ez ordaintzea eta lan-baldintza prekarioak.

- *Doako lege-aholkularitza:* Lege-aholkularitzak eta laguntza juridikoa eskaintzen dira, langileek beren eskubideak ezagutu ditzaten eta jasaten dituzten esplotazio- edo diskriminazio-egoeren aurkako lege-ekintzak har ditzaten.
- *Prestazio sozialak eskuratzearen aldeko ekintza legalak:* Auzitegietan demandak jarri dira etxeko langileei prestazio sozialen sisteman sartzeko eskatzeko, hala nola langabezia edo pentsioak, babes sozial osoa bermatzeko.

Horrela, etxeko eta zaintzako langileen eskubide indibidualak defendatu, eta lan-eskubideak urratzen diren egoeretan justiziara iristeko borroka egiten dute.

***4. Koordinazio Ekintzak eta Aliantza Estrategikoak***

Emakume migratzaile feministen kolektiboek tokiko zein nazioarteko beste mugimendu eta erakunde batzuekin koordinazio- eta aliantza-ekintzak ere garatzen dituzte, haien borroka indartzeko eta haien eskaeretan eragin handiagoa lortzeko.

- *Aliantzak beste mugimendu feminista batzuekin*: Kolektiboek sarean lan egiten dute emakumeen eskubideen alde borrokatzen duten beste mugimendu feminista batzuekin, batez ere ugalketa-lanari, zaintza-lanari eta justizia sozialari dagokienez.

- *Nazioarteko elkartasun-sareak*: Munduko beste leku batzuetan etxeko eta zaintzako langileen eskubideen alde borrokatzen duten beste kolektibo batzuekiko nazioarteko elkartasun-sareetan ere parte hartzen dute, trukerako eta elkarri laguntzeko espazioak sortuz.
- *Erakunde akademikoekin eta ikerketa-erakundeekin lankidetzan aritzea:* Kolektiboak ere lankidetzan aritzen dira akademikoekin eta ikerketa-zentroekin, emakume migratzaileen lan-baldintzak ikusarazteko eta lege-aldaketak sustatzeko txostenak eta azterlanak egiteko.

Helburu gisa, elkartasun-mugimendu transnazional bat sortzea eta kolektiboaren antolaketa-gaitasunak indartzea dute, beren eskaeren eragina areagotzeko asmoz.

***5. Hezkuntza- eta prestakuntza-ekintzak***

Kolektiboen lanaren funtsezko zati bat etxeko eta zaintzako langileen hezkuntza eta prestakuntza da, haien lan- eta gizarte-eskubideak ulertu eta defenda ditzaten.

- *Lan-eskubideei buruzko prestakuntza:* Kolektiboek tailerrak eta prestakuntza-ikastaroak antolatzen dituzte etxeko langileentzat. Bertan, beren lan-eskubideei, horiek babesten dituzten legeei eta beren interesak defendatzeko nola antola daitezkeen prestatzen diete.
- *Lidergoan eta ahalduntzean oinarritutako prestakuntza:* Prestakuntza juridikoaz gain, lidergoan eta ahalduntzean trebatzea eskaintzen dute, langileek beren borroka- eta ikusarazte-prozesuan ekimena har dezaten.

> “Porque venimos muy marcadas por toda la precariedad pero también por los modelos neoliberales y individualistas allá, creerán que vengamos con conciencia pero no, la gran mayoría de las compañeras viene con visiones de derechas, con una vida pensando en trabajos, muchas aquí vienen a despertar , y ellas nos lo dicen , ¿ verdad ?. Vieron sus vidas tan llenas de trabajos de responsabilidad... que hoy tuvieron tiempo porque eso es también lo que sana, que tenemos que invertir tiempo en talleres en diálogos en contarnos cosas, arte, en la sanación que te decía” (AE)

Beraz, emakume migratzaile feministen kolektiboen ekintza politikoak askotarikoak dira, eta elkarren osagarri dira etxeko langileen eta zaintza langileen lan-baldintzak nabarmen aldatzeko. Mobilizazio publikoen, lege-ekintzen, prestakuntzaren eta aliantza estrategikoen bidez, kolektibo hauek langile migratzaileentzako ingurune duin eta bidezkoagoa sortzen laguntzen dihardute.

### 4.2.3 Zaintza-kate globalen gaia diskurtso eta ekintzetan

Aldez aurretik esan dugun bezala, *zaintza-kate globalak* terminoa ez da beti modu esplizituan azaltzen ATH-ELE, Bidez Bide eta AEZLE-ATHCAren diskurtsoetan. Baina haien aldarrikapenetan nahiz ekintzetan, emakume migratzaileen eguneroko esperientziei erantzuten diete.

*Zaintza-kate globalak* terminoa, espazio akademikoetan garatutako kategoria teoriko bat da, eta EAEko emakume migratzaile feministen kolektiboek ez dute orokorki beren diskurtsoetan eta aldarrietan baliatzen. Elkarteek beren jakintzetatik nahiz bizipenetatik abiatuta, kontzeptua baliatzen ez badute ere, terminoak deskribatu nahi dituen dinamika berdinak politizatzen eta salatzen dituzte. Beren erara, prekarietatean, indarkeria instituzionalean, migrazio-espazioetan eta zaintza-sistemaren egiturazko eraldaketaren beharrean oinarrituta, errealitate guzti horiek ikusarazten eta salatzen dihardute.

Kolektibo hauek argi salatzen dute etxeko nahiz zaintzako langileen bizitzak egitura global batek zeharkatzen dituela, eta egitura honek hego globaleko emakumeak beren herrialdetatik kanpoko testuinguruetan zaintzeko, migratzera bultzatzen dituela. Kasu askotan beren familiak arretarik gabe utziz.

Elkarte hauek ere salatzen dute zaintza-sistemaren antolaketa globalak emakume migratzaileengan duen eragina, eta beraz, hauek eragiteko duten gaitasuna eta erantzukizuna mahagaineratzen dute. Euren diskurtsoak agerian uzten du zaintza-lanak ez direla soilik bizitzaren sostengu nahiz jasangarritasunerako funtsezkoak. Baizik eta, botere-harreman kapitalista eta kolonialen baitan eraikitako egiturak mantentzeko giltzarri.

Alde batetik, ATH-ELE elkarteak Gizarte Segurantzaren sistemaren eskakizun nahiz gehiegikerien salaketa publikoen, bai eta lan-eskubideen aldeko manifestazio eta kanpainen bitartez artikulatzen du fenomeno global hau.

Bidez Bidek migrazio ibilbideetan, migrazio esperientzietan, deserrotzeetan eta nazioz gaindiko zaintzaren eragin emozionala agerian uzten duten dokumental, tailer eta proiektuen bitartez, sentsibilizazioan jartzen du arreta handia.

AEZLE-ATHCAk bestalde, bere salaketa emakume migratzaileen saretze eta komunitatea sortzearekin lotzen du, autoantolaketa, prestakuntza emozionala eta politikoa sustatuz.

Oro har, kolektibo hauek agerian uzten dute *zaintza-kate globalen* fenomenoa presente dagoela haien aldarrikapenetan, salaketetan eta praktiketan. Fenomeno hau ikusgarri egiteaz gain, politizatu eta eraldatu egiten dute. Izan ere, narratiba hegemonikoen aurrean, jakintza kokatuak, aliantza feministak eta elkarbizitza sustatzeko alternatibak eraikitzen dituzte. Hala, zaintza-kate globalak borroka politikoen eta eraldaketa sozialaren erdigunean kokatzen dira.

## 5. ONDORIOAK: Borrokaz jositako zauriak: gorputzak, zaintzak eta erresistentziak.

Master amaierako lan honen helburu nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko emakume migratzaile feministen kolektiboek garatu dituzten diskurtso politiko eta ekintza kolektiboko errepertorioak, zaintza-kate globalen testuinguruan ezagutu eta aztertzea izan da.

Ikerketa prozesuan barrena, kolektibo hauen diskurtso nahiz ekintzek lan baldintzen hobekuntzen eskaera gainditzen dutela argi geratu da. Zaintzaren gaia justizia sozialaren ardatz nagusi gisa kokatzen dute. Beren aldarrikapenetan, zaintza lana gizartearen antolaketaren egiturazko dimentsio gisa, eta beraz, gatazka-gune gisa azaltzen da. Baina baita proposamen-gune gisa. Hori horrela, emakume migratzaile feministen elkarte/ kolektiboak, jasaten dituzten indarkeria eta esplotazioaren aurrean, beren esperientziak politizatzen dituzten eta zaintza-sistema bera egituratzen duten prekarietatea, ikusezintasuna eta arrazakeria salatzen dituzten eragile aktiboak dira.

Kolektibo hauek erresistentziarako eta alternatibak eraikitzeko estrategiak hedatzen dituzte, mota askotako ekintza errepertorioen bitartez. Ekintza hauek, komunitatea, sareak eta elkarrekikotasunean oinarritzen diren bestelako antolaketa moduak eraikitzen dituzte.

Analisian zehar, feminismo hegemonikoaren sektore jakin batzuekiko tentsioak ere agerian jarri dira. Batik bat, ordezkaritza-guneei, barne-hierarkiek eta emakume migratzaileak subjektu politiko gisa benetan onartzeari dagokionez. Tentsio hauek, feminista, intersekzionala, kokatua eta dekoloniala izango den ikuspegi batetik eraikitzen jarraitzeko beharra agerian uzten dute. Migratutako gorputz eta bizitzak zeharkatzen dituzten zapalkuntza nahiz desberdintasun anitzak onartuko dituena.

Beste elkarte/ mugimendu sozial edo feminista batzuekin alderatuz, aztertu diren kolektiboen ekintza kolektiboko errepertorioek, euren bizitzak zeharkatzen dituzten egiturazko indarkerien aurrean salaketa eta borroka sakonak azaleratzen dituzte. Elkarte hauek, ikusgarritasun politikoak, ekintza komunitarioa eta eguneroko ekintzak uztartzen dituzten estrategiak garatzen dituzte.

Errepertorio hauetan bereziki azpimarratzekoa da autozainketarako eta formakuntzarako espazioei ematen dieten garrantzia. Ekintza hauek euren borroken osagai integrala dira, subjektu politiko gisa indartzeko eta zaintza-sistemaren egiturazko aldaketaren aldarrikapena praktika politikotik eraikitzeko tresnak. Autozaintzaren eta jakintza kolektiboen transmisioak, beste mugimendu batzuen praktikekin alderatuta egiten ditu berezi elkarte hauek.

Eta argi uzten dute, eraldaketa sozialaren prozesuak ez direla soilik kanpora begira bideratutako aldarriak, baizik eta barrura begirako eta komunitatearekiko eraikitzen diren prozesu iraunkorrak dira.

Errepertorio hauen oinarrian gainera, sistema kapitalista hetero-patriarkalaren diskurtso hegemonikoak ikuspegi kritiko eta dekolonial batetik zeharkatzen dituen begirada bat dago. Hori horrela, errepertorio hauen xede nagusia ez da soilik eskubideak aitortzea, baizik eta lana, zaintza eta bizitza duina definitzen duten esparruak errotik aldatzea. Gorputzak erdigunean jartzea, memoria migratzailea, prekarietatea egiturazko indarkeria gisa salatzea, eta komunikatzeko tresna propioak baliatzea –sareetatik hasi eta kolektiboki ekoitzitako ikus-entzunezkoetaraino- errepertorio propio, kokatu, intersekzional eta sakonetik eraldatzailea eratzen duten elementuak barnebiltzen dituzte.

*“ Porque al final, ¿quién no está herida, verdad?”*

Memoriaz, gorputzez eta borrokaz beteriko oihartzun kolektibo bati erantzuten dio galdera honek. Emakume migratzaileen bizitzak eta lanak ardatz hartuta, mina, samurtasuna eta kontzientzia politikoa biltzen ditu.

Esplotazioan, arrazializazioan eta beren lanak ikusezin bihurtzean oinarritzen den sistema honek eragindako zauriak. Ezberdintasunek, deserrotzeak, eta aitorpen nahiz duintasunaren aldeko etengabeko borroken ibilbideak eragindako urradurak, zauri emozionalak bakardadeak edota dolu migratzaileak sortuak... Egiturazko zauriak, arrazakeriak, patriarkatuak eta prekarietateak eragindakoak. Zauri historikoak, kolonialismoaren pisua daramatenak. Edota egunerokotasunak eragindakoak, aintzat hartzen ez diren eguneroko lan horien isiltasunean sortutakoak, iristen ez diren eskubide edota paperek eragindakoak, erakundeen mespretxuzko jarreretan pilatzen direnak.

Baina galdera honek ere, zauri horien baitan loratzen hasten diren erresistentzia formak islatzen ditu; argi izpiak sartzea ahalbidetzen duten arrakalak, zeinetan harremantze kolektiboak, mina eragiten duen hori eraldatu eta zaurgarritasunetik, bestelako etorkizun batzuk amestu eta eraikitzeko aukera sortzen duten espazioak eraikitzen diren.

Bertatik abiatu da lan hau, hori izan da behintzat saiakera. Indibidualak ez ezik, egiturazkoak diren zauri horietatik, generoak, arrazak, klaseak eta kolonialtasunak zeharkatzen dituzten gorputzetatik; eta horien guztien elkarguneetan loratzen diren diskurtso eta praktika politikoetatik.

EAEko emakume migratzaile feministen kolektiboen diskurtso politiko nahiz ekintza kolektiboko errepertorioak aztertuz, master amaierako lan honek, garatu dituzten salaketa nahiz ikusarazte moduak ez ezik, zaintza-sistema behetik, ertzetatik, gorputzetatik eta bizitako esperientzetatik eradaltzeko egin diren apustuak ezagutu eta ulertu nahi izan ditu.

Eta bertatik, mina eta zauria den horretatik, beste mundu batzuk eraikitzen ari direla ozen eta argi adierazi.

*Ondorio epistemologikoak:*

Metodologian azaldu den bezala, kolektibo hauek ikerketa-prozesuan zuzenean ez parte hartzea erabaki izanak aukera eman du ikerketaren mugei buruz gogoeta egiteko. Ezagutza sortzeko moduei buruzko begirada kritikoan sakontzeko aukera eman du, ikertutako subjektuen denbora, espazio eta erabaki politikoak errespetatzea lehenesten duen ikerketa moduekiko konpromisoa indartuz.

Azken batean, ikerketa honek emakume migratzaileak pentsamendu kritikoaren sortzaile gisa aintzat hartuko dituen espazio bat eraikitzen lagundu nahi izan du. Beren aktibismoak eta borrokak zaintza-sistema eta horri eusten dioten egiturak birpentsatzeko aukera ematen dute.

Lan honek, beraz, ekarpen akademikoa izateaz gain, entzute eta posizionamendu politikoko ariketa ere izan nahi du, bizitzarekin konprometitutako ikerketa-moduen aldeko apustua, historikoki isildutako jakintzak/ezagutzak aitortzea eta erdigunean jartzea, eta mundu justuago, jasangarriagoak eta guztiontzat bizigarriak eraikitzea.

*Ikerketaren mugak:*

Ikerketa honek hainbat muga ditu, eta komeni da horiek aipatzea. Lehenik eta behin, azterlana Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) testuinguru geografikoan eta emakume migratzaile feministen hiru kolektibo espezifikotan oinarritu da. Mugaketa hori lanaren izaerari eta lana egiteko dagoen denborari dagokie ( sei hilabete ), eta horrek eragotzi egin du azterketa beste lurralde batzuetara zabaltzea edo elkarte gehiago sartzea.

Lan honen muga nagusietako bat baina, begirada intersekzionala guztiz aplikatzeko zailtasuna izan da. Ikuspegi hori baliatzeko eta txertatzeko ahaleginak egin badira ere, ezaugarri metodologikoek eta datuen eskuragarritasunak ikuspegi hori sakonago garatzea eragotzi dute, eta horrek azterketaren irismena eta aberastasuna mugatu ditu.

Era berean, kolektiboek ikerketa-prozesuan zuzenean ez parte hartzea erabaki dute, eta horrek esperientzia eta diskurtso originaletarako sarbidea mugatu, eta jasotako diskurtsoen aniztasuna baldintzatu du. Lana batez ere bigarren mailako iturrietan, hots kolektiboek beraiek sortutako materialetan oinarritu da, eta horrek zenbait interpretazio sar ditzake eta lehen eskuko datuak lortzea mugatu.

*Etorkizunera begira:*

Amaitzeko, ikerketa honi eta bere mugei erreparatuz, etorkizuneko ildo posibleak irekitzen dira. Besteak beste, elkarte hauen proposamenek politika publikoetan duten eragin politikoa aztertzea, mugimendu feministako beste sektore batzuekiko loturak eta tentsioak aztertzea edota errealitate honen azterketa beste lurralde batzuetara zabaltzea.

Etorkizuneko ikerketetarako, ikuspegi intersekzionalaren aplikazioan sakontzea gomendagarria litzateke. Halaber, komenigarria litzateke, posible den heinean, aztertutako kolektiboen parte-hartze zuzena indartzea, ikerketa ikuspegi metodologiko eta etiko sendoago batetik aberasteko.

Muga horiek ordea, ez diete baliorik kentzen egindako ekarpenei, baina lurralde-irismena zabaldu, kolektibo gehiago sartu, ikuspegi intersekzionalean sakondu eta hainbat metodologia konbinatu ditzaketen etorkizuneko ikerketetarako funtsezko arloak adierazten dituzte.

6.BIBLIOGRAFIA

AEZLE-ATHCA (s.f.). *Asociación de Trabajadoras de Hogar y de* cuidados de Álava–*Arabako etxeko eta Zainketako Langileen Elkartea- ren* Facebook. *https://www.facebook.com/ATHCAALAVA/*

Agenjo-Calderón, A., & Gálvez-Muñoz, L. (2019). Feminist economics: Theoretical and political dimensions. *American Journal of Economics and Sociology*, 78(1), 137–166. https://doi.org/10.1111/ajes.12264

Alonso, L. E. (1999). Subjektua eta diskurtsoa: elkarrizketa irekien lekua soziologia kualitatiboaren praktiketan. In J. Delgado & J. Gutiérrez (Eds.), *Metodoei eta teknika kualitatiboei buruzko ikerketak gizarte zientzietan* (pp. 225–239). Editorial Síntesis.

Amurrio, M., Larrinaga, A., Martínez Herrero, M. J., & otros. (2023). *Transitando hacia la ciudad de los cuidados: Reflexiones sobre la organización social de los cuidados en el municipio de Bilbao*. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); Ayuntamiento de Bilbao.

Arcos Alonso, A., Barba del Horno, A., & García Azpuru, C. (2024). Remesas, género y cadenas globales de cuidados: El caso de la población de origen latinoamericano en la CAE. *Revista Migraciones*, 60, 1-27. https://doi.org/10.14422/mig.2024.007

Artazcoz, L., Borrell, C., Cortés, I., Escribà-Agüir, V., & Cascant, L. (2007). Los determinantes de la salud en una perspectiva integradora de los enfoques de género, clase social y trabajo. In C. Borrell & L. Artazcoz (Eds.), *Investigación en género y salud* (pp. 21–43). Sociedad Española de Epidemiología.

ATH-ELE (s.f.). *Asociación de Trabajadoras del Hogar de Bizkaia – Etxeko Langileen Elkartea Bizkaia- ren Web orria. https://ath-ele.com/es/*

ATH-ELE (S.F.) *Asociación de Trabajadoras del Hogar de Bizkaia – Etxeko Langileen Elkartea Bizkaia- ren Facebook-a. https://www.facebook.com/ATHBizkaia/?locale=es_LA*

ATH-ELE. (2021). Estadísticas 2021. Asociación de Trabajadoras del Hogar de Euskadi - ATH-ELE. https://ath-ele.com/es/estadisticas/

ATH-ELE. (2022/05/02). *1 de mayo 2022.* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: https://youtu.be/SWOIwrYg7ck?si=JFAoQl7wS2uNI4id

ATH-ELE. (2019/12/15). *Fraude a las trabajadoras de hogar por parte de la seguridad social.* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: https://youtu.be/xGl_n73jrfg?si=a4f8FPYtxxo9CPmF

ATH-ELE. (2020/12/15). *¡PAGAD YA EL SUBSIDIO EXTRAORDINARIO PARA LAS TRABAJADORAS DE HOGAR!.* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: https://youtu.be/eLxCiEiXU4o?si=oK7cPSwtR86viU0E

ATH-ELE. (2023/10/02). *Cómo solicitar el desempleo de las trabajadoras de hogar a partir del 1/10/2023.* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: https://youtu.be/rIc9s7F0GZE?si=RGRgWRkfaT4luOCr

ATH-ELE. (2025/03/27). *30 de marzo de 2025, todavía luchando por el derecho al paro.* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: https://youtu.be/hHJLZ4ZIh9g?si=hJHsMgdcN4FU8Tpu

AA.VV. (2022). Investigación feminista sobre migraciones: Aspectos epistemológicos y metodológicos. Hegoa & SIMReF-EH. https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/pdfs/662?locale=es

Barker, G. (2009). *Engaging men and boys in caregiving: Reflections from research, practice and policy*. United Nations, Commission on the Status of Women.

Benería, L. (1981). Conceptualizing the labor force: The underestimation of women's economic activities. *The Journal of Development Studies*, 17(3), 10–28.

Benería, L. (2018). ¿Qué es la economía feminista? *Alternativas Económicas*, (57), 50–51. https://alternativaseconomicas.coop/economia-feminista/que-es-la-economia-feminista

Bidez Bide (s.f.). Bidez Bide- *ren Web orria.* *https://bidezbide.org/*

Bidez Bide (s.f.) Bidez Bide- *ren Facebook-a.* *https://www.facebook.com/bidez.bide/?locale=es_ES*

Bidez Bide (2023/08/10). *Tráiler "LUCES EN SOMBRA" Ione Atenea.* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: https://youtu.be/_86I_QowIP8?si=9PNlmriUqv2qE61O

Bidez Bide (2021/02/26). *NOSOTRAS las otras Marina y Maria.* [On-line bideo fitxategia], eskuragarri hemen: https://youtu.be/Xhyy3FZFJVI?si=kCQfrGTD76C1-Uel

Biglia, B. (2012). Corporeizando la epistemología feminista: Investigación activista feminista. In M. Liévano Franco & M. Duque Mora (Eds.), *Subjetivación femenina: Investigación, estrategias y dispositivos críticos*. UANL.

Borrell, C., Palència, L., Muntaner, C., Urquía, M., Malmusi, D., & O'Campo, P. (2014). Influence of macrosocial policies on women's health and gender inequalities. *Epidemiologic Reviews*, 36, 31–48.

Carrasco, C. (2001). La sostenibilidad de la vida humana: ¿Un asunto de mujeres? *Mientras Tanto*, (82), 43–70. https://www.jstor.org/stable/27820584

Carrasco, C., Herrero, Y., & Jubeto, J. (2014). *Sostenibilidad de la vida: Aportaciones desde la economía solidaria, feminista y ecológica*. REAS Euskadi.

Carrasco, C. (2011). *La economía del cuidado: Planteamiento actual y desafíos pendientes*. Universidad de Barcelona.

— (2013): "El cuidado como eje vertebrador de una nueva economía", Cuadernos de Relaciones Laborales, vol. 31, nº 1, págs. 39-56.

Carrasco, C. (2014). La economía feminista como apuesta teórica y política. En C. Carrasco (Ed.), *Economía feminista: propuestas y debates* (pp. 19–45). Traficantes de Sueños.

Carrasco, C. (2015): "El cuidado como bien relacional: hacia posibles indicadores", *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, nº 128, págs. 49-60.

Carrasco Bengoa, M. C. (2016). Sostenibilidad de la vida y ceguera patriarcal. Una reflexión necesaria. *Atlánticas. Revista Internacional de Estudios Feministas*, 1(1), 34–57. https://doi.org/10.17979/arief.2016.1.1.1435

Comas, D. (2014). Los cuidados y sus máscaras. Retos para la antropología feminista. *Mora*, 20.

COMAS-D'ARGEMIR, Dolors eta BOFILL-POCH, Silvia (arg.) (2022): *Cuidar a mayores y dependientes. En tiempos de la covid-19*, Tirant lo Blanch, Valentzia.

Crenshaw, K. W. (1989). Demarginalizing the intersection of race and sex: A Black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics. *University of Chicago Legal Forum*, 1989(1), 139–167.

Crenshaw, K. W. (1991 [2021]). Cartografiando los márgenes: Interseccionalidad, políticas identitarias, y violencia contra las mujeres de color. *Stanford Law Review*, 43(6), 1241–1299.

https://mujeres.uocra.org/wp-content/uploads/2021/11/crenshaw-kimberle-cartografiando-los-margenes-1.pdf

Curiel Pichardo, O. (2014). Construyendo metodologías feministas desde el feminismo decolonial. In I. Mendia Azkue et al. (Eds.), *Otras formas de (re)conocer: Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. Hegoa & SIMReF-EH.

Dussel, E. (1999). Más allá del eurocentrismo: El sistema-mundo y los límites de la modernidad. In S. Castro-Gómez et al. (Eds.), *Pensar (en) los intersticios*. Instituto de Estudios Pensar.

Espinosa, Y. (2013). Una crítica descolonial a la epistemología feminista crítica. Ponencia presentada en *Fazendo Genero*, Brasilia.

Espinosa, Y., et al. (2013). Reflexiones pedagógicas en torno al feminismo descolonial. In C. Walsh (Ed.), *Pedagogías decoloniales* (pp. 403–442). Abya Yala.

Ezquerra S. (2012). Crisis de los cuidados y crisis sistémica: la reproducción como pilar de la economía llamada real. *Investigaciones Feministas*, 2, 175-187. https://doi.org/10.5209/rev_INFE.2011.v2.38610

Fantova, F. (2015). Crisis de los cuidados y servicios sociales. *Zerbitzuan: Revista de servicios sociales*, (60), 47–62.

García-Azpuru, A., Barba del Horno, M., Arcos-Alonso, A., Martínez-Portugal, T., & Fernández de la Cuadra-Liesa, I. (2023). La relevancia del boca-oreja en el devenir de los flujos migratorios internacionales: El caso de la CAE. *Methaodos. revista de ciencias sociales, 11*(2), m231102a05. https://doi.org/10.17502/mrcs.v11i2.634

Gandarias Goikoetxea, I. (2016). *Hasta que todas seamos libres*. Tesis Doctoral, UAB. http://hdl.handle.net/10803/399834

Gil, S. L., & Pérez *Orozco*, A. (2011). *Desigualdades a flor de piel: Cadenas globales de cuidados. Concreciones en el empleo de hogar y políticas públicas*. ONU Mujeres Santo Domingo, Madrid.

Grosfoguel, R. (2010). *La descolonización de la economía política*. Universidad Libre Bogotá.

Harding, S. (1986). *Feminism and methodology: Social science issues*. Indiana University Press.

Haraway, D. (1995). Conocimientos situados: La cuestión científica en el feminismo y el privilegio de la perspectiva parcial. In *Ciencia, cyborgs y mujeres: La reinvención de la naturaleza*. Cátedra.

Herrero, Y. (2011). Propuestas ecofeministas para un sistema cargado de deudas. *Revista de Economía Crítica*, (13), 30–54.

Herrero, Yayo. (2011.). *Postdesarrollo, decrecimiento y relaciones norte-sur.* https://youtu.be/IjAnCPslyyk?si=8qpBZ6MbppU9Uxc1

Herrero, Y. (2016). Economía feminista y economía ecológica: El diálogo necesario y urgente. *Revista de Economía Crítica*, nº22, segundo semestre 2016, 144-161

Helma, R. (2018). Helma, R. (2018). Care migration: The connectivity between care chains, care circulation and transnational social inequality. *Current Sociology Monograph, 66*(4), 577–589.

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales (2005). *Cuidados a las personas mayores en los hogares españoles: El entorno familiar* (1ª ed.). IMSERSO, Gobierno de España.

Larrañaga, M., & Jubeto, Y. (2011). Ordaindutako zaintza lanen inguruko hausnarketa: EAEko kasua. *Lan Harremanak - Revista De Relaciones Laborales*, (18). https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.2806

LANDER, Edgardo (comp.) (2000): *La colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales. Perspectivas latinoamericanas*, CLACSO/UNESCO, Buenos Aires y Caracas.

Legarreta-Iza, M., Castelo Moñux, U., Uriarte Goikoetxea, A., Barañano Uribarri, M., & Sagastizabal Emilio-Yus, M. (2023). *Zaintza eta zahartzaroa: XXI. mendeko erronkak* (Hegoak zabalduz, 31). Hegoa. https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es/publications/615

LEGARRETA, Matxalen eta SAGASTIZABAL, Marina (2020): Tiempo, ciudadanía y desigualdades. Una aproximación a los usos del tiempo y al derecho al tiempo propio, Bartzelonako Udala, Bartzelona.

Lugones, M. (2003). Street walker theorizing. In *Pilgrimages/Peregrinajes*. Rowman & Littlefield.

Lugones, M. (2008). Colonialidad y género: Hacia un feminismo descolonial. In W. Mignolo (Ed.), *Género y Descolonialidad* (pp. 13–25). Ediciones del Signo.

MALDONADO-TORRES, Nelson (2007): “Sobre la colonialidad del ser: contribuciones al desarrollo de un concepto”, en CASTRO-GÓMEZ, Santiago y Ramón GROSFOGUEL (eds.): *El giro decolonial. Reflexiones para una diversidad epistémica más allá del capitalismo global*, Siglo del Hombre Editores, Bogotá, 127-168.

Marçal, K. (2016). *Quién le hacía la cena a Adam Smith: Una historia de mujeres, economía y otras cosas*. Debate.

Mosquera, I., Martín, U., & Larrañaga, I. (2018). *El cuidado informal en la Comunidad Autónoma del País Vasco: Análisis de la Encuesta de Salud de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2013*. Departamento de Salud, Gobierno Vasco. https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/enc_salud_2013_publicaciones/es_def/adjuntos/cuidados.pdf

Mohanty, C. (2008). Bajo los ojos de Occidente. In L. Suárez & R. A. Hernández (Eds.), *Descolonizando el feminismo: Teorías y prácticas desde los márgenes* (pp. 112–161). Cátedra.

Osakidetza – Servicio Vasco de Salud. (2013). *El cuidado informal en la Comunidad Autónoma del País Vasco: Encuesta de Salud 2013* [PDF]. Gobierno Vasco.

Oyarce Pizarro, J. (2021). (Re)Construcción de la realidad y protesta. *Anuario del Conflicto Social*, 12, e-36262. https://doi.org/10.1344/ACS2021.12.2

Pérez Orozco, A. (2006). Amenaza tormenta: La crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico. *Revista de Economía Crítica*, (4), 81–106.

Pérez Orozco, A. (2014). *Subversión feminista de la economía: Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida* (4.ª ed., 2019). Traficantes de Sueños.

Pérez Orozco, A. (2017). *Aprendizajes de las resistencias feministas latinoamericanas a los tratados de comercio e inversión: Del no al ALCA al cuestionamiento del capitalismo patriarcal.* Observatorio de Multinacionales en América Latina (OMAL). https://omal.info/IMG/pdf/resistencias_feministas_latinoamericanas_frente_tratados_comercio.pdf

Power, M. (2004). Social provisioning as a starting point for feminist economics. *Feminist Economics*, 10(3), 3–19.

Picchio, A. (2003). *Una perspectiva macroeconómica del trabajo no remunerado y el bienestar*. CEPAL.

Quijano, A. (2000). Colonialidad del poder: Eurocentrismo y América Latina. In E. Lander (Ed.), *La colonialidad del saber* (pp. 1–14). CLACSO/UNESCO.

RAZAVI, Shahra (2007). *The political and social economy of care in a development context. Conceptual issues, research questions and policy options*, United Nations Institute for Social development, Geneva.

RIVERA CUSICANQUI, Silvia (2010). *Ch'ixinakax utxiwa. Una reflexión sobre prácticas y discursos descoloniales*, Tinta y Limón/Retazos, Buenos Aires.

Spivak, G. C. (2009). *¿Pueden hablar los subalternos?* (M. Asensi Pérez, Trans.). Museu d'Art Contemporani de Barcelona. (Jatorrizko lana 1988an argitaratua).

Tarrow, S. (2004). *El poder en movimiento: Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política* (2ª ed.). Alianza.

Tilly, C. (2002). Repertorios de la acción contestataria en Gran Bretaña: 1758–1843. In M. Traugott (2002), *Protesta social: Repertorios y ciclos de acción colectiva* (pp. 17–48).

Touraine, A. (2006). Los movimientos sociales. *Revista colombiana de sociología*, 27, 255-278.

Tonon de Toscano, G. (2008). La entrevista semi-estructurada como técnica de investigación. In *Reflexiones latinoamericanas sobre investigación cualitativa*. (pp. 47-61) Buenos Aires.

Urzúa, S. (2015). ¿Cómo marchan los jóvenes en el Chile de postdictadura? Algunas notes sobre la apropiación del espacio público y el uso político del cuerpo. *Última Decada*, 42, pp.39-64

Ulazia, U. (2024). *Euskal Herriko greba feministak: Diskurtsoaren analisia feminismo materialistatik* (J. Goikoetxea, Ed.). Susa.

Urra, E., Muñoz, A., & Peña, J.. (2013). *El análisis del discurso como perspectiva metodológica para investigadores de salud*. *Enfermería universitaria*, *10*(2), 50-57. http://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1665-70632013000200004&lng=es&tlng=es.

Comas-d'Argemir, Dolors y Bofill-Poch, Sílvia (eds.) (2021): El cuidado importa. Impacto de género en las cuidadoras/es de mayores y dependientes en tiempos de la Covid-19, Fondo Supera COVID-19 Santander-CSIC-CRUE Universidades Españolas.

www.antropologia.urv.cat/es/investigacion/proyectos/cumade/

Vilanova, J.C. (2012). Revisión bibliográfica del tema de estudio de un proyecto de investigación. *Radiología, 54*(2), 108-114. https://www.alergia.org.ar/pdfs/revision-bibliografica-tema-estudio.pdf

# 7. ERANSKINAK

## Eranskina 1: Elkarrizketa erdi-egituratuaren gida

ELKARRIZKETA ERDI-EGITURATUAREN GIDA

www.hegoa.ehu.eus